
Euskaltzainak Bilduma

Argitaratuak:

1. *Gratien Adema*. Zaldubi
Saindu batzuen biziaz. 2007
2. *Pierre Charriton*
Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Lhande*
Yolanda eta beste euskarazko idazlanak.
2007
4. *Gratien Adema*. Zaldubi
Artzain beltzaren neurtitzak. 2008



Euskaltzainak izeneko bilduma berrian euskaltzain izan direnen eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiarako esanguratsu gertatu diren egileetatik hainbaten lanak ere alboratu gabe.



Euskaltzaindia
Real academia de la lengua vasca
Académie de la langue basque

Laguntzaileak:



**PIERRE
LHANDE**

PIERRE LHANDE

YOLANDA
eta beste euskarazko idazlanak

Aintzin solasa, oharrak eta solas-ondoa:
Jon Casenave



EUSKALTZAINAK BILDUMA

EUSKALTZAINDIA



JON CASENAVE

Jon Casenave Baionan sortu zen, 1957ko uztailearen 4an. Letretan diplomatua, Euskal Ikasketetan doktore eta Bordeleko Michel de Montaigne III. Unibertsitatean irakasle. Baionako IKER ikerketa gunean partaide, idazle eta kritikaria ere bada. 2003an, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen. Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa batzordekidea da. 1997an doktoretza tesia aurkeztu zuen, Jean Etxepareri buruzkoa. Tesiaren izenburuahau izan zen: "De l'article de presse à l'essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare". Hainbat liburu idatzi du, horien artean *Bidaia*, Peio Cabalette musikariaren kantata baten testua, eta *Ilargi xendera*, Cabaletteren opera baten testua. Baita ere *Azkenean dilindan* (Mattin Larzabalekin batera, 1978, Ustela), *Zutaz amorosi* (1978), *Itsu-mandoka* (1981) eta *Ordu alferren segida* (1985, Elkar). Ikerketa mailan ere lan ugari kaleratu ditu.

PIERRE LHANDÉ

YOLANDA

Lhande, Pierre (1877-1957)

Yolanda eta beste euskarazko idazlanak / Pierre Lhande ; aintzin solas, oharrak eta solas-ondoa Jon Casenave. – Bilbo : Euskaltzaindia, 2007

XXVI, 102 orr. ; 25 cm. - (Euskaltzainak ; 3)

L.G. BI-469-08

ISBN: 978-84-95438-36-2

I. Casenave, Jon. II. Tit. III. Serie.

821.361-31"19"

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Aurreinprimatzea: Ikur, S.A.

Diseinua: Ikeder, S.L.

Inprimatzea: Baster, S.L.L.

ISBN: 978-84-95438-36-2

Lege-gordailua: BI-469-08

PIERRE LHANDÉ

YOLANDA
eta beste euskarazko idazlanak

Aintzin solasa, obarrak eta solas-ondoa: Jon Casenave

EUSKALTZAINDIA

BILBO
2007

JON CASENAVE

AINTZIN SOLAS

PIERRE LHANDÉ (1877-1957)

1. Nor izan da Pierre Lhande ?

Irakurle gehienentzat, *Lhande* deitura fama handiko estalgi berdea duen hiztegi bati¹ lotua da (*Dictionnaire Basque-Français*), 1926-ean Pariseko Beauchesne argitaletxean zatika agertzen hasia zena hain zuzen. Bainan, idazle gisa guziz ahantzia da XXI-garren mende hastapen hontan, nahiz emankorrenetarik bat izan den garaiko euskal idazleen artean. Adituetatik kanpo, nork daki gehiago, bigarren munduko gerla aintzin, euskaldun ezagunena izan dela Pariseko plazan eta idazle ospetsu bilakaturia zela frantsesa irakur zezakeen eskualde guzietan ? Hogeitahamar liburuz goiti utzi duen idazle gutti izan da Euskal Herritik jalgi direnen artean.

Idazle famaren aldetik, garai hartako Euskaldun ezagunen artean behar bagenu norbaitekin konparatu, Pio Baroja-rekin parezka genezake. Bainan, anartean, denbora joan da, eta Bera-ko idazlearen balioak eta harrerak gero eta gorago egin duten bitartean -Españako baita ere Europako klasikoen artera sartzeraino-, Lhande-n omena mendretuz joan da Euskal kulturaren alorrean eta era bat desagertzera frantses literaturaren historiatik.

Gisa berean ahantzi dugu, bi gerla nagusien artean, Pariseko agerkariak haren deitura goraiatu zutela bospasei urtez jarraian « hiri bazter gorrien » alde, apaiz gisa, antolatu zituen eginkizunak xeheki aipatuz. Era berdinean, ez dugu gehiago gogoan ospe handiko predikaria izan zela eta, frantses Elizaren aintzindariak hura zutela hautatu lehen emankizunen egiteko, orduan abiatu berria zen irratian, abots beroa eta mintza molde xehe bezain hunkigarria zituelako.

¹ *Beauchesne* argitaletxean behin baino gehiagotan berargitaratua XX-garren mendean zehar, azken urte hauetan agortua zena eta Elkar argitaleak berriz jalgia.

Idazlea eta predikaria aipatzeaz gain, ez genuke goi maileko intelektuala baztertu behar, kronika egile eta literatur kritikari gisa ezagutua izan baita ere.

Liburu honen aurkezpenean, ez dugu haren bizia gainez gain baizik kondatuko, *Bidegileak*² bilduman, Patri Urkizu-k berriki aipatua baitu eta ez da dudarik, bibliografian agertzen diren erreferentzietan, irakurleak aurkituko duela bere jakin minaren asetzeko behar den guzia. Ondoko lerroetan, euskal gaietan egin duena izanen dugu aztergai nagusia eta, batez ere, berriz argitaratzen den *Yolanda* eleberria.

Haurtzaroa eta etxeokak.

Pierre Lhande 1877-ko uztailearen 9-an sortu zen Baionan, egungo egunean "Orbe" deitua den karrikan. Ama, Pauline Heguy, Montevideo-n sortu zen, Euskal Herrira ondasun batzuen jabe itzuli zen familia batean. Hemeretzi urte zituen doi doia Pierre seme gehiena ukaitean. Aita, Jean-Pierre Lhande, Baionako merkataria bat zen. Monique Heguy, Pauline-n ahizpa gehienarekin ezkondu zen lehenik eta bi alaba ukan zituzten elkarrekin. Andrea 1874-ean galdurik, Pauline haren ahizparekin berriz ezkondu zen. Hiru seme ukan zituen ahizpa gaztearengandik. 1886-an Espainian gaindi zebilala bizia galdu zuen Pierre-n aitak. Ordutik laster Baiona utzirik, ama gaztea bere bost hurrekin joan zen burrasoengana, Zalgizeko jauregian bizitzera. Etxe hartan sortua zen Zalgizeko Beltran, Oihenart-ek goraiatu zuen XVI-garren mendeko xuberotar poeta famatua.

Formakuntza eta laneko lehen urteak.

Pierre Lhande-k « Saint-Bernard » Baionako ikastetxean iragan zituen bere eskolako lehen urteak eta Zalgizen jarriz geroz, Maulekoan segitu zituen ikasketak. Hamasei uterekin Baionako Seminario handian sartu zen apaiz egiteko, bainan, bi urteren buruan, handik joan zen apaiztu baino lehen, hango buruzagiek kanpora bultzaturik ikasle eta apaizgai bihurriegia zitzaielako. Poesian eta literaturan ba omen zuen gustu gehiago teologian baino.

Ondotik, soldadogoa egitera abiatu zen bainan ez zuen bukatu osasun arazo batzuegatik. Zalgizen zenbait astez pentsaketa egon ondoan, 1900-ko irailean Jesusen lagundian sartu zen. Ordutik hara, Jesuiten formakuntzaren maila guziak iragan zituen, Lagundiak ezagutu zuen garai guziz nahasi batean.

² Patri Urkizu, *Pierre Lhande Heguy (1877-1957)*, *Bidegileak*, Ed. Eusko Jaurlaritzza, 1998.

Urte haietan, 1901-etik 1904-ra Frantziako hirugarren Errepublikak kongregazioneak legez kanpo ezarri zituen, batez ere erakaskuntzaren sailean eta Jesuitak lehenetatik izan ziren desterruaren bidean. Belgikan egonaldi bat egin ondoan, Jersey-ra joan zen Pierre Lhande eta, azkenean, Holandan bukatu zuen formakuntza. Erakaskuntzarako prestatu zuen bere burua eta 1905-ean, Españaan ukan zuen lehen postua, Puerto de Santa Maria-ko ikastetxe batean. Bi urte berantago, Belgika-ra itzuli zen eta 1910-ean, apaiztu zen. Ondoko urteetan, Euskal Herrian finkatu zen luzarako, lehenik Hondarribian eta geroxago Hernani-ko Jesuiten ikastetxe batean. Bidai denboraldiak ez ezik (eta urtean zehar, maiz ibiltzen zen bidaiaz, batez ere predikatzeko), 1917-a arte, lehen munduko gerlara joan aintzin, Hernanin bizi izan zen.

Idazlea :

Pierre Lhande gazte gaztedanik idaztera ekarria zen eta 1908-an, *Autour d'un foyer basque*, bere lehen liburua argitaratu zuen. Ordudanik, artikulua eta liburuak plazaratu zituen etengabe. Hari buruz egin den biografia osatuenean³, bibliografia osoa agertzen da ; orotara, 51 liburu eta liburutto konda daiteke, horietan batzu milaka aletan banatuak izan direnak. Horiek lau sailetan sailkatuak dira :

- Elizako gaiak eta predikuak –irratian emanak eta ondotik liburu gisa argitaratuak– : 20
- Saiakerak, ikerketak eta bidai kondaketak : 16
- Biografiak : 3
- Eleberriak, kondaketak eta ipuin bildumak : 9.

Obraren parte gehiena frantsesez idatzia izan da ; halarik ere, eleberri bat (*Yolanda*) eta zenbait artikulua euskaraz eginak izan dira ; batez ere, *Euskara*, Euskaltzaindiaren agerkarian argitaratu zituen Lhandek, erakunde sortu berriaren idazkari nagusia izan zelarik, 1919-1920 urteetan. Liburu horietarik zenbait gaztelerara eta beste Europako hizkuntza batzuetara itzulia izan ziren, batez ere eleberriak, sail hortan bildu baitzuen arrakasta handiena idazle gisa.

Goi mailako intelektuala eta predikaria :

Bestalde, goi maileko intelektualtzat hartua izan da bere denboran. Lehen gerlatik landa, Tolosara (Toulouse) deitua izan zen eta hango “Lettres“

³ *Le Père Lhande, pionnier du Christ dans la banlieue et à la radio*, Jeanne Moret, Ed. Beauchesne, 1964.

saileko Fakultatean⁴ erakatsi zuen zenbait hilabetez, besteak beste Euskara eta Euskal literaturari buruz⁵. Ondotik, Parisen izendatua izan zen eta *Etudes* Jesuiten aldizkari ospetsuaren erredakzioan sartu zen literatur kritikaren sailaz arduratzeko.

Denbora berean, beste eginbide bat eman zioten Elizako agintariek. XX-garren mende hasieran, Parise inguruko bazter gorriek garapen desorekatu bat ezagutzen zuten. Inguruetako edo urrunagoko eskualdeetatik heldu ziren jendalde handiek bizi pobre baten nekeziak bizitzen zituzten : egoitzen eskas gorria, lan segurrik ez, bizi egitura beharrenak falta, etb. Gainera, Eliza katolikoaren ikusponduetik erligio mailako laguntza eta egitura premiazoak ere falta ziren. Pierre Lhande deitu zuten “misiolari” gisa eta hura lanari lotu zen, diru biltze kanpañak antolatuz eta bisitaaldiak eginez. Jende baztertuak lagundu nahiz eta behartsuen egoeraz ongi bizi zirenak abisatu nahiz, irratia bidez (“Radio-Paris” lehenik ; “Radio-Luxembourg” ondotik), hasi zen predikatu egiten. Pariseko plazan, guziz ezagun bilakatu zen Pierre Lhande eta non nahi ekar arazten zuten gai horiei buruz mintzaldien emateko. Fama horri esker, urrungo erresuma batzuek bisitatu zituen. Hego Amerikan gaindi ibili zen 1930-an, hango Euskaldunak ezagutu nahiz. 1932-an Madagaskar uharterean izan zen, eta ondoko urtean, India bisitatu zuen. Bidai horietatik, aldi guzietan, liburu bana ekarri zuen eskualde haietako arazoak eta egoera ezagutarazi beharrez, orduko erranmolde eta ikusmoldeen bitartez adiaraziak, liburu izenbureuek erakusten duten bezala : *La France rayonnante : Argentine, Chili, Uruguay* (1931) ; *Notre époque missionnaire : Madagascar* (1932) ; *L’Inde sacrée* (1933).

Euskalzalea eta Euskaltzaina :

Euskal Herriarentzat duen interesa berehala agertzen da bibliografiari so eginez. Hain segur, gazte gazterik jin zitaion euskararen alderako zaletasuna bainan, mementoan ez dugu lekukotasunik alde hortarik ; halarik ere, gogoan

⁴ *Gure Herria* agerkarian egin duen saio biografikoan, Ph. Aranart xehetasun interesgarri hau ematen du : « ... il se vit confier à la Faculté des Lettres de l’Université la chaire de littérature et de langue basque. Pas pour longtemps, hélas !, car les maisons d’enseignement libre n’admirent pas qu’un prêtre professât dans un établissement d’Etat, alors qu’on avait expulsé de leurs écoles toutes les congrégations. » *Gure Herria* 1960, Un Précurseur / Le Père Lhande. Beste zenbait iturritan, Fakultate katolikoan (Institut d’Etudes catholiques de Toulouse) erakatsi zuela idazten da eta, sinesgarriago ematen du. Bainan, kontutan har daiteke Ph. Aranart-en lekukotasuna, P. Lhande ezagutu baitzuen garai hartan ; orroitarazi behar da, Ph. Aranart-ek Lafittekin batean Lhande-k abiatu zuen hiztegia eraman zuela bururaino.

⁵ Orduko erakasgai batzuek sartu zituen *Le Pays basque à vol d’oiseau* (Ed. Beauchesne, 1926) liburuan.

atxik dezagun argitaratu zuen lehen liburua gai horri buruz egina zela : *Autour d'un foyer basque*, 1908. Eta, bi urteren buruan, *L'Emigration basque* publikatzen zuen. Jadanik aipatu bezala, ondotik fikzioaren bitartez idurikatu zituen euskal gaiak. Bainan, hizkuntza sailean egin duen ekartze handiena, dudarik gabe, 1926-ean argitaratzen hasi zen hiztegiarekin egin zuen. P. Lafittek eta Ph. Aranart-ek idatzi dutenez⁶, beste kargu batzuetara deitua izan zelarik, dolu handirekin hiztegi gintza utzi behar izan zuen P. Lhandek, "E" hizkira doi doia heldua zelarik. P. Lafittek berak eta Ph. Aranart-ek hartu zuten segida eta lana bururaraino eraman zuten. Nahiz parte gehiena egin zuten, "Lhande" ekarri zuten egile bakartzat hiztegia liburu gisa argitaratzean, eta geroztik, horrela ezagutua da.

Euskalzalea ongi agertzen da ere Oihartzungo Euskal Jaietan, 1915-ean, eman zuen hitzaldian⁷, ikerlea eta militantea bateratzen dituelarik mintza molde suhar batean. Bestalde, hainbat artikulu publikatu zituen Euskal Herriko agerkarietan, erdaraz gehienak eta zenbait euskaraz (ikus bibliografian), euskal literaturari buruz, hala nola *RIEV* eta *Gure Herria* aldizkarietan besteak beste.

Bainan, Lhande-n lana ez da hortan mugatzen. Gizarte mailako egituratze edo instituzionalizatze prosezuan ere parte hartu zuen, Euskal Herrian bizi zeno. Hala nola, *Euskaltzaindia*-ren sortze mugimenduan. 1920-ean, urriaren lehenean ospatu zen bilkuran⁸ izendatua izan zen euskaltzain, lehen lehenetatik beraz, jakinez sortzaile garrantzitsuenak (Azkue, Campion, Urquijo, Broussain, etb.) urte bat lehenago hautatuak izan zirela. Preseski, R.M. Azkue eta P. Broussain-en arteko gutunetatik batean, gai horri buruzko xehetasunak aurki daitezke. 1919-eko apirilaren 24-ean, Broussain-ek Lhanden izena proposatzen dio Azkueri... bigarren aukera gisa haatik : "Si l'abbé Uhart ne voulait pas faire partie de l'Académie, nous aurions la ressource de nous adresser au Jésuite Lhande, souletin également, et qui est le directeur spirituel des Jésuites français de Hernani. Le Père Lhande aime beaucoup la langue basque, qu'il parle couramment, et on m'a dit qu'il avait entrepris de composer un dictionnaire souletin-français. »⁹

⁶ Besteak beste, ikus *Gure Herria* 1960, Ph. Aranart, « Un précurseur / Le Père Lhande » : « Aussi dès qu'il lui fallut quitter la « cité des violettes » pour la « Ville Lumière », dut-il mettre tous ces travaux en sommeil. C'est seulement six ans après, qu'avec l'abbé Pierre Lafitte et... le consentement du Père, nous mettant, à notre tour, courageusement à l'ouvrage, en équipe, nous sauvâmes du naufrage à peu près certain, le nouveau lexique stoppé à la troisième lettre de l'alphabet. »

⁷ Mintzaldi hori liburu honen eranskinetan aurkitzen ahal da.

⁸ *Euskera*, 1920.

⁹ *Resurreccion Maria de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa*, P. Charriton-k paratua, IKER 4, Ed. Euskaltzaindia, 1986.

Oroitarazi behar da ere, bi urtez ereman zuela *Euskera*, Euskaltzaindiaren agerkariaren idazkaritza.

Goizik isildua, doi bat ahantzia.

Gorago aipatu bezala, 1921-tik hara Toulouse-ko eskualdera deitua izan zen eta, 1925-tik landa, Parisera, egin bide berri batzuen arduratzeko gisa. Nahiz ez zuen gehiago *Euskaltzaindia*-ren lanetan zuzenki parte hartzen, euskal gaietan zer berri zen bazekien eta jakinean egoteko indarrak egiten zituen, *Le Pays basque à vol d'oiseau* (1925) liburuan argi uzten duen bezala, batez ere ikerketa eta argitalpen sailen aldetik. Eta, ahal bezainbat, Euskal Herrira eta batez ere Xuberora itzultzen zen, Ligira eta Zalgizera hain zuzen.

Guziz hartua zen P. Lhande, Parisen jarriz geroz eta Frantzia guzitik ekarrarazten zuten mintzaldien emateko. Halako batez, 1934-ean, Lille-n zelarik mintzatzen, buru muinetan odol isurtze bat gertatu zitzaion ; ondotik, ezindua gelditu zen eta, nahiz berriz hasi zen lanean zenbait hilabetez pausatu eta, ez zen sekulan lehen bezala izan. Eri handi izanik ere, liburu prestatzen ari izan zen urte horietan. *Le Moulin d'Hernani* argitaratu zuen 1936-ean, eta funtsean hura izan da P. Lhande-n azkena. Beste bat landu zuen luzaz, autobiografia bat fikzio gisa emana : *L'Abbadia d'Isturitz*. Bainan, ez zuen argitalpena ardietsi, liburua berridatzirik ere¹⁰.

Hogeitahiru urtez bizi izan zen horrela, urtetik urtera tipituz osasunaren aldetik, osoki enbaldier bilakatu arte. Parisen, Pauen eta, azken urteetan, serorek atxikitzen zuten Atarratzeko ospitalean egon zen eta han bertan hil zen, 1957-an.

Ondoko urteetan, Pierre Lhande aipagai izan zen oraindik Iparraldean batez ere, bere garai ederrenean ezagutu eta miretsi zutenen artean : G. Epherre haren ordainez hautatua izan zen euskaltzain xuberotarra¹¹, Ph. Aranart¹², E. Salaberry¹³. Bainan, 1965-tik hara gero eta guttiago aipatu zen Pierre Lhande euskal kultura mailan. Eta bere garaiko beste euskalzale

¹⁰ 1949-ko agorrilaren 16-an, *Plon* argitaletxetik jaso zuen gutunean, hauxe irakur daiteke : « Toute la première partie est joliment racontée, dans un récit plein de fraîcheur et de pittoresque. Le gros défaut de ce roman est qu'en réalité, il se compose de deux parties distinctes et, pourrait-on dire, de deux romans. Entre la première partie, c'est-à-dire la réadaptation au pays d'une famille américaine et la deuxième partie, l'histoire d'une vocation, il n'y a qu'un lien assez ténu et surtout une différence de ton et de composition très apparents. » Beraz, horrela adiarazi zioten ez zutela eleberria argitaratuko.

¹¹ G. Epherre, « Aita Lhande ziberotar Euskaltzaindiaren orhitzapenez », *Gure Herria*, 1959.

¹² Ph. Aranart, « Un précurseur / Le Père Lhande », *Gure Herria*, 1960.

¹³ E. Salaberry, « Le Père Lhande, troubadour du Christ », *Gure Herria*, 1965.

famatuen gisa, hala nola Broussain, Champion edo Eleizalde, doi bat ahantzia izan da.

2. Euskal gaien garrantzia obra nasai batean :

Arrakasta handiko obra nasaia :

Gorago ikusi bezala, P. Lhande-n obra nasaia izan da. Bainan, oraiko egunean ez da aise jakiten ahal zer arrakasta biltzen zuen bere garaian. Horren neurtzeko, bi xehetasun andana emanen ditugu eta biek, liburu beraren ingurumena osatuko dute. Lehenik, eman ditzagun berak 1930-ean **Plon** argitaletxe famatuan argitaratu zuen *Mirentchu*-rentzat (1914) altxatu zituen zenbakiak¹⁴:

- Collection Plon, 170e édition, 85 000 exemplaires
- Collection Plon populaire, 60 éditions, 30 000 exemplaires
- Collection de luxe Marpou, 176 exemplaires.

Ageri denez, liburuak kopuru handian saltzen zituen P. Lhande-k, eta gehienek arrakasta bertsea bildu dute.

Bestalde, liburu horiek zeukaten hartze edo harrera kritikoa aipatzekoa da ere, idazle xuberotarraren fama neurtu nahi bada. Zenbait libururentzat, “prentsa bilduma” bat egiten zuen berak ; *Luis* lehen eleberriarentzat, 74 artikulu altxatzen ditu. *Mirentchu*-rentzat adibidez, haren eskutik eginiko zerrenda irakur daiteke¹⁵ ; 1914-eko urtearentzat ezker eta eskuin argitaratu diren aipamenak moztu eta bildu ditu : lehen orrialdean agertu diren 22 artikulu nagusi ; 26 artikulu barneko orrialdeetan. Aipamen, luze horiek Euskal Herritik heldu zaizkio : *Eskualduna* (otsailean), *Euzkadi* (Maiatzean, Kirikiño, L. de Eleizalde), *RIEV* (Urtarrila-Martxoa), *Le Courrier de Bayonne*, etb. Bainan, non nahi aipatu zen *Mirentchu* : Pariseko kazeta handietan (*Le Figaro*, *Le Temps*, *L'Univers*), eskualdeetan (*Ouest-Eclair*, *Courrier du Centre*, *Hâvre-Eclair*, *Patriote des Pyrénées*, etb.), orduko kolonietan (*Annales algériennes*, *Echo d'Oran*, etb.), Frantziatik kanpo (Belgikan, Suizan, Kanadan, etb.), literatur aldizkarietan (*Mercur de France*, *Revue des Lettres françaises*, etb.).

Beraz, harrera mailan ere, arrakasta ederreko obra izan zen Pierre Lhande-k osatu zuena. Bestalde, idazle fama ez da Pierre Lhande-n eritasunarekin (1934) amaitzen ; bigarren munduko gerlatik landa oraindik, 1949-ean hain

¹⁴ Fonds « Lhande », Boîte L1/1, Archives des Jésuites, Vanves.

¹⁵ Fonds *Lhande*, Archives Jésuites, Boîte L 10 / 2 : Dossier de presse de *Luis*, *Mirentchu*, *Bilbilis*.

zuzen, gutunetan egiaztatzen ahal da Plon argitaletxearekin harremanetan zela, *Luis* (1912) eta *Mirentchu* (1914) berriz argitaratu beharrez.

Dobainez josia zen idazlea :

Ainitz sailetan ari izana da P. Lhande eta, bere garaian, predikari, filologo, saio egile, eleberrigile eta kritikari gisa ezagutua zen. Dohainez josia zirudien eta idazle bezala ere orduko handienen hegalpean lumatu zen. *Luis* lehen eleberrarentzat Plon argitaletxeak prestatu zuen aurkezpenean hauxe zioten : “M. Pierre Lhande est un jeune écrivain qui se réclame visiblement de la nouvelle école régionaliste et traditionaliste où ses premiers ouvrages sur le Pays basque, lui ont déjà créé une place. »

Mirentchu-rentzat berdin, gaia ikusiz, eleberrigile kontserbadore eta « erregionalisten » taldean jartzen zuen bere burua. Bainan, gaurko egunean uste dugun baino toki handiagoa eta ikusgarriagoa zuen mugimendu hori osatzen zuen idazle alde nasaiak. Nahiz bigarren gerlatik landa literaturaren historiatic astiro desagertu diren, idazle « progresistei » (Gide, Proust, etb) lekuaren uzteko, garaiko idazle famatuena talde hortakoak izan dira¹⁶ : hala nola René Bazin (1853-1932), eta Maurice Barrès (1862-1923). Preseski, garaiko bi izen handi horien eraginpean ezartzen zuten Pierre Lhande maizenik, orduko kronikariak ; Paul Bourget (1852-1935), eleberrigile psikologikoaren maisuarena kausitzen zioten ere, artetan. Bainan, *Mirentchu*-rentzat behin eta berriz heldu den erreferentzia, *Ramuntcho* (1897) Pierre Loti-ren eleberrigilearena da dudarik gabe. Eta gehienetan, kritikariak gehitzen zuten, maisuaren lana gisa batez gaintitu zuela : « M. Pierre Lhande n'a point suivi la grande voie frayée par le maître mais le sentier qu'il a suivi s'enfonce plus avant au cœur du pays. » *Le Nouvelliste* (Bordeaux), 1914-eko ekainaren 6-an.

Euskal gaiak : saiakerak eta eleberriak.

Pierre Lhande-k argitaratu duen liburu zerrenda bete betean¹⁷ obrak sailkatu behar badira, ikusi dugu hiru multxo nagusitan banatu behar direla. Alde batetik, fikzioa genuke hamar bat eleberrigilekin, bestaldetik saiakerak, bidai liburuak eta biografiak hamasei titulurekin eta bururatzeko, predikuekin eta elizako gaiak buruzko hitzaldiekin osatu zituen bildumak, hala nola irratia bidez eman zituenak urteka bilduak.

¹⁶ Ikus *Ecrire la France*, Anne-Marie Thiesse, Ed. PUF, 1991.

¹⁷ Ikus « Aintzin solas » honen ondotik agertzen den Bibliografia.

Liburu andana hortan, multxo bat bereiziko dugu, « Euskal gaiak » deituko duguna. Kronologikoki altxatuz, horrela betetzen ahal dugu sail berezi hori :

- *Autour d'un foyer basque* (1908) : saiakera.
- *L'Emigration basque* (1910) : saiakera.
- *Mirentchu* (1914) : eleberria.
- *Yolanda* (1921) : eleberria.
- *Le Pays basque à vol d'oiseau* (1925) : saiakera.
- *Bilbilis* (1926) : eleberria.
- *Le Moulin d'Hernani* (1936) : kondaketa labur batzuen bilduma.

Aintzin solas hontan ez da obra guzieren aurkezpenaren egiteko leku egokia ; xehekiago aipatzen dira *Yolanda* eleberriari egiten diogun azterketa batean, solas ondo gisa aurkitzen dena. Doi doia, « euskal zikloa » osatzen duten eleberrien ezaugarri nagusiak eman beharrez, erran dezagun, *Mirentchu* « erregionalista » edo kostunbrista deitzen den sailean sartzen dela, *Yolanda* eleberri historikoa dela gehien bat eta *Bilbilis*, « apokaliptikoa » edo « profetikoa » deit genezakeen sail batean sailkatzen ahal dugula.

3. Yolanda-ren aurkezpena :

Yolanda-ren argitalpenak :

Yolanda izan da Pierre Lhande-k euskaraz egin duen eleberri bakarra. Bainan, “*Yolanda*” deitu aintzin, beste izenburu bat zekarren idazlan horrek eta frantsesez argitaratu zen. Testua, Baionan 1921-tik aurrera agertzen hasi zen *Gure Herria* hilabetekarian publikatu zen zatika, *La Ferronnerie d'Ameznapar* titulupean :

- *Gure Herria* 1 (26-33 or), 1921-eko urtarrilean : “Urdanibia”, lehen kapitulua.
- *GH* 2 (82-88 or), otsaileko alean : “La forge”, bigarren kapitulua.
- *GH* 4 (239-245 or), apirilko alean : “Yolanda”, hirugarren kapitulua.
- *GH* 5 (274-282 or), maiatzeko alean : “L'appareillage”, laugarren kapitulua.
- *GH* 7 (409-424 or), uztailleko alean : “L'Auresku”, “Le pilote”, bostgarren eta seigarren kapituluak.
- *GH* 8 (558-573 or), agorrileko alean : “A l'abordage”, “La vengeance de la forge”, zazpigarren eta zortzigarren kapituluak.
- *GH* 10 (622-628 or), urriko alean : “Epilogue”, azken kapitulua.

Laugarren kapituluaren bukaeran, ohar labur batean eta zuzenketa batzuez gain, idazleak euskarazko egokipen bat prestatzen ari dela adiarazten

du¹⁸. Gipuzkeraz moldatua duela gehitzen du, abisua emanaz ere fikzio gehiago argitaratzeko gogoia baduela, iparraldeko bi euskalkitan, lapurteraz eta xubereraz hain zuzen.

Urte berean, 1921-an, *Yolanda* izenburupean, *Gure Herrian* agertu idazlana bi hizkuntzetan argitaratu zituen liburu gisa. Frantsesezkoa, Pariseko *Beauchesne* argitaletxean publikatu zuen. Argitaltixearekin egin zuen kontratuaren arabera, 3500 ale ateratu ziren lehen tirada batean, eta 10 000 alerentzat egina zuten tratua. Kopuru eder horrek erakustera ematen duen bezala, idazle fidagarri eta erakargarritzat hartua zen ordurako Pierre Lhande, lehenagotik argitaratu zituen liburuak –batez ere Plon argitaletxean– ongi saldu baitziren, hala nola *Luis* (1912) edo *Mirentchu* (1914).

Euskarazko idazlana, *Gure Herria*-n abisatu bezala, Donostiako Argia agerkariak publikatu zuen “ARGIAren idaztiak” deitu liburu bilduman, *Yolanda* izenburuarekin.

Eta geroztik, *Yolanda* ez da berrargitaratua izan.

Eleberraren berridazketa :

Gure Herria-n ezarri duen oin-oharrean, Lhande-k dio “egokipen”-a prestatzen duela. Beraz, harentzat ez da itzulpen soila izan behar euskarazko bertsioa. Bi hizkuntzetan agertu diren testuak hurbiletik aztertuz eta konparatuz ez duela itzuli erdaraz zen bezala garbi ageri da. Bainan, “egokipen” erran moldea ere ez da menturaz “egokiena”. Euskarara pasatzerakoan, gutti gora behera laurden bat galtzen du jatorrizko testuak. Gainera, erranaldi eta pasarte handi batzu osoki bestelakatzen ditu. Batzuetan, badirudi laster egindako lana dela eta gauzak ez balitu ber moldean erraten ahal euskaraz . Beraz, “berridazketa” hitza proposa daiteke, beste bien orde. Lan horren adibide baten emateko, Azturiagako jauregi zaharraren deskribapena emanen dugu ; hirugarren kapituluan (“Burniaren erregiña”) aurkitzen eta, Yoanes, Yolandaren gizongaiaren sorlekua da :

“Mais –détail que Jordaens avait le tort d’ignorer– cette reine avait déjà son roi, son roi par la pensée et par le cœur.

Si mon lecteur du XX siècle avait la curiosité de retrouver ce qui reste aujourd’hui du castel où régnait, dans l’attente, en 1619, le Prince Charmant promis au bonheur de Yolanda,

¹⁸ « Sur le désir exprimé par plusieurs de nos lecteurs, nous nous proposons, dès que la publication de ce court roman dans *Gure Herria* touchera à sa fin, d’en publier une adaptation euskarienne à laquelle nous travaillons en ce moment. Cette version en dialecte guipuzcoan sera intitulée *Yolanda* et paraîtra dans le nouveau journal basque de St-Sébastien : *Argia*. Plus tard, nous espérons bien revenir à *Gure Herria* avec un roman en labourdïn ou en souletin ».

il lui suffirait de reprendre à l'endroit où il l'a laissée pour bifurquer vers Urdanibia la grand route d'Irun à Fontarabie. Il traverserait la jolie cité enclose dans sa ceinture de vieilles pierres, puis le quartier des pêcheurs, la Marina, entre la double file des maisons blanches aux balcons de bois bleu sous l'auvent profond ; il longerait la plage bordée de villas modernes et suivrait la merveilleuse route en corniche qui mène à l'extrême pointe du promontoire pour mourir au phare du Cap Figurier.

Cet endroit où l'on vient creuser un port de refuge pour les barques surprises par la tempête quand la barre est déjà impraticable, porte un beau nom basque dédaigné des géographes : *Azturiaga*.

Ce nom harmonieux ne désigne plus aujourd'hui, sur les lèvres des marins et des prêtres que le promontoire, dernier éperon du Jaizkibel vers les eaux labortanes : il sera sans doute, celui de la petite cité de pêcheurs qui ne manquera de grouper ses maisonnettes blanches aux toits de tuiles rouges autour du nouveau port de refuge. Mais jusqu'au VIII^e (sic)¹⁹ siècle, il fut porté, non sans honneur par les habitants de ce castillo que l'on voit encore, cube de larges pierres noires, bâti sur un léger ressaut de la grève au débouché d'une combe qui dévale de la montagne vers la mer.

Aujourd'hui le castillo somnole dans le silence à peine coupé par le souffle long des vagues qui viennent expirer contre ses murs et par les clochettes des troupeaux de chèvres épars dans les ajoncs. Le soleil qui l'aime, le touche, de son premier rayon dès qu'il se hausse derrière les contreforts de la Rhune, il l'enveloppe de ses nappes chaudes jusqu'à l'heure où il contournera la croupe du Jaizkibel et la visite encore avec ses derniers feux quand il va plonger dans les lignes rouges de l'horizon marin. Ainsi baigné tout le jour dans une enveloppe de soleil et dans le rayonnement infini de la mer onduleuse, *Azturiaga*, dans ses pierres noires, ressemble au cœur obscur d'une flamme éternellement rayonnante. »

« *Baiña*, guzien ta batezere *Flamendarren* ixilik, erregiñ ark ia bere erregea bazeukan.

Errege ura zein zan edo non gordea zegoean jakiñ nai bazendu, irakurle maitea, eztakizu zein aldera jo bear ote zendukean ? Urdanibia'raiñoko bide zabal eder ura berriz artu bear zenduke ta itxasoruntz jarraitu. Bere orma beltz zarren erdian sartua dagon Ondarrabi'ko ta Marina'ko arrantzalien etxe aurre-xuri ta leio-urduinak igaro-ta, itsas bazterretik Jaizkobel'go azken muturraren luzean dabilen bide ikusgarri arri lotuko ziñateke, ta azkenean, antxe oraiñ portutxo berri bat jaso daukaten gune edo puntuan, gure aitonen aitonak *Azturiaga* deitu oi zuten toki bat aurkituko zenduke.

Izen polit ori an dagon iturritxo batena da , *baiña* or, geroan, portu berriaren inguruan pixkaka-pixkaka jasoko dan uriari emango dutelakoan nago. Batzuk badiote, gaur ere ikusten dezun yauregi zar orren lenengo bizizaleak, emezortzi garren gizaldiraiño, izen ori bera

¹⁹ Euskarazko testuak XVIII-garren mendea aipatzen du hemengo VIII-garrenaren orde eta, noski, horrela ulertu behar da erdarazkoan huts bat badelakotz.

zekartela ; ta gero galdu egin zan, ta Espaiña'ko errege Felipe II'garrenak beste izen bat eman zion : San Telmo. Guk, baldin nai badezu, izen zarra gordako diogu, euskarazkoa da-ta eta oso goxua.

Ikustaldi eman diozagun yauregi zarrari. Legorrearen muturxko baten gaiñean erakia dago arri aundi beltzez josia, urteak badaramazki-eta. Ur ondoan lokartua zegoken atso-zarzar bat dirudi. Ormak jotan diozkan itsasoaren suzmurra ta beti aldean dauzkan auntzen girgil ots biguna ; orra emen entzun dezakezun soñu bakarra. Egun guztian eguzkiz beti jantzia dago. Goizean goiz Arrunmendi'ko lepo atzean eguzkia sortzen danean, arpegira bere len-len leiñeruak bialtzen diozka ta egualdi guzian bere argi ta berotasunaz biribilkatu duanean, bere azken suak, ur-aundian suntzitzearekiñ badaramazkio. Olantxe, eguzkiaren ta itsasoaren argian pulun-patua, ta beltz ala-ere beti, zure sukaldeko krisailuan ikusten dezun garraren biotz ilun ura badirudi. »

Beraz, aise kontura daitekeen bezala, jatorrizko testu frantsesetik euskarazko testura, ezberdintasun nabariak dira : jatorrizkoan, 396 hitz badira, 267 euskarazkoan. Laurden bat guttiago beraz, eta orotara kopuru berdina aurki daiteke eleberri guzian. Motzagoa da euskarazkoa testua. Gero, ohartzen gara ere, laburtzeaz gain estiloa ere asko aldatzen dela. Deskribapen horren egiteko, « estilo artista » edo literarioa erabiltzen du :

« *Ainsi baigné tout le jour dans une enveloppe de soleil et dans le rayonnement infini de la mer onduleuse, Azturiaga, dans ses pierres noires, ressemble au cœur obscur d'une flamme éternellement rayonnante.* »

Euskarazkoan berriz, molde motzago eta soilago batez berridazten du frantsesez erran duena. Denbora eskasez ote ? Ala, A. Figuroak eta Jon Kortazar literatur adituek proposatu bezala²⁰ orduko sorkuntza mailako baldintzek (hizkuntza eta harrera mailan) manaturik ? :

« *Olantxe, eguzkiaren ta itsasoaren argian pulun-patua, ta beltz ala-ere beti, zure sukaldeko krisailuan ikusten dezun garraren biotz ilun ura badirudi.* »

Estilo mailetik hara ere, garrantzi handiko aldaketak aurki daitezke ; adibide bat ematekotan, orduko giro politikoari lotua den bat emanen dugu ondotik, « maketo » erran moldeak ongi erakusten duen bezala —nahiz hemen anakronismoa den—. Jordaens Flmandarrak harekin eskontzea eskatzen dio Yolanda-ri :

²⁰ Jon Kortazar, *Diglosia eta euskal literatura*, Ed. Utriusque Vasconiae, 2002.

« - *Oui, je l'ai fait, petite reine, moi le riche Jordaens, et pour qu'il cesse d'être fou, ce rêve, il n'y faut qu'un mot de votre bouche, un souffle de vos lèvres, Yolanda. Ce mot, dites-le :*

- *Non.*

- *Ce souffle. . .*

- *Eteindra votre rêve.*

- *Non !*

- *Si ! Le voilà : J'aime et je suis aimée et nous sommes fiancés et vous, parce que vous êtes un étranger et parce que votre amour est une insulte pour notre maison basque vous, tout riche que vous êtes, je vous déteste. Allez ! regagnez votre Flandre et vos dames vêtues de brocart. Yolanda de Ameznabar n'épousera jamais un « maqueto » !*

(Azken hitz honi, oin ohar bat loturik dago : « *Terme de mépris dont on désigne en pays basque, les étrangers* ».)

- « *Utsa dan ala ez, nere amets ori, zuk bakarrik ebaki dezakezu. . . Baiña amets ori egia izan dediñ nik badakit zure aotikako itz bat naikoa dala. Esan bada, andre, esan niri aïñ asmatutako itzño ori. . .*

- *Esan nezakean itz bakarrik zure ametsak itsasora jaurtiki litzazke.*

- *Gezurra diozu !*

- *Ez jauna. Ona emen itz ori : nik norbait maite det ; ta ura ezta Flamendarra ; ni norbaitek maite nau, ta ura Euskalduna.*

- *Ta Euskaldun zakar bat gatik Philippus Jordaens dirudun ospetsua gaitzetsi dezakezu ?*

- *Neretzat nor da Philippus Jordaens ? Ura da bakarrik atzerritar eta arrotza ta dan bezalakoa dalako, ta arrotzaren maitetasuna niri lotsagarri zaitalako Jordaens ori nik etsizat daukat. Bijua, bada, bere Flandretara ta bere janzki gorritz apaindutako andre ederren artera. Yolanda Urdanibi'tarrak ez-tu beñere laguntzat artuko Jordaens "plamenkoa" !"*

Besteak beste, garbi ageri da berridazketa mailan, « maketo » erran moldea eta hari doazkion ikus molde ideologikoak desagertu direla euskarara pasatzerakoan, kontrarioa logikoagoa izanen zelarik.

Euskalkiaren hautua.

Euskaraz idaztekotan, Xuberotarra izanki, iparraldeko euskalki batean idatziko zuela pentsa zaitekeen, dudarik gabe. Alta, gipuzkera hautatu zuen euskarara pasatzean. Zergatik ote ? Ez du Lhande-k xehetasunik utzi galde horren argitzeko. Beraz, hipotesia bilatzen eta aurkezten arizan behar da bide segurretik joan orde. Alde batetik, ikusi behar da Hernani-n bizi zela eleberria idatzia izan den garaian. Zenbait urte iragan zituen bertako Jesuiten ikastetxea Lehen Munduko Gerlara joan baino lehen, eta gerlatik etortzean hara itzuli zen. Beraz, aise ari zaitekeen euskalki hartan. Eta pentsa daiteke, idazterakoan, orduan guziz bere senditzen zuen hizkuntza mota aukeratu zuela.

Bizkitartean ez daiteke erran iparraldeko euskalkiak arrotzu zitzaizkiola, zeren eta, denbora berean Iparraldeko euskalkiei buruzko hiztegiaren osatzeko osagaiak biltzen ari da. Beraz, ez da izaten ahal errextasunaren hautua.

Bigarren hipotesia bat egin daiteke. Urte haietan (1920-1921), Euskaltzaindian ari zen lanean, Euskaltzain gisa baita ere *Euskera* agerkariaren idazkari bezala. Eta, euskararen batasunari buruzko eztabaida pil pilean zegoen orduan. Euskalkien aldekoak borrokan ari ziren batasunaren aldekoen aurka. Bainan, batasunzaleen artean ere, bereizketa nabaria zen²¹. Lhande, batasunaren aldekoa zen, dudarik gabe, Azkueren ikusmolde berekoa hain segur, beraz, gipuzkera osotuaren alde erabilera literarioaren aldetik. Bainan, denbora berean, xubereraz edo lapurteraz idatzi gogo zuela beste eleberri bat erraten du, gorago jadanik aipatu dugun *Gure Herria*-n ezarri zuen oin oharrean (*Gure Herria*, 1921 –Maiatzeko alea).

Azken hipotesia, harrerari buruz egiten dugu : alde batetik Lhande-k bazekien irurlegoaren parte nagusia Hegoaldean aurkitzen zela eta, batez ere Gipuzkoan. Beraz, irakurle bila ibiltzean, jo zukeen gehiengoaren gana. Bainan, arrazoin horrez gain, beste helburu bat aise nabari da liburutto hortan : nahikunde politiko bat bada literarioaren ondoan.

Beraz, ba da zer pentsa...

Amodio trabatua, dramatikotasunaren eragile.

Amodio historia da *Yolanda*, amodio trabatu batena, gehiago dena. Bainan, berezitasun nabariena, lehengo denboretan gertatua bezala emana dela, XVI-garren mendean hain zuzen. Itxebe-k, Yolanda-ren aitak ez ditu begi onez ikusten bere alaba gehienak (Yolanda) Yoanes Azturiaga-rekin dituen maitasun harremanak. Yoanes, aitoren seme izanik ere, pobrea da eta Ola handiko jabea den Ixtetek ez du nahi “gisa ez den ezkontza” eta ondasun elkartzete makurra bezain desokertua egin ditzan Yolandak, etxeko premuak. Gainera, Olara burdinketa datorren Flandrestar bat, etxe handiko semea -premu eta ondoko eginga hura ere-, Yolandaz maitemindua da eta nahi luke harekin ezkondu. Beraz, amodio trabatu hortan, lau partaide-aurkari badira : azkenean, amodio partekatua (bi euskaldun gazteen artekoa) traba guzieren

²¹ Bi aukeren artean egiten zen bereizketa hori : labur biltzeko, batzuen ustez (P. Broussain Hazparneko auzapez euskalzalea adibidez) euskalki bakoitzetik hoberena hartuz, hizkuntza “hobetua” eraiki behar zen ; bestentzat aldiz, ongi finkatua eta erdian zen –ainitzek, ez bada gehiengoak ulertzeko gisan– zen euskalki literario baten inguruan osatu behar zen euskara “berritua”, hala nola Azkuek proposatu zuen “gipuzkera osotua”-ren inguruan.

garaile aterako da, bukaera zoriontsu batean (bi maitaleak ezkontzen dira). Bainan, anartean, gora beherak ez dira faltako : mehatxu eta zirikaden artean, bahiketa bat gertatzen da, ihesliarren ondotik lasterraldi arriskugarri bat, borroka une bortitz bat, eta, aita amodio trabatzailearen “mea culpa” hunkigarri baten ondotik, ezin bertzean, aurkakoaren (Flandrestarra) gudu galtzea. Amodio trabatuak dramatikotasuna sortzen du kondaketa aintzina joan arau, eta hori azken gertakari odoltsua iragan arte.

Beraz, kondaketa mailan, osagai beharrenak ez dira falta nahiz, eleberria labur laburra den ber, molde eskematikoak gelditzen diren batzuetan, ginarri poxi bat falta balitz bezala. Kondatuak diren gertakizunen aldetik eleberri baten gaia eta egitura badituzke bainan, hats eta hedadura mailan, motz aire bat badu, ipuin luze (nouvelle) batena gutti gora behera.

Eduki historikoa.

Yolanda bereiz dago P. Lhande-n obran eta hori bi arrazoinengatik : alde batetik euskarazko bertsio bat baduelako ; bestaldetik, eleberri historikoa delako. Bigarren gaia, molde zehatz batez eztabaidatuko da liburuaren azken partean aurkitzen den “solas ondo”-an. Halarik ere, testuaren atarian zenbait puntu argitu behar dira irakurketaren errexteko gisa. Kondaketa, XX-garren mende hastapenean abiatzen da, P. Lhandek idazten duen garaian hain zuzen. Kondalari batek Urdanibia-ra erematen gaitu, Irun eta Oihartzun-en artean aurkitzen den Ola handi batetara, lehengo denboretan haraino heltzeko itsas-unzi burdinketariak hartzen zuten ur-bidetik.

Gertakariak, hamaseigarren mendekoak dira kondalariak dionez. Orduko European, Atlantika bazterrean, Baltika itsasotik Galiziaraino aurkitzen diren herrialde eta erresumen artean sal-erospenak beren gorenean dira. Denek dakigun bezala, mende beraren bukaeratik hara, Amerikari buruz egin ziren indar handienak, hango ondasunen baliatu nahiz. Bainan, aldaketa nagusi hori gertatu baino lehen, Hego ta Iparraldeko Europarren artean egiten ziren harreman gehienak. Besteak beste, eta oihalkiez gain, burnia zen merkatariek gehien bat bilatzen zuten komertzioa. *Yolanda*-ren kasuan, Brugge hiritik datorren erosle flandriar bat bere burdin ontzi-zamaren bila heldu da Urdanibia-ko Olara.

Oroit gaitezen “Españiako koronarena” zela garai hartan oraindik Flandreko eta Holandako eskualdeetatik parte handi bat, Brugge barne. Eta gauza jakina da ere, Euskaldunek harreman jarraikiak bazituztela Flandriarrekin : egungo egunean oraindik Bizkaitarren plaza eta Donostiako guduri konpania baten emparantza badaude lekukotasun gisa. Izenburu horiek erakusten dute garrantzi handiko eragina bazutela Euskaldunek, orduan, portu handi haren sal erospenetan, Europa guzitik heldu ziren

merkatarien artean. Beraz, eduki historiko konkretoa eta sendoa hautatu zuen P. Lhande-k Yolanda eta Yoanes-en arteko amodioaren garapenari kontestu bat ematerakoan.

Bainan, zergatik aukeratu ote zuen eleberri historikoaren bidea ? Ordu arte, kondaketa edo ipuin historiko batzu argitaratu ziren euskaraz²² bainan, dakigunez, eleberri bakar bat, D. Agirre-ren *Auñamendiko lorea* (1897), hain zuzen. RIEV-en argitaratzen duen omenaldi batean, P. Lhande-k dio ez dela lehen nobela hori Agirre-ren hoberena. Halarik ere, eleberri mota horrek sortzen dituen zailtasunez oharturik, ausartzen da horrelako baten egitera. Baina, *Auñamendiko lorea*-rekin konparatuz, funtsezko bi ezberdintasun ekartzen ditu : lehenik, dramatikotasuna sortzen du eta egitura dramatiko hori, egin ahala mugimendutsua izaten da, Agirre-ren elaberrian dagoen eskas gorriena berriz ez errepikatzeko gisa, dudarik gabe. Bigarrenik, Lhande-k hautatzen duen garaia ez da “mitologikoa” bainan historikoa (garai modernoa).

XIX-garren mendean zehar, arrazoin zientifiko bezain ideologiko batzuegatik, batez ere kanpoko ikerlarien eraginaren pean, Munduko beste eskualde asko bezala, Euskal Herria Historiatik kanpo ezarria izan da, Historiatik hona hain zuzen. Eta, denbora berean, beste arrazoin ezberdinegatik –ideologikoak barne– Euskaldunek berek ikusmolde hori berenganatu zuten eta Euskal Herriaren alde arkaikoa eta mitologikoa landu zuten, historikoa bazterrean utzirik.

Flandriarrekilako harremanak, burdinaren “aurre-industria”, haren komertzioa eta klase sozial berrien gorakada : gai horiek aipatzerakoan, Arkadia edo irudi idilikoetatik urrun zebilen Pierre Lhande. Horrela jokatu, ikuspegi moderno bat ematen ahal zuen orduko Euskal Herriari buruz. Historiaren baitara erakartzen zuen Euskal Herria eta, mail sinbolikoan, irudi arkaiko eta heroikoetatik hara, beste identifikazio gai batzu ematen zizkien bere irakurleei.

Bistan dena, literaturaren eremu hertsitik haratago ere bilatu behar da idazlan horren iturria Lhande-n bibliografian. Helburu didaktikoa bazuen idazleak, dudarik gabe, ikusmolde orokorrago batean, eremu politikoan, hain zuzen. Garai hartan, Lhande euskal nazionalismoaren alde zen, solas ondoan ikusiko dugun bezala eta, gisa hortan, eginbide bat ematen zion literaturari, historia nazionalaren eraikuntza prozesuan. Euskal eleberrien zikloan eta, oro har, idazlearen plangintzan, *Yolanda*-k bazuen bere tokia eta erran nahia.

²² Ikus : Ana Toledo, *Leindak* (1879-1891), Ed. Klasikoak, 1990.

Gaur egungo irakurle baten ikuspondutik, akatsak aurki daitezke eleberri hortan : motza da eta doi bat eskematikoa, pertsonaien psikologia ez da aski landua, ikuspegi manikeista bat da kondalariak eskaintzen duena, etb. Horiek oro onargarriak dira gure garaikide den irakurle baten gandik. Halarik ere, berritz argitaratzen dugu, besteak beste, saio berezi eta guziz berritzailea izan zelako bere garaian.

4. Argitalpen honi buruz zenbait xehetasun :

Lehen ediziorako Pierre Lhande-k apailatu zuen testua egin ahala zen bezala atxikitzea erabaki dugu.

4.1. Idazkera mailan :

Sail hortan, bi aldaketa nagusi egin ditugu gaurko idazkerari egokitzeko gisa :

-f- orde, -rr- ezarri dugu : éfege / errege.

-l- orde, bi -ll- : sula / sulla.

Bestalde, zen bezala begiratu dugu ondoko hau :

- ñ- : liraiñ, beiñere.

Bi puntu nahasiago badira : /y/ eta /j/

-y- den bezala utzi dugu : Oryarzun, Yoanes, Bizkaya, naza-zaya, etb.

-j- jota gisa ahoskatzen zena den bezala utzi dugu : dijoala, bejondiola.

Izen propioen deklinabideari begira, gainekaldean kakotx (-' -) bat ezarritz bereizten zituen izena atzizkitik : *Irun'dik*. Ziren bezala utzi ditut.

4.2. Hiztegiari begira :

Bistan dena, ondoko punduan bezala, hontan ere euskalkiaren gaia aurkitzen dugu bidean : gipuzkerarena da parte handi batean Pierre Lhande-k erabiltzen duen hiztegia, dudarik gabe, bainan garai zehatz eta iragan baten gipuzkera. Beraz, Gipuzkoar ez direnek aurkitzen duten euskalkiaren trabari, erabilera historikoarena gehitu behar zaio, aldi hontan denentzat traba dena, Gipuzkoarrak barne. Azken horiek, beste euskalkietan, batez ere iparraldean, arruntzat ditugun hitz zenbait kausituko dituzte testuan zehar, iduri baino gehiagotan hurbiletik so egin eta.

Orduan, horiek oro kontutan hartuz eta irakurketa argitzeko gisan, beste euskalkietan erabiltzen diren ordezkoak ezarri ditugu oin-oharretan, gure eguneroko mintza moldetik desagertu diren hitzentzat edo, batzuetan, doi bat arrotzu zitzaizkigunentzat. Bestalde, behar orduan (edo bederen hala iduritu zaigularik) erdarazko (frantsesez eta gazteleraz) itzulpena ezarri dugu.

Deklinabidea eta aditza :

Sail horietan, eta edozio kritiko bati doakion bezala, gauzak ziren bezala utzi ditut, jakinez euskalki baten garai hartako eredu hartu eta segitu zuela idazleak. Kasun honetan, Pierre Lhande-k gipuzkera hautatu zuen eta orduan finkaturik zegoena erabili zuen, batez ere Azkue-k osatu zuena.

PIERRE LHANDÉ

YOLANDA

1

URDANIBIA

Irun'dik Ondarrabia'rainoko bide zabalean lenago lau mando makal zartxo batzuk zaramaten gurdi moldagaitza, orain tximista-indarraz²³ dabilen *tranbia* ori liraiñ bat egiña dago.

Ondarrabia'runtz joateko asmoaz gurdi²⁴ berri ortara igoko bazina, irakurle, laixter –Kaputxiñoen etxera eldu bano len, igar edo errota-urbide bat zubiaren azpitik dijoazula nabarituko zenuke. Itsasoa apalean dagolarik, igar-erreak²⁵ ori loitsu ta erditara urez ustua bat dago ; baña ur-andiak gora jotan duan orduetan, ibai nasai, arto landa ederren artetik dabilen bat dirudi.

Gaurko egunean erreka orren urak, arriz beteak Bidasoa'tik datozen txalupak, ara, bide bazterreko Sagarzazu'ren *edozein arriki lantegi'ra* ekartzea baizik beste lanik ez dauka. Baña... Gurditik jatxi zaite, irakurle, ta begira... Errekari bidea zabaltzeko egiña dagon eskuzko lan izugarri ori, Sagarzazu'ren lantegi txiki politarentzat inork bururatuko etzezakela laixter ulertuko dezu. Uraren bi aldetatik aiñ zabal ta lodituak ikusten iya²⁶ ta kanaberak, egikizun ori atzokoa ezjala, ageriki salatzen dute.

Jo zazu aurrera... Jarrai urari barrena... An-emen, zearka dabilen errekaren bidean, orra arrizko zubi zar bat, bizkarrezurrez goratua itsas ontziak azpitik igaro ditezen eran ; orra or legorrean oska²⁷ zabal bat egiña, gora ta bera dijoazen txalupak aldizka igo ta jaitxi ditezen ; ona emen ontziak ustuetzeko antolatuak zeuzkaten biguiñ edo arolak²⁸, ta burni lokariak korapilatzeke abe tantaia²⁹. Jo... jo... loizulo ta sasiak gaindi... Sar,

²³ Tximista-indar : argindar, elektrizitatea, elektrika.

²⁴ Gurdi : orga, karro.

²⁵ Igar-erreak : ur-bide.

²⁶ Iya : landare mota bat, ur hegian heldu dena ; juncal, jonc.

²⁷ Oska : ozka ; hendedura, fente, fissure.

²⁸ Biguiñ, arola : geldi-gune.

²⁹ Abe tantaia : lokarrien lotzeko zur puska handiak.

basetxen³⁰ inguruetakoko sagardi ta zelaietan, ango etxekandreak atorra ta maindire³¹ ta puxka gobaraberiak³² esi gainean zabaltzen ditualarik. Jo oraiñ ezkertera, ibaiarekin batean, amezti³³ beltz araruntz ; ibili, zugatz ilun orien adarpean... Or daukazu, oyanean³⁴ galdua dirudin orma-goradun yauregi bat...

Yauregi aberats samingarria !

Amaseigarren gizaldiko³⁵ Zaldunak egoki zeukaten antzera, etxea arri eder apainduz jasoa dago, ta ate-gainean marmol³⁶ edo aitxurdinezko arri-mai batean itz oriek ozkatuak³⁷ daude :

SEBAS
TIAN D'UR
DANIBIA-RE
DIFICO ES
TA CASA
ANO DE
1619

Sebastian Urdinibi'enekoak etxe hau berrizatu zuan, 1619 garren urtean. Izki orien azpian Urdanibi'tarren ezagutailuak³⁸ : basurde ta orkatz ta oreiñ adarbakardunak³⁹.

Orrelako alderdi basa ta ilunean etxe ori jaso zuten gizonek gogoan zer asmo zeukaten ? Bere atsegin eta solasetako leku ori autatu ote zuten ? Ez noski. Atsegintzalea bakartasunari itzuri⁴⁰ egin oi dioala edozeiñek badaki.

Etxegiñearen asmo egiazkoa ikertu nai badezu, yauregi orren inguruneak begixta itzazu. Orra emen lenago Irun'dik Ondarrabia'runtz zebilen Erromatarren erregebidea. Oraiñ otarte⁴¹ ta sasien erdian sapparrez⁴² beteak

³⁰ Basetxe : etxe-ondo, baserri xume, herritik bazter dagoena.

³¹ Maindire : mihise.

³² Gobaraberi : xuriketa, garbitu berri ; boketa.

³³ Amez, ametz : haritz mota bat.

³⁴ Oyan : oihan, baso.

³⁵ Gizaldi : belaunaldi ; hemen, mende.

³⁶ Marmol : harri mota bat ; marbre.

³⁷ Ozkatu : zizelkatu.

³⁸ Ezagutailuak : armak, ikurrak.

³⁹ Oreiñ adarbakardun : licorne.

⁴⁰ Itzuri : ihes egin.

⁴¹ Otar : otez -landare ziztadun bat- hartua den eremua ; landarea bera.

⁴² Sappar : lahar, lapar.

ikusten ditutzun arrola oriek, gizaldi-ta-gizaldietan, bide zabal errex bat ortik bazabilala ezaguarazten dizute. Baña bidearen beste aldean datzan ur-bildegia orrek ta berari arrizko ur-bide batez lotua daukan etxola beltz ilun ark, yauregi ori zertarako egiña izango ote zan agerian jartzen dute. Jaizkibel-mendiaren erraietatik sortutako errekatxo bat onaraiño, atxurka⁴³ zeyartu-ta, ekarri zuten. Ark pixkaka-pixkaka, ur-bildegia nasaiki betetu-ta, bere ur pisuak etxolaren goi-sapaiaraiño daramatza. Or lenago ur-errota edo aize-arka⁴⁴ aundi bat izango zala ikusleak errex asma dezakeana da. Itz batez, Gipuzko aintziñakoan aiñ ezagutuak ziran *ola* eder aietatik baten aurrean gaude. Auxe zan Urdanibi'ko *ola*, *ola* guzien artean aipatu zegona.

Euskadi'ko⁴⁵ kondaira zar-zarrenetan jaria dagon gauza da Euskaldunak beti danik burnizale ta *ola-gizon* izan dirala. Plino⁴⁶, Kaizar⁴⁷ eta Esterabon'ek⁴⁸ gure mendietako burnimeatzen aberastasuna goratu dute, ta Marzial⁴⁹ olerkariak nonbait dio Zeltiberi'ko⁵⁰ gudari ospetsuak, Bilbilis euskal irian landuak ziran ezpata eta azkonak⁵¹ obeagotzat edukitzen zituztela.

Esan ori gutxi badirudizu, gutartean bertan entzun dezakezu Euskaldunen aitonen aitona bera, Tubalkain⁵², Iapeten⁵³ semea ludian⁵⁴ izan dan len-len *ola-gizona*, Iburguen⁵⁵ idazlariaren gutunetan aurkituko dezu.

Ori gora bera, gogor baño gogorrago dan egia da. Erromatarrek gure menditarte orietara etorri baño askoz lenago, iñork ezagutu dituan gizon batzuk, burni bila, Auñe-mendiko sustraiak ikustatu ta zulatu dituztela. Neronek nere begiez yaz ikusi dedalako esan nezake, Ayamendi'n, Oyarzun'go

⁴³ Atxur : aitzur.

⁴⁴ Aize-arka :

⁴⁵ Euskadi : hemen anakronismo bat bada, XX-garren mende hastapeneko erranmoldea baita.

⁴⁶ Plino : Caius Plinius Secundus, Pline ; Plino zaharra (-23 – 79), Erromako imperioaren garaiko naturalista eta historialaria. Haren iloba, Plino gaztea deitua, idazle eta filosofoa izan zen ere.

⁴⁷ Kaizar : Caesar, César.

⁴⁸ Estrabon : Strabo, Strabon (~-58 – 21 edo 25) ; Grezia zaharraren denborako geografoa.

⁴⁹ Marzial : Marcus Valerius Martialis, Martial ; Erromako imperioaren garaiko poeta (40-104), Bilbilis hirian sortua.

⁵⁰ Zeltiberia : Celtiberia, Celtibérie.

⁵¹ Azkon : dardo – dard, lance.

⁵² Tubalkain : Tubal-Cain ; Biblian aurkitzen den pertsonai bat, Lamech eta Tsilla-ren semea, arotzen arbaso mitikoa.

⁵³ Iapet : Japhet ; Biblian aipatzen den patrikiarka bat ; Noë-ren semea.

⁵⁴ Ludi : mundu.

⁵⁵ Iburguen : Juan Iñiguez de, XVI-garren mendeko bizkaitar idazlea. XX-garren mendea arte, *Cronica general Española y Sumaria de la Casa de Vizcaya, y su antigua fundacion y Nobleza* (1588. urte inguruan idatzia) egileztat ekarria izan da. Uste hortan zegoen oraindik Pierre Lhande, Yolanda idazten zuenean.

lurretan, burnimia⁵⁶ zar-zar batzuk badirala, aspaldiz geroz mendi-erraien ikertzaleak erabili ez-dituzten tresna edo lankaiekiñ eginikakoak. Orduko miagizonak burni gordiñ edo latza⁵⁷ jalkitzeko aitzikiñ⁵⁸ asko gogorrik etzeukatelako, lenbizi burni-beta ikatz-suakiñ bigundu-ta erauzten eta puxkatzen zuten. Oitura zar ortatik datoz gaur an ikusten ditugun uskuneak, eunka ta milaka, ormaren azalean zulatuak.

Burni-lan oriek nolakoak izango ziran beste aztar batzuk badagerkigute. Elgoyen deritxon ibaiari bera, edozeiñek ikus litzazke ormamokor beltz, erdi-erroiztu⁵⁹, ke-bide motz, arruztai urratu eta abar : arriki erori multzoen erdian burni puxkak ere idoro⁶⁰ ditzazketzu. Antxiñako etxe orien izenak berak adierazten digu : Olaberria, Olazarreta, Ibarrola, Olasagasti... Beti *ola* ta *ola*.

Amasei garren gizaldian geien zabaldu zan, Gipuzko eta Bizkayan, burnigintza. Aita Henao'k⁶¹ dio orduan irireun ola baiño geiago piztu zirala. Urtean lareun mila "kintale"⁶² burni emen landu ta Europa'ko portu guzietara bialtzen omen ziran. Euskaldunak izugarriko biltoki aundiak bazeuzkaten Flandre'tako itsas-uri geienetan, ala nola Lile'n⁶³, Dunkerke'n⁶⁴, Brujas'en⁶⁵ eta Middelburg'en⁶⁶ ; ta sal-eroskin biltokiarekiñ batean bai omen zeuzkaten ordezkari-etxe (Consulado) eta eleiza euskotarrak. An saltzen zituzten bere burni, ogi ta ardoak, ta ontziak berriz betetzeko zer erosten zuten jakiñ nai badezu, gutun zar-zar latineraz eginikakoren batek esango dizu⁶⁷ : "zaldi eder eta astunak, idi gizendunak, guri gozo, urdazpi gatzan edo kean mardotuak, ile ta oial aberatsak, margol-itxura xoragarriak, itz batez, gizonaren eskuz egiñ ditezkean zer et zer ederren eta onenak.

Orduan izanikako ordezkari-etxe aundienetatik bat zan, Brujas-ko *Bizkaitarren Yauregia* (Proetarium cantabricum edo Palais de Biscayens deritzana. Sanderus idazle zarrak, etxe nagusi orren itxura eder bat gorde digu, *Flandria illustrata* dalako gutunean. "Biscayers Plaatz" edo "Bizkaitarren plaza" gaur ere

⁵⁶ Burni : burdin ; mia : mea ; mina, mine.

⁵⁷ Burni gordiñ : burdin gaia ; minero de hierro ; minerai de fer.

⁵⁸ Aitzikiñ : harrizko tresna.

⁵⁹ Erroiztu : erori.

⁶⁰ Idoro : ediren ; aurkitu.

⁶¹ Henao : Espaniar historiagile eta filosofoa, jesuita (1611-1704).

⁶² Kintale : berrogeitahamar kiloko pizu neurria.

⁶³ Lile : gaurko Frantzian, Lille.

⁶⁴ Dunkerke : gaurko Frantzian, Dunkerque.

⁶⁵ Brujas : gaurko Belgikan, Bruges.

⁶⁶ Middelburg : gaurko Holandan, Middelburg.

⁶⁷ *Cartulaire de l'ancien Consulat de Biscaye et de Bruges* (Lhande-k ezarritako nota).

deritzon tokian⁶⁸, Euskaldun ontzikariak ura jaso zuten 1497 garren urtean, ta edozein edergailu ta apaingarriak josi ziozkaten (*magnifice admodum structa*). Orduko yauregietan oi zan bezala, sapai zabalbat (sic) gainean solairu agiri luzebat (sic) inguruan eta enparantzan edo zelai nasaibat (sic) aurrian bazauzkan. Einbatez itxuraz beste egin bazan ere, etxe ura oraindik tente zagon emeretzi garren gizaldiaren erditsutan . Gero suak erre, ta gaur etxe berri bat daukate, zarraren orma sustraien gainean egiña. Bakarrik, lenago lurpetik ibaiaraiño zebilen ibiltokia ta an zeuden biltegiak, nai dezunean, nik, bezela, ikus ditzakezu.

Brujas uria laixter gure Euskaldunekin adixkide egin izan zan. Azkatasun-sariak⁶⁹ eman zizkioten, 1493 garren urtean eginikako gutuntxo batek dionaz. Eskutitz orren araura, inork zuzenik etzeukan Euskaldun baten aitzi edo kontra, non Euskaldun ark ezpaitzuan gizon bat il edo iltzeraiño jo : ta orduan ere iltzaileak bere Euskaldun Ordezkarria ta besterik beste inorrezekiñ, bere egipena atzaldu bear zuan. Uriko atearen giltza Euskaldunak berekiñ bazekarten, itsasora nai zutenean juateko. Apaizak ere bereak bazeuzkaten : eleiza, il-arri edo il-obi, guztiak bereak.

Euskaldunak Flandretara, Flamendarrak gure errira baiño askoz ere geiago zabiltzala agiri agirian dana da : Gutarrentzat Flamendarren erdara ikastea, arrotzarentzat gure euskera aditzea baiño errexago zan-eta. Beraz, Bizkai ta Gipuzkoarrak emengo salgaiak bere ontziekin ara eraman-eta berriz onera angoak bazekartzen. An gelditzeko epea, laburra beti : Euskadi'ra⁷⁰ laixter biurtzeko asmoarekin zeuden. An gelditu ta ezkontzen zanik, gutxi⁷¹.

Bestalde, Flamendarrak gure legorrera⁷² jotzen zutenean, gogotik emengo lurrean oiñak lotzen ziezten : biotzak ere bai, noski, euskotar neskatxa ile beltz ta begi-samurrak Iparraldeko gizon bizargorri orientzat ein bat ikusgarri ta asmagarri ziralakoa. Egin izan ziran bada, noizpait, bitarteko ezkontzak : baña beste asko egin izan nai... ta egin izan ez... euskaldun pinpiriñak Euskalerrri'ko loreak utzi nai etzituztelako. Ta orra nondik sortu ziran nigar marrakak...

⁶⁸ XXI-garren mendean, oraindik, *Bizkaitarren plaza* aurkitzen da Brujas hirian.

⁶⁹ Azkatasun sariak : hiriak ematen zituen sal-erospenetarako baimenak, zergarik ordaindu gabe.

⁷⁰ Euskadi : anakronismoa da, XX-garren mende hastapeneko erran moldea baita Euskal Herriaren izendatzeko. XVI-garren mendean, bestalde Lhande-k berak erran bezala, Euskaldunak "Bizkaitar" deituak ziren Flandrian eta berdin, Frantzian.

⁷¹ Lhande-k uste zuen baino gehiago izan dira eskualde horietan, merkatu bideak hetsi ondoren, gelditu eta alde bat jarri zirenak ; XVI-garren mendean, Euskaldunak baziren finkatuak Atlantikako portu anitzetan (Nantes, Rouen, Bruges, Anvers, etb).

⁷² Legor : idor ; lur, itsas-bazter ; hemen, lurralde, eskualde.

Gertaldi orietatik bat zuri esatea da, irakurle maitea, ni zure gana nakarran asmoa. Kondairatxo ori Uradanibi'ko olak nik baiño obeto xeatuko⁷³ zizun, ark orren berri badaki eta ; baiña orma zarrek belarri⁷⁴ bai, ta mingaiñik ez. Alere nik nundipaitik jakiñ baidet, dakidana esango dizut. Berri orien agertzaileak bere aitonaren aotik aditu zuan : aitonaren aoa egiaren iturri. Nik ez diot besterik galdetu. Entzun zazu bada gertaldi zar-zar au, ta uste det ura aditzean zuk ere nik bezela egingo dezula : irri pixkabat ta bi ari... nigar.

⁷³ Xeatu : xeheki aipatu.

⁷⁴ Belarri : jatorrizko idatzian, "belauri" zegoen..

II OLA

Iñoiz ere, ainbeste mutil sendo sortzen dituan Gipuzkoa'ko alderdi ortan, etzan ikusi Ixtebe, Urdainibi'ko ola zarraren jabea bezelako gizon eder eta mardulik⁷⁵. Basajauna bezain aundi, sorbaldak⁷⁶ gora, burua tente, arpegia gorri Andoain'go sagar gezagorria⁷⁷ bezalatsu, ta ilea luze ta gorbeltz azilako⁷⁸ gaztena zoliaren⁷⁹ antzera. Aren beso zainar ta lodiak bezalakorik, gutxi. Zaragoil edo galtza motzen azpian, zangoak narruzko⁸⁰ lotkarriz ertsiki josiak zeuzkan. Ura zan, ura, itxuraz, egizko nekazari ta ola-gizon seme euskalduna !

Baiña gorputz gora ta bular sendo orien barrenean biotz bat sasiko marrubia bezain guri ta biguna zekarren ; ta bekoki kotor orren mamian, gogo zuzen eta zurra. Oian-gizon bat zirudian mutil eder ark, aurtxo emearen gogo biotzak zeduzkan.

Bizitza elkarrekin eramateko, bere ogei urtetan autatu zuan lagun liraiña gazterik obiratu⁸¹ zitzaion ; baiña, Jainkoaren maitetasun ta bildurra biotzean zekarren kristau ziñezko orrek naigabe samiña bere zeruko Jabearen eskutikako doai edo emaitza bezala artu zuan, ta geroztik bere gurutza Goiko atsegiñen itxaropenakiñ bazeraman.

Zorionean bizitu izan zan lau urtetatik oroimen bezala gelditzen zitzaiozkan iru alaba gazte, bere ama zarrakin etxean zegozkionak : Yolanda, Luixa eta Ixtebana. Iru maite-maite oriek Urdainibi'ko barren-lanak bere lepoko⁸² zeuzkaten.

⁷⁵ Mardul : gizon handia, lodia bainan sendoa eta indartsua.

⁷⁶ Sorbalda : beso gain, espalda.

⁷⁷ Sagar gezagorri : sagar mota bat.

⁷⁸ Azila : Hazila, azaro.

⁷⁹ Zoli : ontu, heldu.

⁸⁰ Narru : larru.

⁸¹ Obiratu : chortzi.

⁸² Bere lepoko : beren gain.

Etzan ori egikizun txikia ! Jakiña da oletako otamenen⁸³ ondoan mutur-zuri asko gogotik bazabiltzala. Olako ikatzean erreak zeuden jatekoak beste sukaldetako suan egiñak baiño gozotsuagoak zirala zioten. Orregatik, ta Euskaldunen biotz ona ta esku zabala ondo jakiñaz. Ondarribi, Donosti, Pasai edo Deba'ko portuetara zetozen itsas gizon arrotzak Urdanibi'ra astiro⁸⁴ jotzea oi zuten, otamen aberats bat iresteke asmoan. Flamandarrak batezere orrelako joan-etorri batek etzituan beiñere aspertzen. Eguarditarako (apaiza bezain xuxen) Urdanibi'ko maian zeuden. Olako langilenzako urdazpi edo ariki⁸⁵ zatia beti errea zagon, baina kanpotarrentzat beste jangai mordoxka batzuk berezituak bazeuzkaten : Oyarzun'go auñ⁸⁶ edo Jaizkibel'go erbiren bat. Ardoa, Xabier'ko napar ardausutsu artatikakoa. Nexkak jatekoa, ta morroiak edaria maiara ekarri oi zuten.

Aparia gabaz egiten zanean atzerritar asko Urdanibia'n gelditzen ziran, batezere ardaus napar geiegi gurkatuz⁸⁷ oiñez edo zaldiz ibiltzeko gai etzeudenean, ta sapaiaiko lasto edo belar modoietan bear bezelako atze edo oak aurkitzen zituzten. Eguarditakoa zanean, maitik ateratu ta olako lankaieri ikustaldi bat ematera bazijoazten, estea⁸⁸ nik eztakit edo berotu edo arindu gitekotan.

Beraz, 1623 garren urteko Eguberri aurregun batean, Urdanibi'ko yauregian bazkari gaitz aundi bat egin izan zan. Goizean goiz, Ondarraitz parean bi ontzi aundi agertu ziran ta laister Ondarribi'tar ogei mutilek sokekiñ lotuak olako portutxora ekarri zituzten. *Lidwina* ta *Bella Anberesa* zeritzen ontzi horien jabea zan Philippus Jordaens, Brujas'ko itsas-gizon aberats aipatuaren semea, ta bera Urdanibi'ra bazetorren, beartu zituan burniak bila.

Brujas'era zijoazten Euskaldunetatik zeiniek ezagutuko etzuan ango *Euskal-Etxe*'ra astiro zebilen mutil ile-gorri ta arpegi guritsu ura ? Ark ere beste Flamendar askok bezela, ango zelai ertzean, jai egunetako arratsaldetan, gure euskotar yauzi eta dantzak eman nai zituelarik, gure itsas-gizonak parrez lertuak edukitzen zituan :

- Gizona ! (zioten) eztek ori euskal dantza ! Ori dek artz-dantza !
 Bai, artz bat zirudian : artz gorraitsu gizen bat...

⁸³ Otamen : ahamen ; hemen, apairu.

⁸⁴ Astiro : astia, behar den denbora hartuz.

⁸⁵ Ariki : ardiki, atzarki. Erdarazko idazkian, « gigot de mouton » ezarria da.

⁸⁶ Auñ : hemen , basahuntza.

⁸⁷ Gurkatu : xurgatu.

⁸⁸ Este : hertze.

Urdanibia'k Flamendar sal-erosleari batzarre⁸⁹ ta ongi-etorri egin zion. Etxeko-jaunak ezkaratzean bazkari aundi nasai bat zerbitzarazi zion, ta egia esan bear bada, Jordaens'ek jakiak etzituan tzakurrentzat utzi : guziak, bada, itsasoan barrena igaro zituan lau astekiñ ederki gosetua zekarren urdai zabal artan iretsi.

Bazkaldu ta gero Ixtebe'k olara lagundu⁹⁰ zuan, ango lan ederrak bere begiez ikus zitzan, mutilek bi ontzietara sorbalden gainean burni zamak eramaten zituztelarik.

Ordu artan, bere su-labe guztiak garretan, ola oro ikara, tximista, ortziri, ke ta burrunba egiña zagon. Goizean goiz olamutilek amabi krisailu edo labeak aurreguneko ikatz eta autsez ustu ta berriz, aoraiño, mando zamaka Oyarzun'dik ekarritako burni-ga samarrez bete zituzten, ta gero azpitik piztu.

Flamandarrak sartu ziranean, laben aotik gar luxe batzuk atera asitzen ziran, ta oieri bidea itsitzekotan mutilak buztin-lurrez eginikako opilakin zuloak estaltzen ziezkaten. Soiñ edo gorputza erditaraiño biluziak, besoak loi gorritz orakatuak⁹¹ ta arpegi guzitik izerdia zeriela, ikustekoak ziran langile bikaiñak ! Ore⁹² gorri ogi oratzen⁹³ ari zitezken okiñak⁹⁴ baziruditen !

Beste batzuk ikatz auts ta burni puxkaz otarreak⁹⁵ bete ta, kanpotik ke-biden barrena botatzera bazijoazten ta orduan ots aundi bat entzuten zan labearen erraieran : burni zamaren erori astuna ta ke-zuloaren buruan su-tingarren⁹⁶ txirria⁹⁷.

Ura zan laben bazkal ordua. Bere sabel-soro beltzak meaz zintzurreraiño ondo ampatuak⁹⁸, an, goian, bere ao gosetu ezin asegarriak irikituak⁹⁹ zaduzkaten, ola mutilak egotziko¹⁰⁰ ziezkatenak aopaldi batean gantzabeera¹⁰¹ iresteko.

Sartzean, Ixtebek bere ola-zayari otsegin zion :

⁸⁹ Batzarre : hemen, hartze on, harrera on.

⁹⁰ Lagundu : ereman.

⁹¹ Orakatuak : hemen estalgiak.

⁹² Ore : ekaia, pasta egina.

⁹³ Oratu : ogi-gaia (irina, ura, gatza etb.) landu.

⁹⁴ Okiñ : ogi egile.

⁹⁵ Otarre : saski bat, zare handi bat.

⁹⁶ Su-tingar : su-pindar.

⁹⁷ Txirri : zurruzta.

⁹⁸ Ampatuak : bete-beteak, lehertzeraino.

⁹⁹ Irikitu : ireki.

¹⁰⁰ Egotzi : bota, aurdiki, jaurtiki.

¹⁰¹ Gantzabeera : sabel edo tripa beheti, behera.

- Esak, Txomiñ... Labe oietatik bat laixter iriki dezakek edo ?
- Bai, lendabizikoa oraintxe, burni abarrak bi orduz geroz jaurtiki dioz-
kagu –ta. Gero, eguarditan bustiñez estalerazi dedan bigarren aldea.

Esan eta, Txomin'ek oi u egin zuan :

- Ea bada, mutilak ! Lendabizikoari zilarra ken !

Zilarra izen polit ori, zilarra bezalako argi zuriz josia labetik jarion mea urtuari, gure ola-gizonek esan oi zioten.

Labe aoren aurrera burnizko aska luzebat ekarri zuten. Ixtebe'k orduan bere laguna andik eiñ-bat basterrarazi zuan, langileak labearen atea orratz¹⁰² luze batez irikitzen zualarik.

Izugarrizko burrunba aditu izan zan. Tximista-argiaren antzerako sutargi bizi-bizibat sortu ta jaso zan :

- Orrra zilarra ; esan zuan Ixtebe'k.

Labearen atetik, galgaraka, zillardun erreka bat bezela, burni urtua zerion. Aren inguruan ola-gizonak, arpegi ta bular ta besoak ikatz ta kedarrez¹⁰³ zikinduak, an zeuden, begira, ixilikan, arrituak nola berok, gizon beltz ta loitsu oriek, aiñ argi garbia illunpetatik atera zuten.

Pixkaka-pixkaka, zillar txirripa agortzen zalarik, turmoi¹⁰⁴ ots samingarria bigundu zan. Bakarrik txiparten irrintzia aditzen zala, illunabarrak berriz gela guzia suntsitzen zuan. Gero, labearen barrenean burni zamak erortzearekiñ egiten zuan burrunba entzun zuten.

- Orain ura bota ! agindu zuan Txomin'ek.

Bi langilek urez betetako ontzi bat ekarri ta burni gorrituari jaurtiki zioten. Orduan berriz labea gaiztatu zan. Asi zan marrakaz eta irrintziz, ke zuti nasaibat aotik zeriola. Lenago gure menditarteko arpe ta zuloetan zebiltzen basa-suge lauburudun izugarri aietatik bat zirudian. Gero, alere, geldi-geldika barretu ta ixildu zan, iltzera dijoan leoi zauritu baten antzera.

Txomin'ek oi u :

- Zamarra ken !

Arotz mardul gazte batzuk, orduan, bere burdiñaga luzez, labezolan zegoen zama jo ta zatitu zuten, ta matxardakiñ¹⁰⁵ artu ta urak zarabilen gabi edo mailu azpian sartu.

Naza-zayak¹⁰⁶ ordu bertan urari bidea iriki zion : ur-aska berealaxe bete egin zan ta mailu burua jo ta ustu-ta berriz bete ta jo... Ola guzia

¹⁰² Orratz : hemen, burnizko haga luze bat.

¹⁰³ Kedar : hollin, suie.

¹⁰⁴ Turmoi : trumoi, ortzi, ortzantz.

¹⁰⁵ Matxarda : zurezko sarde edo trukes handi batzu.

¹⁰⁶ Naza : urari bidea tratatzen dion atea.

gabiaren¹⁰⁷ arraboteaz ikara-ikara zegoan, burni azalari aize-arkak¹⁰⁸ bere butz¹⁰⁹ indartsua ufaka jaurtikitzen ziolarik. Orrela zamarrak zekartzan utsuneak zapatu-ta, burniari loturikako ikatz edo egur abarrak kentzen ziozkaten, zama guzia leuna ta biguna gelditu arteraiño.

Azkenean, langileak, berriz matxardaz zamarra tinkatu-ta lurrera egotzi zuten, Erromako gudadokian lengo gudariak bere etsai garaitua zelaira-etzan oi zuten bezala. Ta bere beso beltz ikastatuaz, bekokitik jeixten zeien izerdia, *ufa!* egiñaz, ugindu edo txukatu zuten.

Jordaens flamendarra arritua zegoan. Ixtebe'k esan zion :

- Philippus, zure errira biurtuko zeranean, gure Gipuzko ta Bizcaya'ko mendien arkaitzak nere olan puxkaka-puxkaka, sartzen ta gero andik burni zama eder egiñak ateratzen ikusi dituzula esan dezakezu.

Flamendarrak aditu ez bezala egin zion. Burua apaldurik, zorrotzik begia, olako ateara urbildu edo urreratu zan ; ta kanpoari begira zegoan.

Ordu artan, iturrirako bidearen barrena nexka polit liraiñ bat, sulla¹¹⁰ buruan, oiñ utsik ta gona motzaz apaindurik, etxearuntz zebilen. Esku bateaz sula mototsaren¹¹¹ gainean tente zedukan, ta beste besoa ankezurrari legunki lotua zeukan.

Nexka ura Yolanda zala, irakurleak errexki asma dezake.

Arrotzak Yolanda begiratu zuan luzaro... oi luzaro ; ta etxe barrenera sartu zanean, asperenez¹¹², Ixtebe gana biurtu zan :

- Bai, esan zuan... Ori aipa nezake... Baiña beste gauzaren bat ere nik an esango det, ta auxe da : Zure etxean nere aberriko¹¹³ mutil bat sar diteke, biotza zure burni ori bezain otz eta gogor daukala, baiña atera ezin leite bere biotz au zure miak bezala autsi ta puxkatua utzi gabe, zerbait bere begiez ikusi duanean...

- Zer ba ? -esan zion Ixtebe'k.

Flamendarrak erantzun zion :

- Zer ? Zer, diozu ?

Ta begietatik tximistak zeriozkala, ots egin zuan :

- Auxe bakarrik : Yolanda zure alabaren ile urrezkoa ta beraren begi urdiña !

¹⁰⁷ Gabi : mailu handi bat ; martinete o mazo grande de herreria, martinet ou marteau de forge (Azkue).

¹⁰⁸ Aize-arka : olako hausko handia.

¹⁰⁹ Butz : hats, ufako.

¹¹⁰ Sulla : uraren ekartzeko ontzia.

¹¹¹ Motots : ile adats.

¹¹² Asperen : quejido, suspiro ; plainte, soupir.

¹¹³ Aberri : hemen ere anakronismo bat bada, XX-garren mende hastapeneko erranmoldea baita.

III

« BURNI ERREGIÑA »

Jordaens flamendarrak Urdanibi'ko atean sartzen ikusi zuen neskatxa liraiña Gipuzkoan zeudezken etxalaba aberatsenetatik bat zan. Euskal oituraren araura, jabearen alaba zarrena zalako ta semerik ez izanagatik, ark etxean gelditu bear zuan, izena ezpazan ere bederik sendi¹¹⁴ beraren odola an gorde zedin. Orregatik, ezkongaiibat errex biltzeko bidean zegoela edozeiñ asmatu lezake.

Baiña ortarako, bere ondasun ta goitasunaz gaiñera, Yolanda'k besterik ere bazeukan, batez ere bere soiñ¹¹⁵ edertasuna ta arpegi ikusgarria. Gipuzkoar neskatxak oi duten bezala, burua tente ta sorbaldak gora bazarabilzkien, ta bera ez oso aundi-aundia izanarren, ibiltzearekiñ zaraman arintasunak, zan baiño aundiagoa zala idurirazten zuan. Euskaldun antza arpegiari josia zekarren : kokotxa luxe, bekain edo bepuruak beltz, matrailak¹¹⁶ gerezi gorria bezaiñ argi ta guri ; ta begiak bustitua dagon burni berriaren antzera edo kopla zarrak dionaz, « gaba itzalaren kolore » zeuzkan. Itz batez, erregiñ bat zan Yolanda, erregiñ bezain aberatsa, ta bekokiaren inguruan zekarzkien ile adats gorri ederrak urrezko burestun edo korona baten itxura ematen zioten. Ile polit oren¹¹⁷ gorritasunari ta Sebastian'ek burnitik bildu zuan aberastasunari begiratuz, askok Yolanda deitzen zuten : « Burni erregiña ».

Baiña, guzien ta batezere Flamendarren ixilik, erregiñ ark ia bere erregea bazeukan.

Errege ura zeñ zan edo non gordea zegoen jakiñ nai bazendu, irakurle maitea, eztakizu zeñ aldera jo bear ote zendukean ? Urdanibira juateko utzi dezun Irun'dik Ondarrabia'raiñoko bide zabal eder ura berriz artu bear

¹¹⁴ Sendi : familia.

¹¹⁵ Soiñ : gorputz.

¹¹⁶ Matraila : mazela, matela.

¹¹⁷ Oren : orren.

zenduke ta itxasoruntz jarraitu. Bere orma beltz zarren erdian sartua dagon Ondarrabi'ko ta Marina'ko arrantzalien etxe aurre-xuri ta leio-urdundunak igaro-ta, itsas bazterretik Jaizkobel'go azken muturraren luzean dabilen bide ikusgarri arri lotuko ziñateke, ta azkenean, antxe oraiñ portutxo berri bat jasoa daukaten gune edo puntuan, gure aitonen aitonak *Azturiaga* deitu oi zuten toki bat aurkituko zenduke.

Izen polit ori an dagon iturritxo batena da, baiña or, geroan, portu berriaren inguruan pixkaka-pixkaka jasoko dan uriari emango dutelakoan nago. Batzuk badiote, gaur ere ikusten dezun yauregi zar orren lenengo bizizaleak, emezortzi garren gizaldiraiño, izen ori bera zekartela ; ta gero galdu egin zan, ta Espaiña'ko errege Felipe II'garrenak¹¹⁸ beste izen bat eman zion : San Telmo. Guk, baldin nai badezu, izen zarra gordeko diogu, euskarazkoa da-ta eta oso goxua.

Ikustaldi eman diozagun yauregi zarrari. Legorrearen muturxko baten gaiñean erakia dago, arri aundi beltzez josia, urteak badaramazki-eta. Ur ondoan lokartua zegoken atso-zarzar bat dirudi. Ormak joten diozkan itsasoaren suzmurra ta beti aldean dauzkan auntzen girgil ots biguna ; orra emen entzun dezakezun soñu bakarra. Egun guztian eguzkiz beti jantzia dago. Goizean goiz Arrunmendi'ko¹¹⁹ lepo atzean eguzkia sortzen danean, arpegira bere len-len leiñeruak bialtzen diozka ta egualdi guzian bere argi ta berotasunaz biribilkatu duanean, bere azken suak, ur-aundian suntzitzearekiñ badaramazkio. Olantxe, eguzkiaren ta itsasoaren argian pulun-patua, ta beltz ala-ere beti, zure sukaldeko krisailuan ikusten dezun garraren biotz ilun ura badirudi.

Baiña nik, krisailua baiño obeto noski, Azturiaga'ko yauregi ori itxas-egazti edo zurlinda kabi bat, arkaitzen artean apaindua dirudila esango nuke.

Argiaren yauregi zirudian itsas bazterreko etxe artan jayoa zan Yoanes Azturiaga, Yolanda'ren maitalea. Ura zan zazpi aurriden arteko azken etorria ta, jakiña, ainbeste egaztirementzat txikiegia zan kabi artatik joan bear zukenetatik bat. Jaiotetxean geldi eziñ-ez gero nora jo bearko ote zuan ? Bere anaiak bezala an bertan zeukaten itsas aundi ori beera, Ameriketako ikertzaile ospetsu Diego Harra, Txomin Irala¹²⁰, Mikel Legazpi¹²¹ ta Juan Garay'en¹²² ondotik edo ludiaren inguruka, Elkano'ren¹²³ antzera zijoazten itsas

¹¹⁸ Felipe II : Espaiñako errege izan dena (1527-1598).

¹¹⁹ Arrunmendi : Larrun mendi.

¹²⁰ Txomin Irala : Gipuzkoar konkistatzailea (1506-1556).

¹²¹ Mikel Legazpi : Gipuzkoar konkistatzailea (1503 edo 1505 – 1572).

¹²² Juan de Garay : Bizkaitar konkistatzailea (1527 ? – 1583).

¹²³ Juan Sebastian El Kano : Gipuzkoar itsas gizona (1487-1526).

gizonekiñ ? Ez. Ark etzuan orrelako amets zabal erorik egiten. Urrutiko legorretara baiño, an bertan zeukan legor maitagarrira bere asmoak bazabilzkion. Itsaso araruntzko alderdieri ze-gatik eskatuko lizkioke, an, Urdanibi'ko yauregi ark eman lizkioketean zorionezko egun gozoak, batezere an zeuden bi begi urdiñak, ixilikan, baietz keiñu egiten ziotelarik ?

Egia aitor dezagun. Amets orren bururantzako eragozpen bat bazagon : ezkondu nai diran aberatsa eta beartsuaren arteko eragozpena. Baiña beste alderdi askotan eskontzeko asmoak austen ta galerazten dituan eragozpide orrek indar gutxi dauka Euskaldunak baitan. An guztiak, aberats edo beartsu, etxeko seme edo langile, jatorriz eta odolez berdiñak dira ; ta sustrai beretik ateratuak diran ta izkuntza bera, euskarazko izen bera, oitura berak dauzkaten ezkongaien artean zer ajola dakar bat edo besteak urre edo gariz geiago betetako aska izateak ?

Yolanda, Urdanibiko etxalaba aberatsak, gora baiño gorago bere ezkon asmoak zaramaskela agirian dago. Kastila'tik Plandre'tara zijoazten guda-agintari ospetsuak belarrira bere agerkai omenezkoak esan ziozkaten ; baiña maite zeukan « Yoanes » izen onen aldean jaun aundi orien izenak arentzat gozorik gabe zeuden. Yauregi ikusgarrienak baiño, Azturiaga'ko arriola zarrak bere begi biotzeri atsegin ematen zien ; ta urre edo zilarrez jantzitako zaldi ederrak baiño, bere senar-gaiak zarabilen auñ-narru¹²⁴ bat az apaindutako mando zainarra naiago zeukan. Kastila edo Andaluzi'tik etorritako agintari ta jaun orik euskaldun aritikakoak etzerala bazakian, ta ark zaiñeri josia zekarren bere jatorri, odol, itzkuntza ta azturen maitetasuna. Bere etxetik Euskotarren¹²⁵ sustraia kendu zezakian ezkon-gairik Yolanda etzuan beñere aintzat artuko : Urdanibitarren aspalditako ezagutailuak Alvarez edo Henriquez edo Cabeza de Vaca'bateren¹²⁶ ikurdiakiñ estaltzea lotsagarri zitzayon. Ots aundiko izen orik baiño eztitsua goa zirudion auntz girgila bezain ariñ eta goxua dan izentxo au : Azturiaga.

Beraz, aipatu degun 1619'ko urte artan Eguberri gabako elizkizunak, Ondarribi'ko Buruñurdun edo Kaputxinoen lekaidetxean ospe aundirekiñ, oi dan bezala, egin izan ziran. Jaia amaituta, izugarrizko gizon ta andre otea eleizatik irten ikusteko, baserritar eta arrantzaleak ara taldeka eta multzoka bildu ziran. Batezere Urdanibi'ra etorritako arrotzak, bere janzki margodun ta

¹²⁴ Auñ-narru : ahuntz larru.

¹²⁵ Euskotar : hemen ere anakronismo bat bada, XX-garren mende hastapeneko erranmoldea baita.

¹²⁶ Alvar Nuñez Cabeza de Vaca : Espainiar konkistatzailea (1500-1560).

bere txapel arro zabalekiñ aiñ parregarriak ziran Flamandar orik, Ondaribi'tarrak ikustatu nai zituzten. Etzan ura errexa ! Aiñbeste mutil ta nexka kaxkar, aiñbeste atso ta nekazarien artean ibiltzeko, ola, mutilak esku-makilka nolapait arrotzeri bide egiñ bear zieten.

Euskaldunak oi duten antzera, gizonak lenik, gero andreak, ta nola-nai umeak, eleizatik atera-ta etxera elkarganatu gabe bazijoazten. Baiña Philippus Jordaens flamendarrari bereixtasun ori egoki etzirudiola laixter nabarritu izan zan. Beste gizon lagunak aurrera bazijoazkiolarik, bera atzean gelditu zan. Mutilen ondoan, nexkatxak, lerroka ta izketaz eta parrez zetozen. Flamendarra bide bazterrean bakar-bakarrik gelditua ikustearekiñ asi ziran aopekakan :

- Noren bila diñagu indioilar ori ?
- Indioilandaren, no !
- Bejondiola ! Eztin emen aurkituko.
- Bai zera ! Iri¹²⁷ pareño bat egiñ baleike !
- Ez mila egiñikan ere ! Dan bezalako !

Jordaens'ek len-len lerroak iragan utzi zituan, ark bilatzen zuana azken taldekiñ zetorren-ta. Baiña lagunen artean zebilen Urdanabi'ko etxe alaba bertara eldu zitayonean, bere txapel nasaia lurreraiño apaldu-ta, Errege-yauregitarrak egoki daukaren antzera besoa eskeini zion esaten ziolarik :

- Etxeraino nere laguntza oneritxi dezakezu, andre ?

Errege'ren yaurekiko oiturak etzakizkien Ondarribitar neskatxak, oiuz eta irrintziz, Jaizkibel'go auñak bezala, itzuri egin zioten. Baiña Yolanda'k arrotzari lotsakizunaz ez emateagatik, eskeintzen ziokan besoari ariñ-ariñki lotu-ta jarraiki zion.

Ozkorriaren argia, antxe, Lapurdi'ko mendi tontorrak xuritzen asia zagon, ta bestaldean, Urdanabi'ko leioak barrenean piztutako suaz dirdirikatuak ageri ziran ametzen adar ilunen artetik.

Flamendarrari, ordua nai bezalako zeukala, biotzean zekarren asmoa Yolanda'ri irikitzeko iduritu zitayon, ta, an, bere ontzi ederren aga tantaiaak erakusten ziozkalarik esan zion :

- Orra, Yolanda, zeñ aberatsak gauden, gu Flamnedarrak, ontzi oriek nola erakusten dizuten ! Eziñ asma dezakezu zeñ eder eta ikusgarria dan Flandre'tako erria !
- Bai, Jordaens, baiña nik naiago gure Euskadi¹²⁸ !

¹²⁷ Iri : irri.

¹²⁸ Euskadi : : hemen ere jadanik aipatua izan den anakronismoa aurkitzen da, XX-garren mende hastapeneko erranmoldea baita.

- Euskadin, Yolanda, galdua bezela zabiltz, Ameztarte orien erdian, zure edertasunaz iñor oartua eztago. Maiara jakiak ekartzen, neska baten antzera, ikusten zaituztenean, zu orrelako etxalaba goi ta aberatsa zerala zeiniek esan dezake ? Zu eñ ortara jaitxirik aurkitzea niri lotsagarri zait. Nerekiñ Flandretara joango baziña, egun guztian janzki gorritz jantzia ibiliko ziñake, zutaz arta leuketen lau mirabe gazten artean. Uriko plazan, urrez apaindutako alki eder batean jarria, zure begi urdiñ orik xoratzeko eun zaldun ospatsuk darabilzketen ezpata edo azkon-guduak begiratzen geldituko ziñake...
 - Ez jauna, nire jaiotetxean obeto nago.
 - Zer bada ? Gante'ko¹²⁹ uri nasaia ta Brujas¹³⁰ urixka polita beñere ikusi gabe geldi zintezke ?
 - Neretzat Euskadi bezaiñ alderdi ikusgarririk ludian¹³¹ eztago.
 - Baiña Flandren barrena ibili ta gero Euskadira biurtuko gintezke...
 - Amets utsa daramazu, jauna, amets utsa...
 - Utsa dan ala ez, nere amets ori, zuk bakarrik ebaki dezakezu... Baiña amets ori egia izan dediñ nik badakit zure aotikako itz bat naikoa dala. Esan bada, andre, esan niri aiñ asmatutako itzño ori...
 - Esan nezakean itz bakarrak zure ametsak itsasora jaurtiki litzazke.
 - Gezurra díozu !
 - Ez jauna. Ona emen itz ori : nik norbait maite det ; ta ura ezta Flamendarra ; ni norbaitek maite nau, ta ura Euskalduna.
 - Ta Euskaldun zakar bat gatik Philippus Jordaens dirudun ospetsua gaitzetsi dezakezu ?
 - Neretzat nor da Philippus Jordaens ? Ura da bakarrik atzerritar eta arrotza ta dan bezalakoa dalako, ta arrotzaren maitetasuna niri lotsagarri zaitalako Jordaens ori nik etsaitzat daukat. Bijua, bada, bere Flandretara ta bere janzki gorritz apaíndutako andre ederren artera. Yolanda Urdanibi'tarrak ez-tu beñere laguntzat artuko Jordaens "plamenkoa"¹³² !
- Yolandak, orrela zerasalarik, bere ibil-lagunaren aldetik itzuri egin zuan ta oraiñ bidearen erdian bakarrik zegon, kopeta gora ta begitik tximista zeriola.

¹²⁹ Gante : Gand, Gant ; Flandriako hiri nagusi bat.

¹³⁰ Brujas : Bruges, Brugge ; Garai hartako Flandriako portu nagusia.

¹³¹ Ludian : munduan.

¹³² Erdarazko idazlanean : « Yolanda de Ameznabar n'épousera jamais un "maqueto". Eta ohar batean, Lhande-k ondoko xehetasuna gehitzen du "maqueto" hitzarentzat : "Terme de mépris dont on désigne, en pays basque, les étrangers".

Neskatxaren itzak aditu zituanean atzerritara arritu zan. Bere itzkuntzan izugarrizko biraua bota ta ukabilak estutu zituan. Urdanibi'ko etxalaba, an bertan zeukaten olako ur-bidean itotzeko naiarekin zegoela zirudian.

Gizonak buruan zerabilen egitekoa Yoalnda'k asmatu ta esan zion :

- Ito nazazu, baldin nai badezu ! Erreka or bertan dago ! Zer ote ? Nexka ezer-eziñ baten bildurrarekiñ zaude ?
- Bai ! (erantzun zion Flamendarrak), bai, suge-umea, esan dinan bezala laixter itoko aut ! Baiña —nere itzari oartu, gero !-beste lotsakizun aundi batenpean itoko aut ; aiñ lotsakizun aundia, non iretzat asmagarri izango bait-ziteken gaur emengo erreka ortan suntsitua izaita !
- Ez nauk ire bildur, Jordaens ! Nik bazauzkat nere aldean i baiño laguntzaile indartsuagoak !
- Bai, e ? Ire zaitzaile bildurgarri orik zeñ diran jakiñ al nezake ?
- Urak dituk nere Aingerua, bat, ta nere eskongaia, bestea !

IV FLAMENDARRAK FLANDRARUNTZ

Flamendarrak biaramonean bere ontziekiñ joan bear ziralakoan, Ixtebe'k, eguarditan bazkari aundi bat bere Urdanibi'ko yauregian antolarazi zuan. Arrotzekiñ batean Irun ta Ondarribi'ko gizon ospetsu batzuk maiara deitu zituan. An zeuden inguruetako ola-gizon larrien-larrienak : Iohan Erreñosu, Arnalde Berrezuno-Garaikoa, ernaniarrak ; Eneko Zuaznabar ta Gilen Olaberria, oyartzuarrak ; Arantzate, Ibarrola ta Aranguren, Irundarrak ta Lasarten zegon Okendo'ko yauregi'ko ola-gizon nagusia. Ezkaratzean apaindu zituzten bi maien buruan jarri ziran, alde batetik, Ezkoriaza'tar Damaso aba, Ondarribi'ko aita Buruñurdunen lendakaria ta bestetik Otaegi'tar Auspitzio yauna, uri bertako apaiz-nagusia. Emakumerik maian jarri etzala esan gabe doa. Etxeko jabearen alabak, beti bezala, jakien ekarri-eramatea bere gaiñ artu zuten.

Ura zan bazkaria ! Lenbizi eman izan zan « salda begiduna » edo oilo-milgorrak¹³³ sortzen dituan begi txikiak bezelako maixpulo koipetsu batzuz beterikako salda gizena ; gero Lapurdiko « eltzekari¹³⁴ » gozua, aza xuri, porru, ozpin-belar eta piper gorritz egiñikakoa ; gero Jainkoak berak dakian orrenbeste aragi mota : idi, txekor¹³⁵, bildots, ari¹³⁶, auñ¹³⁷ eta abar ; gero basetxetako egazti eta mendiko eiza guziak : oilo, oilanda, oilar eta oilasko, aate, antzer, itsas-eper¹³⁸, oilagor¹³⁹ eta erbi.

¹³³ Milgor : gantz, gizen

¹³⁴ Eltzekari : potaje de legumbres ; potage de légumes.

¹³⁵ Txekor : txahal, ahatzte.

¹³⁶ Ari : ahari, zikiro.

¹³⁷ Auñ : ahuntz-ume, pittika.

¹³⁸ Itsas-eper : outarde.

¹³⁹ Oilagor : becada, bécasse.

Azkenik ekarri zuten itsaso araruntzko alderdi berrietan ebili ziran bailena¹⁴⁰ arantzaileak an jaten ikusi ta emen ere antolatzen asi ziran jangai oso gozotsu bat. Ura zan, erdaldunen araura « asado con cuero » edo ariazpia, bere narru ta ilekiñ olako ikatzetan errea. Narru ta ile orien autsak aragi ori josiak gatzta ta piperra baiño obeak zirala askok bazioten.

Flamendarrak, “salda begidun” gozotsu artaz beteriko xali edo “kutxara” ezpaitaratu zuten bezaiñ laixter, txerriak muturra askan sartu duanean egin oi duan bezela, asi ziran zinkiri-irrintziz. Beiñere, jaki prestazen ondo zakiten Flandre’tako etxekandreak orrelako jangai gizen ederrik etzuten maian jarri. Ura zan, ura, Zeru-Goieneko ao-xuriak asetzeko salda aberatsa ! Zeiñek deabru orrelako eltze zoragarria Urdanibi’ko ikatzetan antolatu ote zuan ?

Guzien arteko poz-pozena zan Philippus Jordaens. Bere azken-gabazko Yolanda’rekilakoa eskutu nairikan, noski, etxalaba samurrari ots egin zion :

- Orrelako salda on baten egiteko, lapikoan zer sartu biar genukean ikasi ote dezakegu, andre ?

Yolanda’k jakiña jakiñ-ez bezela egin zuan ta, parrez, erantzun zion :

- “Salda begidun” bear-bezalako bat egiteko naikoak dira lau puxka.

- Lau baizik ez ? Ludiko azken mugetaraiño puxka oyek bilatzeko joan niteke.

- Laurak emen bertan dauzkatzu, ta zure Flandre’tan ere baditezkel deritzat.

- Zeiñ dira bada, andre ?

- Aditu ! oyek dira : *buuu !... muu !... Juuu !... eta txuuu !*

- Arraio pola ! Ze euskera darabilazu or¹⁴¹ ? Yolanda’k eskuetan zekarren egosari-ontzia mai gaiñean utzi-ta, bi eskuak aoaren inguruan jarri zituan ta idiaren murrusa¹⁴² bezelako orru bat egin zuan :

- *Buuu !Buuu !* Orra : idia. Salsa onbatek len-lenik idi edi bei aragi puxka bat eskatzen du.

- Zapartingarría ! Ea *muuu* ?

- Bai asmakaitza daukazu ori ! *muuu* ! Zeinek orrela ots-egiten du ? Ez, oilarrak noski ? Ariyak, gizona, ariyak ! Beraz saldari bota ariki zati bat... Orañ zer dan *juuu* ! zerorek aburutuko ote dezu ?

- Basurdea ?

¹⁴⁰ Bailena : Balea.

¹⁴¹ Erdarazko idazkian, hauxe dio Flamendarrak : « Par la cuisse de Jupiter ! s’écria le Flamand, je ne comprends goutte à ce langage ! ».

¹⁴² Murrusa : marruma.

- Baso eta etxekoa ; baiña, alderdi orietan bederik, auxe dalako aurki-errexena, betor, bada txerri-azpi okel eder bat.
- Alajaiña ! Orra iru ! Ta laugarrena ?
- *Txuuu* ? Ori eztakizu, e ? Ta zure Flandre ospetsu aietan zuen etxekandreak, oiluak baratzatik oildu edo iges-bialtzeko nola oiuegin oi ote dute ? Emen bezela, noski : *Txuuu ! txuuu !* Zer da beraz *txuuu* ? Oilua. Oilo eder bat lapikoan gauza biar-biarrena da.
- Ez andre. Guk oilueri ez diegu egiten : *Txuuu !*
- Nola, bada ? Izkuntza ori ludi guziko oiluak errex ulertzen dute eta.
- Gureak, ez. Etxekandre Flamendarrak oiluak uxatzeko ots-egin oi diete : *Hiss !*
- Josu ! Ori dezu *prantzimanta* ! Beraz, tori, gogoan emazu Flandre'tar "salda begidun" gozotsu nai dan bateri bota biar ziozkala : *buuu ! muuu ! juuu ! ta hisss !*
- Bazkaltzaile guziak parrez. Baiña Yolanda'k saldontzia berriz eskuratu-ta, esan zion :
- Bakarrik, zure azken orrek ots bera eztaukala dakuskazu. Orra bada non agirian jarria dagon egia : Euskaldun ta Flamenkoak elkarganatu ezin ditezkelak !

Nexkaren itz oriek aditu-ta, Philippus Jordaens igande-atorra bezain xurixuria gelditu zan, ta etxekojaunari buruz itzuliz, esan zion :

- Jauna, atzo nere biotzaren berotasuna norbaitentzat agertu nizunean oker nembilela orain oartua nago. Egia bada ere euskaldun neskatzak baiño ederragorik ludian aurki ez-ditezkelak, ederrak bezaiñ ele-motz ta lotsagabe dirala gaur nik badakust. Alabak oraintxe zerasana zure belarriz entzun al dezu ?
- Nere Yolanda'ren erantzupena etzizala gaitzi. Aipatu didazun zure maitetasun ori ezagutu baluke orrelako itzik etzizun esango. Baiña gizajoa ! biotzean ixilik daramazun su ori neskatzak gazte-gazte orrek nola ta nondik jakiñ al dezake ? Lorez-lore dabilen pinpilinpaua ta airez-aire dijoan zeruko aingerua bezela, nexka biotzgarbi ori bere edertasun bertaz oartugabe egunak badaramazka. Zer deritzazu ?

Flamendarrak erantzun zion :

- Bai, bai, baliteke !.. Baiña... emakume deabru oriek ! maitetasunaren usaia urruti usainkatzeko... ze sudurra daukaten !..

Baiña, ezkaratza zolako maiaren beste burua Flamnedarrak ikertu baluan, arpegi ubel ta begi zorroz-dun mutil gazte-gaztebat, ixilikan ta berari begira zegoela nabarrituko zuan.

Ura zan Yoanes Azturiaga...

Biotza maitetasunaren garraz errea daukan Euskaldun gaztea, bere “maiteño”-aren inguruan nor nola dabilen ikuten oartua dagola, aspaldiz gero jakina da. Añamendi’ko akerra, tontor baten gainan bere antxume ta urruxa¹⁴³ alarzten ari diralarik, erne dagon bezela, maitale euskalduna beti gogoia bero ta begia bizkor badabil. Orrela, Yolanda’reñ aldean, Yoanes zenbilen.

Bazkaria amaitu zanean, Flamendarrak maian gelditu ziran. Urdaia aragiz betea, arpegia gorri, matrailak anpatuak, an zeuden, zintzurraiño aseak diran antzarak bezelatsu. Totxatik¹⁴⁴ pipa luze batzuk aterata, urak, Indietatik ekarritako belar usaiñtsu¹⁴⁵ batekiñ bete zituzten ta piztu ta gero, ufaka, aorik ke urdiñ nasai bat botatzen asi ziran. Baserritarrak, Goeirriko neurtitzlari edo pertsolari batzuen esan erantzunak aditzen, xoratuak, bekokia bi eskuen artean emana, ta gazteak kanpoan, tillape pirla¹⁴⁶ egoztea edo pilota jotzen. Urdanibi’tar mirabeak¹⁴⁷, batzuk sukaldeko alartze edo atalasean pilotarieri begira, ta besteak barrenean, oilasko azpieri aginka zeuden.

Orduantxe, Urdanibi’ko atzean dagon sagardiaren aldera begiratuko zuanak ango bidexkari beera nexkatxa liraiñ bat, suila buruan, iturrituntz zijoala ikusiko zuan.

Zelaiaren erditsutako zulogune batean ur txirripa bat, mendebelarrez beterikako osin txiki batetara jaixten da. Ara egunero bere suila betetzera oitua dago Yolanda. Ta gaur ere ara dijua, ixilikan, bere maitalea atzeti’k jarraitzen ziola errex asmatzen dualarik.

Biyok iturraldean elkarganatu ziranean, Yolandari esan zion Yoanes’ek :

- Galtzagorri’k ¹⁴⁸ eraman ditzala’ko atzerritar orieri edaten emateagatik iturrira etorri ote aiz gaur ?

Yolanda’k arpegi erdi samur ta erdi minkaitz batekiñ erantzun zion :

- Bai, argatik ! Or dek !

- Ezpalinbazeikiñ, ur utsa baiño Napar arduak gozotsuagoak deritzatela esango nikiken.

- Beraz, gure abesti zarrak dionaren antzera :

◦ – Maria nora zoaz, eder galant ori ?

◦ – Iturrira, Bartolo, nai badezu etorri,

¹⁴³ Urruxa : urrixa, emea.

¹⁴⁴ Totxa : tabako ontzia, larruzkoa dena ; tabaquera, blague à tabac.

¹⁴⁵ Belar usainsua : tabakoa.

¹⁴⁶ Birla : bolo, quille.

¹⁴⁷ Mirabeak : zerbitzariak.

¹⁴⁸ Diabruari Zubero’ko itzkuntzan « Galtzagorri » esan oi diote (Pierre Lhande-k ezarri nota).

- – Iturrian, zer dago ? ardotxo xuria !
- Biyok erango degu nai degun guztia !

Azturiaga'ko seme gazteak, burua alde batetik bestera kolokatzen zuala, esan zion :

- Biotza alayirikan daukala deritzat, nexka ! Zergatik ba ? Bazkariaren burutik-buru Flamendarra ! beti begitatzen egon dalako ?

Yolanda'ren begi-urdiña ubeldu zan, itsasoa bezela lañoak estaltzen duanean. Ala-ere Yoanes'ek jarraitu zuan :

- Ire poza arrotz orien artean ! Ikusi aut, arrotzak bere begi zorrotzez jaten indunatelarik, atsegiñez eziñ egonean intzan.

- Gezurra diok, mutil ! erantzun zion neskatxak, aserre-aserre.

- Bai zera ! Nik bezela an zeuden guztiok ori bera nabaritu diñe. Pozez gorri-gorria jarria intzan, salda begiduna nola egin biar zan atzerritarrari xeatzen ionala !

- Astekeri orik, otoi, utz itzak ! Ni pastikarazteagatik¹⁴⁹ darauskikala ageriki dakusat. Baiña aize epaiten aritzean gaiñera beste egikizun prango badiagu. Gaur-goizeaz, eleizatik biurtzean, an, Oilurta'ko zubi ertzean ze igaro ote dan jakiñ al nai dek ?

- Zer ? Esan ! A zerbait kolkoan gordea eramerala banakina !

- Ora, jakingo dek ! Plamenko¹⁵⁰ ustel, artz gorailtsu ori Ondarribitik oneruntzko bidean jarraitu zitak.

- Lotsakabea ! Jakiñ al izan banu !

- Ta esan ditak...

- Esan ? Ba ? Esan ? Iri mintzatzeko arpegia al izan din ?

- Esan ditak ze-gatik Flandretara berakiñ juango eninteken.

- Ze-gatik ? Nik esango dionat : bere beatz txikarraren azalaz ukitzeko bekokia ba-leuke, nik aren urdai zabal ura sagardokupel bat bezelaxe zulatuko nikion... Orra ze-gatik ! Ta zer esan dion ?

- Nik ? Jakiña ! Bere Flandretara joan zediñ, bakarrik, len-baitlen ; nik emen nere maiteño euskalduna baneukala, ta Yolanda Urdanibitarrak lotsagarritzat leukela "plamenko" tzar bat laguntzako aitatzea tori !

Yoanes'en begi beltzatik sua, txirrixka, atera zan :

- Ederto ! (esan zuan). Zaplada ederra bialdu dion !... Baiña nexka ! Ik orrelako muturrekoa ari emanez-kero nola arekiñ parrez ta ele-alaika, bazkari orduan, enbilan ?

¹⁴⁹ Pastika arazi : pazientzia gal arazi.

¹⁵⁰ Elkarrizketa guzian frantsesezko testuan, « Plamenko » erran moldearen tokian « Flamand » hitzarekin edo haren ordez « maqueto » hitza heldu da.

Yolanda'k iñardetsi zion :

- Bere asmo txarrak arpegi zuri orrez estaltzen zizkidalako, nik ere nere biotzekoak ezkututzen zizkiokat. Orra ze-gatik itxuraz aiñ alairik nabilkan. Baiña begi ta gogoz erne nijoakok beldurrik ez izan !
- Beldurrik ez, nexka ! Alere aitari dan guztia esan bear dion.
- Aitari ? Zertako ? Aitak balaki, Flamendar ori gaur bertan urka lizakek.
- Obe ! Orrelako suge baten iltzeak damu ematen ote dikiñ ?
- Ez, negarrik egingo eniokek ; baiña orren odolaz gure ola zikindua izan dadin nai ez-dikat.
- Ire aitak ezpadu iltzen, nik ilko diñat !
- Ik ? Bai zera ! Nere omena garbi-garbia edukitzeko ire edo beste norbaiten bearra daukala deritzak ? Atzo nere bi esku oriez, ogei oilaskori lepoa moztu ziotekat. Atzerritar bati orrenbeste egitea eztek lan zaila.
- Nexka erorrek egingo uken ?
- Oilaskoeri bezañ erreix... Baiña oraindik ortaratuak ez-gaituk. Arrotz orik biar goiz-goizean joatekoak dituk, ta onera berriz etorriko ez-diralakoan niagok. Orduan erorrek dakusk : ni otso orren¹⁵¹ ortz-agiñetaz gordetzea gaba bakar aunen lana dikagu. I, aizan aldetik, abil erne. Ni Urdanibi'n geldituko nauk ; etxean nagolarik galbiderik eztagok.

Orrela izketan ari zirala, Yoanes'ek, an, Urdanibi'ko portutxoan zeuden Flamendarraren bi ontzien inguruan zerbeit berri bazenbilela nabaritu zuan. Jordaens'en itsas gizonak ara zijoazten, osteka, erdi mozkortuak, yauregian eginikako bazkari nasai artatik landan. Ontzietara igaro-ta, ordikeria laixter galarazitzeko, jabeak makilka batzarre ematen zieten, ta guztiak orduan lanari lotzen zitazkion. Bi ontzien gaiñian langileak agiri ziran, erlen antzera, araroneraka, zama eramaten, bazter garbitzen, lokarri estutzen, aize-oial edo *bela* zabaltzen. Katien kiria, agintarien txistuak, mailuen burrunba urrutiraiño aditzen ziran. Biaramonean ortik joateko, *Lidwina* ta *La Bella Amberesa* prestatzen ari zirala agiria zan.

Yolanda'k ere araruntz begiratu zuan ta arpegia alaitasunez beterik, bere maite-maiteari esan zion :

- Or dek ! Or dek ! Badijoaz !

¹⁵¹ « Oren » jatorrizko testuan.

-
- Bai (erantzun zion Azturiaga'tarrak) baiña bi ontzi oriek emendik atera ta gure begietatik galdu arteraiño, i Urdanibi'n geldi adi. Zerbaitek biotzean ixilik esaten ditan iretako galbidea emen eztagola, baizik eta...
- Galbidea ? Baiña, gizona, oriek joanez-kero, galbiderik ez-dikagu !
Yoanes'ek ezpaiñ ta ukabilak estutzen ta, be-begietatik tximista bezelako leiñ-uruak botatzen zitularik, esan zion :
- Bai, Yolanda ! Bai, ire galbidea or daukan : or, ontzi orien¹⁵² erraietan gordea ! Or zerbait iretzat kalteagarri dana josten ari ditun !
I, ago emen ! Nik orien inguruan diñat nere egitekoa. Agur !

¹⁵² « Orrien » jatorrizko idazkian.

V AURRESKUA

Euskaldunak, bazkari on baten ondotik, dantzan izan ari gabe inñolaz geldi ez-ditezke. Burua berotu, ta urdaia astundu geroz, zangoak beti eiñ batean arindu bear dituzte.

Orra zer gatik Urdanibi'ko etxeko-jaunak nonbaitik txirulari ta tuñtuñaria bildu-ta euskal-yauzi edo dantzak jo zitzaten agindu zien.

Gaiñera, Philippus Jordaens'ek gure aberriko oitura eder orik ikusteko naiarekin zegon, ta Ixtebe'ri eskatu zion, otoi, gure aitonen dantza zarrarenak emanaraz zitzan.

Batezere, gure *Aurreskua*, gutartean dantzatu oi duten bezala, ikusteko asmoa zeukan.

- Ori, ereix egin litekeana da, erantzun zion Irundarrak. Txirularen txixtua aditu bezaiñ laixter, onera bilduko dira inguruetakoko baserritar nexka ta mutil guziak.

Berealaxe etxe aurrean dagon zelaia garbitu ta bere gurdi¹⁵³, golde, aitzur, mailu, ikatz edo mia-meta, burni puxka ta abarrez ustu ta, dantzarako apaindu dezaten, morroieri agintzen die jabeak. Eiñ batean orrela adelatu¹⁵⁴ dutenean, zelai ori jaiarako oso leku egokia gelditzen da, inguruan dauzkan gaztenondo aundi oriekiñ. Pixkaka-pixkaka, alde guzietarik baserritarrak badatoz, batzuk bere lanerako txamar ta eskalapoiakin, besteak igande ta jai egunetan jantzi oi duten bezela jarriak, gazte ta zarrak, nexka ta mutilak, itsas-gizon ta nekazari, guziak multzoka, oiuz eta parrez.

Bakarrik, portutxo ta ibaiaren aldetik lanean ari ziran flamendarren otsa aditzen zan.

¹⁵³ Gurdi : orga.

¹⁵⁴ Adelatu : apailatu, prestatu.

- Gure ontziak Bidasoa'raino, andik biar joateko, ekarri-ta (esan zuten) gu ere dantzak ikus ta yauziak ematera etorriko gera.

Ta esan bezela, *Lidwina* ta *Bella Amberesa* itsasorako antolatu-ta, sokakiñ lotuak urbideari beera, kaitik ibaiaraino eraman zituzten.

Bitartean Urdanibi'tarrak dantzan asi ziran.

Len-lenik txirulak, orain Zuberu'n bakarrik baiña gizaldi¹⁵⁵ artan Euskal-Erri orotan ezagututako "mutxiko"-en airea jo zuan. Ereserti edo musika orren dei biguña aditu zuan bezain laster, Ixtebe agertu izan zan plazara ta zenbat-nai gizon mardul ta gizentsua izanikan ere, ariñ eta xotilki¹⁵⁶ eman zituan len zango-joste ta urratsak. Ikustekoa zan, etxeko jaun eder ura, burua ta sorbaldak tente, bi besoak geldi ta aztalak lur-azalaren gaiñetik jauzika. Beraren ondoan beste gizonak, ala oletako jabeak, ala nekazari zar ta gazteak, bai ta Urdanibi'ko langileak, guziak lerroka, bat bestearen ondoren-ondoren, inguruka zetozen. Orien artean etzan ez neskatxa ez emakumerik sartzen : baiña, plazaren bazterrean zeuden, an, jai ontako erregiñak bezela, dantza orien agurrak onetsitzeko jarriak. Ta txirularen soñuarekiñ batean jauzkarien oiñ-aztalak neurri-neurritz, lurra jotzen zuten, muxika orreri josi ta alkartuak izan bailira bezela.

Azkenik txistu ariñ ura ixildu zanean, zangoak ere, bat-batean, ekuru edo gelditu ziran, ta dantzariak, nork bere aldera itzketa edo solasera bide egin zuten : baiña ez ordu luzerako.

Bat-batetan txirularen dei motz eta samiñ bat aditu izan zan. Berealaxe, amabi mutil gazte, eskuak elkarri emanik, plazan agertu ziran. Igandetako janzkiz apainduak bazetozen ; soiñeko beltza, zaragoila ori-urdiñak, galtzamotoz xuriak ta abarketak gorri. Urak, bat-banaka, itzalpetik ateratzen zituala txirulariak zirudian ; ta orrela kanporatu zituanean, asi zan irrintzi ta txistuka, guzien belaun eta aztalak igitzen ari ziralarik. Ori zan *mutil dantza*. Gero alaere pixkaka-pixkaka gelditu ziran, ta orduan "auresku" zegoan mutilak, jauziz ta burusturik, Ixtebe'ri agurrak egin zizkion.

Gero Auresku ta Aztzeskua bat besteari aurka ibili ta buruz-buru dantzan asi ziran, elkarri aupaka bazetozketen bezela, ta lenagoko "torneo" edo buruketatan, andreari kausitzea gatik, Zaldunak ari zitezken antzera.

Andrerik etzan oraindik agertu. Baiña, "desafioa" bukatu ondoan, laur dantzari, txapela eskuan joan ziran Yolanda'ren bila. Burni-erregiña, orien

¹⁵⁵ Gizaldi : hemen « mende ».

¹⁵⁶ Xotilki : molde eder batez.

erdian, dantza-zelaian sartu, ta geldirik, aurrekuaren aurrian egon zan, onek, berriz jauzika, agurrak egiten ziozkalarik. Bera, zeta beltzez jantzia zegoan ta janzki ilun orren aldean bere ile urrezkoaren margo argiak iñoiz baiño leiñuru ederragokoak bazekartzan. Egiaz, ile ark, lur-peko zulo beltzatik atera dan burniaren meatz gorri bizi-bizia zirudian.

Aren ondotik beste laur dantzarik bigarren neskatxa gazte eder bat Atzeskuari nonbaitik ekarri zioten ta onek ere andre berriari agurrak eskeiñi ziozkan.

Baiña, gizon orien erdira andreak etorritz-kero, ezin esan dezakegun lotsa-itzal bezelako bat dantzarien artean sartu zan. Ordurarte ariñ, alai ta jauzkari zebilen txirularen ota, oraiñ bigundu ta leundu egiten zan. Dantza baiño, deduzko ibilketa edo eleiza-birarako jo oi duten ereserkiaren antza zekarren.

Zoaz, bada, nere irakurle maitea, zoaz ikustera ea oraingo dantza lizun ta lotsagabe orietan, gure oitura zar ederretan bezela, andreaki zor zaion itzal eta begirunea gorderik ba-ote dan. Or ez dezu aurkituko likitz ta moldekaizkeri baizik ta gero, gu Euskaldunak, ez-ikasi ta kazkarrak garela esan bizatet ! Gure arteko dantzetan, andrea ez-ta, gizonak nai duan bezela uki, bulka, tira, itzulka ta estutu egin oi dan jostailua, baizik agurka, burustuz ta zapiaren punta-puntaz bakarrik alderatu oi dan erregiña.¹⁵⁷

Era ortan jostatzen ari ziran Urdanibi'tar dantzariak. Batian ara bestean onera bazebiltzan, pausuki, emeki, neskatxak mutileri zapi xuriaren lotkarri politaz alkartuak, an inguruan zeuden aita ta amen begipean.

Oraiñ, Yolanda ta bere lagun Aurrekuak, besoak goratu-ta, besteak azpitik badijoazkie, ondoren-ondoren...

Bere agintariak, an, portutxoan, ontziak biaramon goizean itsasoratzeke apaintzen ari ziozkalarik, Philippus Jordaens plazan dantzariari begira gelditu zan. Alki eder batean, Urdanibi'ko etxeko jaunaren aldean jarria zegoan, ta noizetik-noizera lenbizi zekusan "aurreku" orren xetasun zerbait bere auzokoari galdetzen zion. Batezere dantzariak Aurrekuaren beso azpitik igaro ziranean, moteldu ta arritu zan :

- Zer da joku ori ? esan zion bere lagunari.

Ixtebe'k iñardetsi zion :

- Ori, jauna, lenago gure artean zeuden eta oraiñ ere or nonbait dabiltzan Agota¹⁵⁸ oriek gure aldetik baztertzeagatik egiña dana daukazu. Arrotz

¹⁵⁷ Iritzi moduko lerro alde luze horren orde, erdarazko testuak bi erranaldi baizik ez ditu ekartzen : "Ainsi l'entrée d'une femme dans ce ballet d'hommes soulevait un mouvement de suprême courtoisie... Quel est donc l'étourdi qui a prétendu que dans les mœurs basques la femme n'est pas respectée ?... »

¹⁵⁸ Agota : "Euskal Herriko zenbait tokitan bizi zen jatorri ezezaguneko gutxiengo baztertuko kidea" *Lur entziklopedia*-ren arabera.

- orietatik bateren bat dantzarien erdian ixilik sartu ote danaren beldurrez, guziok, Aurreskuaren azpian, ta burua makurturik, igaro bear dute.
- Burua makurturik ? Zergatik bada ? Zuok Euskaldunak, guzien errege bai-ote-zerate ?
 - Baliteke. Baiña beste zerbait gatik ere. Badakizu, gure abesti zarraren esanaz, Agota'k belarri bat bestea baiño txikiagoa dakarla :
- Bata bandiago dizü eta aldiz bestia
Biribil eta orotarik bilboz üngüratia.*

Burua makurtuz nork berak belarria nolakoa daukan, eskutatu eziñ.

- Eta Agotaren bat aurkituko balezate, Yolanda ta aurrekuak zer egiñ ote lezakete ?
 - Besoak beeratu ta ardi galdua bereztu, besterik ez.
- Jordaens'ek, arpegi aserrez, esan zion :
- Zer mila deabru ! gizona ! Zuok zer gatik kanpotarrak orrela begietan artuak daukaguzute ?
 - Guk (erantzun zion nagusiak, ezti-eztiki) ez-ditugu atzerritarrak begietan artzen eta ez diegu begizkorik egiten. Gure artean ongi-etorriak dirala ta batzarre ederra egiten diegula zerorek, noski asma dezakezu.
 - Ori egia ! Euskaldunen etxean ospetsuki oneritxiak gaude.
 - Badirudit... Baiña gutartean jate ta etzatea nasaiki ematen dizkizutegulako, zuok beti kanpotarrak bezala (sic) zaituztegu. Gure azitikakoak etzeratelako, gure sendietan sar zaiztezen guk eztegu nai. Gure odola, diran zar-zarrenetatik bat dalako, garbi ta uts euki biar degula deritzagu.
 - Bai zera ! Ludiko gizon guzien odola berdiñ zarra da ! Zuen Adan gure asabarena baiño zarragoa ba ote leite ?
 - Jordaens, gure jatorriaren kondaira baiño obeto, Ayamendi'ko lur-zulo ta erraiak ezagutzen ditudala aitortu bear dizut. Nik Ybargüen'ek irakurri dituan bezela, diotenaz, Simankas'en edo Iruñan gordeak dauzkaten ardi narruzko idazki edo gutunak ez-ditut beiñere begiztatu. Zuatz-azal eta txartel oriek Euskaldunen zartasunaz derasatena eztakit nik. Orretaz, egileak berak nik baiño asko geiago jakingo etzualakoan nago. Baiña egia bada ere, balinba, gure asaba Tubalkain'en odola an-emen eiñ batean nastua dakargula, iñork, alarikan, antxiñakoen oitura, ibilkeran, antza ta itzkuntza batezere, soiñ eta biotzari josiak daramazkigula uka dezake. Ta ori guztia gure aitonen aiten oroimena dalako nai degu beti argi eta garbi euki.

Flamendarrak, parra maltzur bat¹⁵⁹ ezpaitaritzen ziola, erantzun zion :
 - Ederki, gizona ! Euki, bada, euki ondo zuen odol zarra !
 Etxeko-jaun euskaldunak esan zuan :
 - Ortarako nago emen...

Anarte, gabaren len itzalak jatxitzen asi ziran. Mendiaren beste aldetik itsasoan etzin¹⁶⁰ edo obitzera zijoan eguzkiak bakarrik Jaizkibel'go tontorraren lepoan urrea bezelako argi leiñuru me-meebat utzi-ta, bazter guziak ilunpetuak zeduzkan. Pixka-pixkaka, Mendelu, Zuloaga-aundi ta Oilurta'ko etxe-aurre xuriak beltzez jantzitzen ziran. Gaztena ta ametz oian edo basoetatik, ilunabarra ildo-ildoka bazetorren. Laixter, zelai ta ibarrak beretu-ta, Urdanibi'ko yauregia ere estali ta suntsitu zuan.

Alarik, Urdanibi'tarrak beti dantzan ari ziran. Aureskua amaitu-ta, txirulak fandangoa jotzen zualarik, guziak jauzika ta krixkitinka, bi besoak airean, gazte ta zarrak, nexkatxa ta mutilak zelairatu ziran. Zuaitez, esi, sargartze ta etxeak berak igitzen ari zirala zirudian.

- Alajaiña ! (ots egin zuan Jordaens'ek). Zeiñ geldi legoke emen ? Ni ere dantzatera nijo !

Eta esan bezeala, bere txapel lumatsu nasaia eskuan, buru gaiñetik, zerabilela, lurra jotzen asi zan.

Ura itxura ortan ikustearikiñ ze parrak eta ze oiuk !

- Artz dantza ! Begira artz dantza ! zioten.

Bai... artza dantzan ari zan, iduri parrez eta maltzur... Baiña nola bildotxa aginkatu ta bere arpe-zulora eraman bear zuan gogoan zerabilen.

Bildotxa ere zelaian jostatzen ari zan. Artalde ta artzaya an bertan zeukalarik arentzat galbiderik bai ote legoke ? Or etxe maitearen itzal pean noren beldurra leuke ? Eta Yolanda, ariñik biotza aztalen antzera, dantzatuz, batean Urdanibi'ko etxe-aurrera, bestean baso ilunaren adarpera zebilen.

Ordu artan portutxora zijoan bide aldetik, oiuk ta irrintzi batzuk aditu izan ziran, ta aiñ laixter, dantzarien parra ta alagaren artean, plazan sartu ziran *Lidwina* ta *La Bella Amberesa*'ren itsas-gizonak. Ango egikizunak bururatu-ta (ziotenaz) ontziak itsasoratzeke ordurarte apur bat jostatzera bazetozten. Itxuraz arrabots geiago pizteagatik, bere buruak parregarrizko apaingai batzuz jantzi-ta, momu ta mozorroen antzera, arpegiak oial edo bildots narruz estalduak zekarzkiten ta beren inguruan jendea bildu ta multzokatuz zebilen.

¹⁵⁹ Bat : jatorrizko testuan « bak ».

¹⁶⁰ Etsiz : etzan.

Jordaens bakarrik dantzari jarraitzen zion, an, olako baztertxoan, Yolanda ta beste Flamendar itsas-gizon batekiñ...

Eta orra non, bat-batean, olaren orma beltzen mutur atzean eskutuak zeuden gizon batzuk ustekabean neskatxa gaztea asaldatzen¹⁶¹ duten. Batek eskuaz aoa estaltzen dio, besteak ilezko burusi¹⁶² nasai batean zango ta besoak ingurukatzen diozkate, ta zama bat bezela, sorbalden gaiñean, portutxoan zai zeukaten ontzixka batera laixterka daramate...

Ainbeste parra ta irrintzi ta iskanbilen artean, nexkatxa gizajoaren oi u samiña iñork ez-tu aditu, ta oraiñ Jordaens ta berekilangoak, arrauneri lotuak, Urdanibi'ko etxalaba eroaten¹⁶³ dute itsasoraruntz, an, beti ametzen adarpean, txirula, ezertaz oartua, bere abesti bigun eta alayari jarraitzen ziolarik...

¹⁶¹ Asaldatzen : erasotzen.

¹⁶² Burusi : mihise bat, oihal handi bat.

¹⁶³ Eroaten : eramaten.

VI ONTZI-GIDARIA

Yolanda'ren ezkongai ernea nolaz etzan egon bere maitearen aldean, jakiñik zer asmo beltzak Jordaens'ek buruan zeramazkien, orixe da, noski, nere irakurleak ondo ulertu ez-dezakeana... Baiña aurrera bijua, ta laixter ikusiko du, Urdanibi'n ez gelditzeagatik, Yoanes Azturiaga'tarrak bere lana urrats alperretan galdu etzuala... Oroit dedila bakarrik etxalaba aberatsaren maitalea bera beartsu ta ari ilunekoa zala ta orregatik geiegi yauregiaren ingurunean gelditzeko zuzenik gabe zebilela. Zan bezelakoaz beste bat izango balitz, laixter Flamendarraren gogoeta tzarrak Yolanda'ren aitari salatuko ziuzkan. Baiña oraindik Ixtebe'k bere maitetasuna oneritxi etzualako, beldurrez zegoen onek erantzun zizeyon :

- Mutil ! Ik ortan ikustekorik ez-dek.

Beraz iduritu zitzayon obe zuala Urdanibi'tik aldatzea ta ontzien joan-etorriak arduraz ikertzea.

Berealaxe jakingo dezu, irakurle, etzala okerki ibili.

Jordaens'ek Urdanibitarrerri gezurra sakatu zien, bere ontziak biaramonaraiño Azturiaga'ko portura zeramazkiela esan zienean. Bidasoara eldu bezaiñ laixter, *Lidwina* len-bait-len Ondarribi'ko ontzi-gidari nagusiakiñ itsasoaruntz joan zediñ agindu zuan, *Bella Amberesa* ibai ertzean ark bere asmo gaixtoa bururatu arteraiño, zai geldituko ziolarik :

- Beste ontzi-gidari bat bila ezazute bigarren ontzi au itsasoraiño laguntzeko (esan zien) ta ordu baten buruan ni nere laguñekin emen nago.

Eta esan zuan bezela, bere egikizuna amaituta, Yolanda burusian gordea ta ertsiki lotkarriz josia zekarren ontzixkarekiñ etorri zanean, bere gizoneri galdetu zeien :

- Ontzi-gidari ordekoa topatu ote dezute ?

- Bai, jauna, kai ortan bertan berealaxe aurkitu degu. Or daukazu.

Ta lema aurrian zegoan euskaldun mutil gazte bat erakutsi zioten.

- I, nor aiz ? galdetu zion Jordaen'ek.
- Ni ? Ondarribi'ko ontzi-gidari ordezkoa.
- Zeiñ dek izena ?
- *Pilotua*... beste izenik Ondarribi'n ematen ez-didate.
- Baiña... nik nunbait ikusi aut... Nun ?
- Ontzi orien artean beti banabil.
- I... ez-intzan gaur Urdanibi'ko bazkarian ?
- Bai zera ! Ni bezelako txiroak¹⁶⁴ ez-tira yauregitarren artean jaten oituak !
- Azturiaga'ko ondarpe ta arkaitzak ondo ezagutzen ote dituk ?
- An bertan jayoa banitz bezelaxe.
- Beraz, goazen aurre¹⁶⁵. Leku au len-bailen utzi nai dikat.
- Emendik ordu bat arte, eziñ.
- Zergatik, motel ?
- Ondarroak¹⁶⁶ bideari aurka ditugulako.
- Gezurra diok ! *Lidwina*, nere len ontzia, ya itsasoratu zikiguk.
- Baliteke. Baiña ondarroak batean ara bestean onera badabiltz. Oraintxe ur-bidea etsitzen digutela jakiteko, an, krexalal dakarzan aboiñ¹⁶⁷ lerro xuri urak ikustean naikoa da.

Jordaens'ek gidaria urkatu nai izan balu bezela lepotik artu zuan ta esan zion :

- Deabruaren anima ! Ixilik geldi adi, ta agintzen dikatana egik...! Edo bestela !...
- Goazen, bada (iñardetsi zion mutil gazteak). Baiña zure ontzia galdu dizutala zuk esan dezazun beldurrez nik nai det zu ementxe, nere aldean, geldi zaitezen.
- Banauk ! astaputza ! Aurrera !

Bere gizoneri aginduak emateko biurtzearakiñ, Flamendarrak nabaritu zuan antxe zegoan amabi urtetako mutil koxkor bat.

- Zeiñ da aur txar ori ? galdetu zuan.
- Gidariak erantzun zion :
- Au... nere anai gaztea. Nerekiñ badator.
 - Emen ez dikat iñor ikusi nai. Bijua !
- Pilotua*'k umeari esan zion euskeraz :

¹⁶⁴ Txiro : behartsu, pobre.

¹⁶⁵ Aurre : laster, fite.

¹⁶⁶ Ondarroa : itsasoan, lehorretik hurbil aurkitzen hare meta ibilkaria, ondar pila.

¹⁶⁷ Aboiñ : haguna ; espuma , écume.

- Abil, Manueltxo, ta olara laixter...Ordu baten buruan izan ditezen an, Arkaitzetan !

Ordu artan, ontzixkatik atera ziran itsas-gizonak bazetozten, bi besoka zama beltz luze bat zeramatelarik.

Orduan, aizeari kantuz ari izan balitz bezela, ontzi gidaria asi zan goratik abesten :

Maria, nora zoaz eder galant ori...

Baiña geroko itzek etzuten aipatzen olerki orrek dakarran “ardotxo xuria”, ta euskera etzakiten kanpotarrak ezin ulertu zezaketen era batean, koblariak zion :

Ez izutu ezertaz, zu, nere kutuñia ;

Zure zai eman dago zuk maite dezuna !

Flamendarrak, aserre-aserre, ots egin zion :

- Ixilik egin al nai dek, edo ! Ire deabruaren itzkuntza basa orrekiñ !

Orain gaba zabala da. Zelai ta iraztorzen¹⁶⁸ azal gaiñean sortutako lañoak, eme-emeki, legorrez, itsas-aldera badabiltza. Biotznar'ko tontorrean *atalayeruak* gaberoko sua piztua dauka, ontzikarieri bidea argitzeko ; ta beste otsik eztago ortzi-pean, Azturiaga'ko arkaitzak jotzen dituan itsasoaren susmuru luzea baizik.

Bella Ambersa'ren mutilak lanean ari ziran. Batzuk, ondarroan sartua zeukaten ankill¹⁶⁹ altzatzen, besteak aize-zapi eso belak aizetarutzen, soka-lotkariak zinkiriz, aga-tantaiak karraskaz, katiak kurrizkaz aditzen ziralarik. Azkenik ontzi aundia pixkabat igitu ta aurrean zeukan zur urrestatuzko itsasugea ur-ildoak autsi ta zatitzen asi zan.

Lapurrak bere Flandretako portuetara jo zuten.

Bitartean, Manueltxo Urdanibi'runtz lasterka zijoan. Gabaz bazterretan ibiltzen oitua zana bezela, bide nasaia utzi-ta, arto landen artetik, zearka, zebilen. Urruti, yauregiko leioen argiak ta oian-pean beti txistuz ari zan txirularen otsak nora jo bear zuan erakusten zioten.

Ordu laurden baten buruan Urdanibi'ra eldu zan, izerdi ta asnaska :

- Nagusia ! (esan zuan) Non dago nagusia ?

- Antxe, olan ! erantzun zioten.

¹⁶⁸ Iraztor : iratze leku.

¹⁶⁹ Ankill : ancla ; ancre.

Beraz, etxeko jauna olan zegoan, biaramoneko lanetarako aginduak ematen. Ler¹⁷⁰ adar batzuen suak olaren barren iluna nolazpait argitzen zuten.

- Zer nai dek ? ots egin zuan Ixtebe'k mutilatxoaren deia entzun zuanean.
- Andre Yolanda !...
- Zer ! Andre ta andre ! Andre baten lekua au ote dek ? Aren berriak etxean jakintzak. An izango dek ? Aren berriak etxean jakintzak. An izango dek, sukaldean, edo bestela plazan, dantzian. Dantzaz bizi litezkek gaurko neskatxak.

Manueltxo'k erantzun zion :

- Bai ! dantzian ari zaizu, zure Yolanda, baiña zuk uste ez-tezun dantza-tokiyan : an, Flamendarraren ontzian preso-egiña !
- Zer diok, ergela¹⁷¹ ?...
- Diot, Joanes nere anaia ta nik Flamendarrak oraintxe bertan ikusi ditugula beren ontzian sartzen besoetan zaramaten zama luze bezalako batekiñ, ta zama artan, oialez ta sokaz josia, neskatxa baten itxura. Ura zure Yolanda zan ! Siñistu nazazu... Edo nazazu... Edo zerorek emen bilazazu ! Ez tezu aurkituko !

Urdanibi'ko etxeko jauna bildurtu zan, ta arpegia xuri-xuria jarririk atelartzera joan zan, otsez :

- Yolanda ! Yolanda !

Bakarrik txirularen abestiak iñardetsi zion. Etxera laster egin zuan, sukaldian sartu :

- Yolanda !

Amona ta bere alaba gaztena agertu ziran.

- Non dago Yolanda ? Non dun aizpa, Ixtebana ? galdetu zuan.
- Yolanda ? Dantzian, noski. Dan bezelakoa ! Emen gu, amona, Luixa ta ni, lanari buru ezin emanaz gabiltzala, ura jostatzen ! Flamendar tzar oriez liluratua dabilkigu.
- Ez, Ixtebana (erantzun zion amonak) ; ez esan orrelakorik. Ire aizpa neskatxa langile ta zurra dun. Gurekiñ ezalakooan, nombait, bazterrak garbitzen edo dabilela deritzatan.
- Baiña, non ! Non, emakumea ? oiukatu zuan Ixtebe'k.

Ta Manueltx'ok

- Itsasoan, jauna, Itsasorako bidean ! *Bella Amberesa'*ren presontegian ! Egia diozut !

¹⁷⁰ Ler : pino ; pin.

¹⁷¹ Ergel : zozo, tetele.

Dantzariak, beargabeko zerbaiten berria bazabilela oarturik, osteka¹⁷² bazetozten :

- Zeiñek ikusi ote du Yolanda ?

Ez, iñork etzuan aspladiz-kero topatu Ixteberen alaba geiena. Bakarrik, aren adiskide min-mina zan Oilurta'ko nexka gazteak esan zuen :

- Flamendar mozorruak plazan agertu diranean, ta gu orien ondotik bagenbilela, iduritu zaut Yolanda, antxe ola aldean, dantzan ari zala, ta Jordaens'ere aren aurrean... Geroztik eztet ikusi.

Etxeko jauna Manueltxo'ren aldera biurtu zan ta esan zion :

- Baiña ik, mutil ? Ikusi aldeak, an, ontzian ?

- Aren arpegirik ez tegu ikusi, baiña an dago. Nere anaiak gabaz eguarditan bezela dakuskaten begiak dauzka, ta ark esan du baietz, zama aren pean gordea dala, ta berritz aurkitu nai balinbadezu, orain'dik ordu bete baiño len ogei gizon, aizkora ta azkonekiñ, bialdu bear dituzula Asturiaga'ko arkaiztartetara. Gero berak egitekoa xurituko dizute.

- Baiña, mutil legorrez dijoatzan ogei gizon oriek, itsasoz dabilen ontzi bateri zer egiñ biar diote ? Goazen gu ere itsasoz !

- Ezetz esan du Yoanes'ek... Legorrez ! legorrez ! Ark badaki zer gatik. Siñistu zazute !

Ixtebe'k orru gaitz samingarri bat botatu zuan :

- Goazen, bada, adiskideak ! Zeiñ dator nerekiñ ?

- Zu, ez, jauna ! iñardetsi zion Manueltxok. Anayak esan dit zuk etxean gelditu biar dezula ; bestela naigaberen bat etorriko litekela bildurrez dago.

Urdanibi'ko nagusiak ots egin zuan aserre-aserre :

- Baiña, niri orrela agindu emateko nor da ire anaya ? Eta bera non dabil ?

- Non dabilen ez al dizut esan ? Beraz, toki egoki batean... Bera da *Bella Ambersa*'ren ontzi-gidaria !

Lasterka ogei gizonak jo zuten Azturiaga'ko aldera...

¹⁷² Osteka : multzoka ; jende alde handia.

VII LAPURRARI JAZARKA

Urdanibi'tar gudari bikaiña Azturiaga-ko yauregira eldu ziran bezaiñ sarri, itsasoaren zelai zabalak bere begi zorrotzez ikertzen oitua zebilen arrantzale gazte bat ango dorre goi-goyera igo zan ta berealaxe oiua egin zuan :

- Badatoz ! Badatoz ! Antxen, Ondarraiz'ko bi il-arrien mutur ortara urrentzen¹⁷³ dira !

Jakiña da « Bi illarri » edo « Bi Tumbak » Lapurdiko legorraren bazter-bazterrean dauden bi arkaitz batzuk gure arrantzaleak izendatu oi dituztela.

- Bai ! (norbaitek esan zuan) Bere il-obira dijoaz urde zikiñak !

- Baiña, itxuraz Urdanibi'tarren lendakari zan nekazari zar, Borttol Bordatxo izenekoak erantzun zion :

- Oar ondo oni, mutilak : al egiñaz eztezagun Flamendarren odola ixuri. Bakarrik aurrezkatu nai balingazaizkigu jo ditzagun aizkoraz edo labaiñaz. Baiña batezere Jordaens ori bizi-bizia, txardiña gure saretan¹⁷⁴ bezela, bildu bear degu, ezen deabruaren ume orrek bere egitekoa Urdanibi'n bertan garbitu bear du.

- Baiña illumpean nola ezagutuko ote degu ?

- Esan dizuet (ots egin zuan Manueltxo'k). Nere anayaren aldean dator... Baiña len-bait-len jazar zatzakizkio, berak nere anaya il ez-tezan !

Iduriz bere bidea bilatzen zuala, baiña egiaz Urdanibi'tarrerri arkaitzetara eldutzeko astia¹⁷⁵ utzi bearrez, Yoanes'ek ontzia zearka-mearka zeroan. Ur-azal argiaren gainean aren karbaza¹⁷⁶ luze iluna ta aize-oialez estaldutako iru agak ageri ziran.

¹⁷³ Urrentzen : hurbiltzen.

¹⁷⁴ Saretan : jatorrizko testuan « sarretan ».

¹⁷⁵ Astia : denbora, epea.

¹⁷⁶ Karbaza : ontziaren zurezko gorputza.

- Goazen gure tokira ! agindu zuan Borttol'ek.

Gudari guztiak, bizkarrak makurtuz ta ondoren-ondoren, yauregiaren ormari josiak joan ziran itsas-bazterreko arkaitzetara ta an, saguaren zai dantzan katuaren antzera, ixilik ta begia erne gelditu ziran.

Jordaens, bere aldetik, Bella Amberesa'ren zubi gañean, burua ametsetan sartua utzi gaberik zetorren. Batzutan ontziaren eskudelari¹⁷⁷ lotua, begiratzen zuan ea ez-tzanez an ingurunean etsairik. Ez, ezer etzan ageri, ez itsasoz ez ta legorrez. Iñon ere etzan aditzen oi u edo irrintzirik. Zer bada ? Urdanibi'tarrak ez ote zuten oraindik ezer asmatu ? Ordu artan ere dantzan ariko ote ziran, Flamendarrek egin zien lotsakizunaren aztarrik¹⁷⁸ usnatu gabe ? Auxe zoriona ! Laixter itsaso zabala gaindi bildurrik gabe bere Flandraruntz joango zan... Ontzi-gidaria espetxe edo presondegira botatu-ta, zeraman euskaldun neskatxa ederra zeñek bere aztarretatik kendu zezakion ?

Alabaiña bere ontzia geldi-geldiegi zebilkiola zirudion.

- Ua zuzen, gizona ! (esaten zion Yoanes'eri). Ze-gatik orrela zearka abil ?

Yolanda'ren maitalia ixilik zegoan. Ontzia legorrera urbiltzen zionean Ondarrabi'tik Azturiaga'raiñoko bidea luzaro ikertzen zuan, burua tente ta belarriak erne, or nonbait ibiltzale batzuen otsik ezagun ez ote zanez entzun naian.

Azkenik zer bait ikusi edo aditu zuala uste izan dezakegu. Beraz ordurarte kopeta ilun eta itzik esan gabe gelditu izanarren, bat-batean itzketan asi zan eta parrez.

- Ta zer uste dezu, Jordaens ? esan zion Flamendarrari. Nik ere zuzen-zuzena itsasoraiño joanaz atsegiñ neuke. Orrela nere lana aurrago amaitua litzake. Baiña ez-tezu nai, noski, nik zure ontzi eder au muturra ondarroan sartua utzi dizazudan ?

- Ez, alajaiña !

- Orduan goazen poli-poliki... Berantzen zaizu Brujas'ko portura el-dutzea ?

- Berantzen zitakana dek Euskaldunen ibai eta itsaso tzar au nere atzean uztea.

- Geldi ! geldi, gizona ! Zuk diozun "euskaldunen itsaso tzar" onekin astiro ibili bear da. Euskalduna da. Beraz Euskaldunak artu oi dan bezela au ere artu bear dezu ; legun, bigun, emeki. Bestela au ere,

¹⁷⁷ Eskudela : galeria.

¹⁷⁸ Aztar : hatz, arrasto.

Euskaldunen antzera, aserretzen da, ta gizona ! ontzi ta ontzizaleak, guztiak, itzulipurdikatzen dizkitzu !

- Zer diok ! Au baiño gaitzagokoak ikusiak gaituk ! Nere burua joka nikiok gure gidari flamendarrak berak ik baiño obeto ondarpe au igaro lezakela.

- Ala badirudizu betor onera, baiña nik diozut ordu laurden bat gabe zure *Bella Amberesa* ipurdiz-gora ondarpil orietan ikusi bearko degula... Tori gure eskubiko aldean nabaritzen ditutzu ur-ildo bitsu¹⁷⁹ zikiñ orik ? Ara jo, ta zure ontziak eta guk betikoa aurkitzen degu... Goazen, bada, legorzaruntz. Or, Azturiaga'ko mendi masailari lotua bezala (sic) gure ur-bidea badabilazu.

Yoanes'ek lemaren pirringalari¹⁸⁰ inguruan eman ta ontzia arkaitzak zeuden tokira urbildu zan.

- Baiña, mutil (esan zion Jordaens'ek) emen urik ez-tauk !

- Naikoa bada.

Itsas-gizon batek kala¹⁸¹ urean sartu ta ots-egin zuan :

- Sei beserdi baizik eztago !

Jordaens bildurrez xuri-xuria jarri zan ta gidaria lepotik estutzen zuala esan zion :

- Madarikatua ! Nora eramaten gaituk ?

Ordu artan, ontziaren bestaldean ur-naya aundi izugarri bat goratzen ikusi zuan Yoanes'ek, ta ori muturraz urratu lekuan, ezkerrara beste lema-inguru bat eman-ta, *Bella Amberesa*'ren albo¹⁸², luze luzean, aurkeztu zion.

Itsasoak ontzia jaso, itzulkatu ta berakiñ arkaitzetara eramane, et an, ots samingarri batekiñ utzi zuan erortzen ta puxkatzen Azturiaga'ko orma pean.

Kaska arrigarriaren indarrak gizonak irauli¹⁸³ zituan, baiña oriek ezertaz oartu len, an eskutuak zeuden Urdanibi'tar gudariak jazartu ziezten, aizkorka, makilka, aginka.

Jordaens'ek, labaiña eskuan, iru Euskalduneri buru egiten zien. Baiña atzean norbaitek bi besoka artu ta lurrera bota zuan.

Ura zan Yoanes.

Flamendarrak ezagutu zuan ta orruaz asi zan, aotik batean birauak ta bitsa jaurtikitzen zitualarik :

- Txakur umea ! Ik saldu nauk !

¹⁷⁹ Bitsu : bihurri.

¹⁸⁰ Pirringala : ontziaren gidatzeko erabiltzen den tresna zirkularra.

¹⁸¹ Kala : ura zenbat barna den jakiteko erabiltzen den haga.

¹⁸² Albo : saihets.

¹⁸³ Irauli : zangoz gora erori, itzuli.

Ta galdua zala asmatu zuanean zekarren labaiñaz bere burua jo nai izan zuan, baiña Borttol zarrak eskutik kendu zion :

- Geldi, geldi ! nere bildotxa. Ik Urdanibi'n ire egikizuna xuritu bear dek !

Esan ta gero, soiñean zaukan gerriko luzeaz lepotik belaunetaraiño biribilkatu zuan, armiarmak ulia josi oi duan antzera, ta Azturiaga'ko espezulo batera, guduka amaitu arteraiño, eraman zuan.

Bella Amberesa'ren zubi ta erraietan Euskaldun eta Flamendarrak beti joka zeuden. Batzuen irrintziak ta besten birauak, itsaso otsaren gaiñetik aditzen ziran. An-emen, zaurituak, ayotsez ta zinkurinez. Ortzek, Jordaens'en itsas-mutil mardul gorailtsu bat iges zijoa, bere sabel urratutik zeriozkan esteaz¹⁸⁴ zangoak lotuak zeuzkala. Beste batzuk arkaitz artean edo igerika itsasoz itzuri egiten zuten.

Ontzia etsaiez garbitu zutenean, Yoanes, bi lagunekiñ ontziaren barrena ikertu zuan deitzen zualarik :

- Yolanda ! Yolanda !

Iñork etzion erantzuten ta bere buruakiñ zion :

- Nere maite-maitea il ote dute ?

Ertsiki etsia zegoan gela bat aurkitu zuan, ta ate atzean neskatxa baten oiua aditzen zituala iduritu zitayon. Aizkoraz atea laixter puxkatuta, an, lurrean etzana, ta burusian josia topatu zuan bilatzen zuana.

Bere labaiñaz lokarriak eten¹⁸⁵ zizkion ta esan zion :

- Yolanda, ez izan bildurrik. Gu gaitun, Urdanibi'tarrak.

Nexka gizajoa itzik esan al gabe zegoan :

- Esan, Yolanda, (galdetu zion Yoanes'ek) miñik egin al diñe ?

- Ez... ukitu ez nie...

- Ta zer esan din, lapur tzar orrek ?

- Esan ditak : "Yolanda, non dauzkatzu oraiñ zure begiari ta artatzaile Aingeru ta ezkongai ?..."

- Ta ik zerbait erantzun dion ?

- Bai... Ontzira eldu nazanean ire abestia aditu dikat ta bildurrik gabe nindukan. Orduan nik ere iñardetsi diokat...

- Nola ?

- Nola ?

Neskatxa gazteak parraldi alai bat egiñaz esan zion :

- Beñere plamenko baten matrailak artu duan muturreko ederrena ari emanaz to ! Orrela erantzun diokat !

¹⁸⁴ Este : hertze.

¹⁸⁵ Eten : hautsi, ebaki, moztu.

VIII OLAN ODOLA

Urdanibi'tar gudariak Azturiaga'runtz joan ziranean, Ixtebe, Yoanes'ek agindu zion bezela, etxean gelditu zan. Bere alaba Yolanda lapurraren atzaparretatik kendu ta suge flamendar ori aztalaz lertzea gogoan asmatzen zualarik, Manueltxo'ren esana siñistu izan zuan. Aurraren esku lañoaren pean gizon mardula makurtu zan. Bere ayer¹⁸⁶ ta oldarraren ordezkariak joaten utzi ta, berak olaren aldera jo zuan ta langileri biaramonerako aginduak ematen, oi zuan bezela, asi zan.

Morroiak lanari jardun zegozten, ixil-ixilik, jabea noizetik-noizera begiratzen zutela. Laixter ke beltz eta nasaiak ola guzia bete zuan ta labeak asi ziran burumbaz suaren indarraz. Ordurarte txirularen abesti bigunaren pean lokartuak bezela zeuden alderdiak esnatzen ziran trumoi ta intzirien artean.

Azkenengo labea piztu zutenean, Ixtebe joan zan kanpora.

Gau zabala zan ; bazter guziak ixilik ta ilunpean suntsituak. Bakarrik, jabeak nabaritu zuan bere yauregiaren goiko bizitzan, bere ama ta alaben gelaren parean, leloen artetik argia zeriola. An norbait Jainkoari otoiez Yolanda'ren gatik zegoela asmatu zuan.

Ondarribi'ko eleiza-dorretik gaberdiko amabi ezkil-otsak orduan jatxi ziran.

- Gaberdi ! (esan zuan gizonak). Orain nere gudariak Azturiaga'ko arkaitzetara elduak dira. Baña Flamendarren ontziak non dabilzkit ?

Nora nola zijoan ez jakiñez Ixtebe'k artu zuan itsasorako bidea. Bere olara urak zeramazkion ugaskaren¹⁸⁷ bi aldetatik aizeak arto-zango igartuak elkarri jotzen zituan ezur malgor¹⁸⁸ batzuen otsakiñ. Itsasoa beeratzen asia zan.

¹⁸⁶ Ayer : herra.

¹⁸⁷ Ugaska : uhaitz ttipia, errekañoa.

¹⁸⁸ Malgor : huts.

Legorraren azken muturrera urrendu zanean Azturiaga'ko aldera begira luzaro gelditu zan ; baiña alperrik... An urruti, itsaso zabalaren argi ilunaz josia zekusan yauregiaren orma... Baiña iñon ez ontzirik, iñon ez, lurrean edo ur gaiñean gizonak guduan ari zirala asmatu-eraz zezakion agiripenik. Jesus maitea ! Urdanibi'tarrak berandu zuten edo ? Ta bere Yolanda kuttuna, bere bizitzaren izarra, betikoz galdua ote zeukan ? Ay ! Zer gatik, Jordaens'ek bere maitetasuna aitortu zionean, gizon orrek biotzean zekarren asmo beltza berak etzuan usmatu¹⁸⁹ ? Zergatik etzuan bere alaba nonbait giltzpean gorde edo nolaz an bertan etzion Flamendarrari bere olako mailu batekiñ bizkarezurra autsi ?

Baiña batezere bere gogoakiñ zion : « Jakiñ izango banu, nik Yonaes'eri ez nion ukatuko Yolanda'ren laguna izatea. Orrela egiñez, atzerritar oriek etziran ausartatuko senarraren bildurrez... » Ta oraiñ, Yoanes'ek bere sail gogorra bururatuko bazuan ? Bere alaba galbide izugarri ortatik kenduko bazion ? Yolanda'ren eskua ordurarte bezela ari ukatzeko bekokia berak bai ote leuke ? Ez ! ez ! Joanak joan ! Bere bildotx galdua ekarri zizayola ta bieri ezkontzarako baimena emateko asmoan zegoen !...

Orrela zerasalarik, bapatean Ixtebe ikaratu zan... An, Azturiaga'ko arkaitzen ondoan su aundi bat pizten ta zabaltzen ikusi zuan. Gar ura zer ote zan ? Artzayak, batzutan, ilarre ta oteak erretzeko pizten dituzten su aietatik ta edo ? Baiña, arkaitzartetan ilar eta oterik eztago ! Zer zan bada ?

Garra aundituz ta argi ta nasai egiñaz zijoan ; bere olan zekusken burni abarrez betetako labe bat zirudian...

Ta berealaxe, itsas-aizeak jotzen zualarik, Ixtebe'k ageriki ikusi zuan suaren erdi-erdian ontzi aundi bat erretzen, bere oial-aga ta zur puxka guziekin...

- Ontziak ! (ots egin zuan) Flamendarren ontziak sutan !

Pozaren pozaz zoratua bezela, bi besoak gar eder aren aldera goratu zituan ta eskerrak Jainkoari ematen zizkiola laster egin zuan etxera.

Olako jabea bere lurren muga barrena sartu zanean, yauregiaren leio ta ate guziak zuziz¹⁹⁰ argituak zirala nabaritu zuan. Etxaurreko zelai ta basoaren artean ere argiak ara-onera zijoazten. Alde guzietatik etxeko jaunari dei ta otsez Urdanibi'tarrak bazenbiltzen. Azkenekoz norbaitek ikusi zuan ta oi u egin zion :

¹⁸⁹ Usmatu : usnatu.

¹⁹⁰ Zuzi : errexina duen egur batez egin tortxa edo kandela.

- Jauna ! Jauna ! Zure alaba aurkitu dute !
 - Emen ote dago ? galdetu zuan.
- Mutil koskor bat aurreratu zitzayon, esanez :
- Laister emen ikusiko dezu. An dago, Azturiaga'ko yauregian, gure gizonen esku pean. Nere anaiak *Bella Amberesa* arkaitzetara yaurtiki-ta, Urdanibi'tarrak ontziaren jabe egin izan dira. Lapur tzarrak, batzuk il ta besteak yauregiko zuloetan, katiez josiak, sartu dituzte. Orain bertan onera etortzekoak dira ontziari su-emanek-kerok.
 - Baiña sutan dago ontzia ! Neronek, ibai bazterretik ikusi dikat !
- Ta aserreak botza ikaratzen ziolarik galdetu zuan :
- Ta Jordaens ? Inpernuko suge orrez zer egin ote dute ?
 - Zer egin ? (erantzun zion Manueltxo'k, parrez). Bear bezela sokaz ertsi ta presondegi batean itzaleratu du Borttol'ek, orren egitekoa emen zuk garbitu bear dezula esanez.
 - Zai niagok (erantzun zion Ixtebe'k). Orain, zuok, emakumeak, zoazte zuen geletara, ta zuok, mutilak, lanera ! Ni olan geldituko naiz gure gizonak etorri arteraño.

Urdanibi'tarrak *Bella Amberesa*'ri sua lotu ziotenean, Philippus Jordaens bere zulotik atera zuten.

- Deabruaren ume ustela ! (esan zion Borttol Bordatxo'k). Uste ukan baiño lenago Urdanibi'ra biurtu bear dek... Ik anima bat baldin al badek, ura ire jabe deabruari gomenda zayok.

Flamendarra, arpegia bildurrez zurpaildurik ta ortzak kurrirka¹⁹¹, zegoen. Soñari inguru lokarri berriak josi ziozkaten ta ostikoka maldari beera Urdanibi'ri buruz bulkatu zuten.

Ordu artan ola guzia langilen joan-etorri ta lankaien otsaz bete-betea zegoen. Uraskaren azta edo pisuak zarabilen gabi astunak burrumba izugarri batekiñ jotzen zuan burni-maia.

Borttol'ek Flamendarra lepotik artu-ta, esan zion nagusiari :

- Orra, Ixtebe, non daukan lapurra !

Etxeko jaunak burua biurtu-ta Jordaens ezagutu zuanean, orru samin garratz bat egin zuan ta eskupean zeukan burni mailu aundi bat artuta ura goratu zuan etsaiaren buru gainean.

Kask izugarri orreri iges egiteko, Flamendarra jauzkatu zan Borttol'en aldetik olaren zola-zolaraño, burni maia astiro jotzen ari izan gabiaren ondoan, ta, an, ikatz meta baten gainera erori-ta ots egin zuan :

¹⁹¹ Kurrirka : karraxka.

- Ixtebe ! Ni emen ire etxearen itzalpean niagok ! Euskaldunak ezetik beiñere iltzen bere etxean arrotza !

Itz orik aditzearekiñ Euskotar zintzoa ikaratu zan... Geldi geldika burni mailua beeratu zuan... ta lurrera jaurtiki.

Ta Jordaens, lotuak zeuzkan zangoen gaiñean tente jarri nai izan zan, baña oiñ petik lerratu zitzayon ikatz puxka batek berriz iraili¹⁹² zuan, beti gorabera zijoan gabiaren azpira.

Buruaz jo zuan burni maya, ta ortik ateratzeko astia izan baiño len, gabi astuna gaiñera erori zitzayon ikatz puxka batek berriz iraili zuan, beti gorabera zijoan gabiaren azpira.

Buruaz jo zuan burni maya, ta ortik ateratzeko astia izan baiño len, gabi astuna gaiñera erori zitzayon, burua lertzen ziolarik lazgarrizko odol ta muiñ txapasta¹⁹³ ta ezur autsien karraskaren artean...

Ikusle guziak arrituak gelditu ziran. Baiña bere inguruan ixilik zeuden langile ta gudarieri etxeko jaunak Flamendarraren gorputz burumoztu ta odolstatua eskuaz erakutsi ta esan zien :

- Orra ola'k berak egin duan lana ! Olak garbitu nai izan du Urdanibi'ko omena.

¹⁹² Iraili : irauli.

¹⁹³ Txapasta : ziliporta.

IX TOBERAK

Bere buruakin itzeman zuan bezela, Ixtebe'k oneritxi zituan Joanes (sic) ta Yolanda'ren ezkontza gaiak.

- Bai ta bai (esan zion Azturiaga'tar mutil gartsuari¹⁹⁴) Yolanda ire andrea ta lotsakizunaren osin beltzatik atera dian nexkaren eskua ukatu nai ez dikikat. Izan zaitezte bada betikoz bat bestearentzat.

« Igandi xuri » euskal alderdi batzutan esaten zayon Bazko ondoko len igandeko astean ezkontzak egin izan ziran, ta Lezo'ko Kristo Donearen eleizan, Ondarribitar apaiz nagusi Auspizio Otaegi'ren aurrean elkarri itza emanekero, eskonberriak Urdanibi'n bere « etxe sartzea » egin zuten.

Yaz bezela morroi ta mirabeak ezkaratza poliki lore ta maindre xuriz apaindu-ta, aren erdi-erdian mai luzeak antolatu zituzten bere kaiku, opor ta gatiloekiñ.

Euskal basetxe zarretan oi zan bezela, Ixtebe joan zan erletegira, ta burusturik¹⁹⁵ esan zuan :

- Urdanibi'ko erleak, jabe berri bat izango dezutela, ni, jabe zarra, esatera natorkizue : ura da Yoanes Azturiaga'tarra, nere alaba Yolanda'ren senar gaztea !

Ordu artan ezkilen soñu antzeko ots ariñ ta alai bat aditu izan zan...

- Orra « toberak » ! esan zion Yolanda'k bere lagunari. Biok ate aurrera urreratu ziran.

An, zelai ertzean, lau ola-gizon gazte ta baserritar zar-zar bat zeuden. Bi mutilek aize-askaren burnizko ao luzea ari mee batez lotua zekarten, ta beste biok ura itze batekiñ, ezkila mailuaz bezela, jotzen zuten. Aren aurrian baserritarra zegoen, bi besoak bularraren gaiñean, arpegia gora, begia erne.

¹⁹⁴ Gartsu : kementsu.

¹⁹⁵ Burustu : burukoa kendurik, buru- has.

Bapatean onek eskuaz burnia estutu zuan, ta aditzaileak ixilik zeudelarik, berak asmatutako olerki bat oiukatzen asi zan :

Ave Maria Purisima !
Jaungoikoak gabon !
Aditzera noa
Zer asmo daukagun :
Bost edo sei lagun.
Toberak jotzera ta
Dibertitutzera,
Ez utzia gantikan
Usariyua galtzera.
Borondaterik ezpada
Juango gera atzera.

Neurtitz orik pertsulariak esan ondoan bere lau lagunak goratik abestu zuten :

Sanmartin de la Monja
Monja de Sanmartin !
Toberak jo ditzagun
Ordu onarekiñ
Ordu onarekiñ-ta
Birjiñ Amarekiñ !

Ta berriz burni-aga jotzen asi ziran.

- Ederto ! (zioten inguruetakoak). – Botz ozena ! – Kopla politik !
Baiña laixter ixildu ziran, bigarren olerkia baserritarrak asi zualako. Ta zion :

Nobiyo jaunak esan dio
Andre nobiyari :
“Zer egiñen diotegu
Gizon oriyeri ?
Umore ona pasatzia
Gustatzen zait niri”.
Andre nobiyak darantzu
Jakiña bezela :
“Etorri diranenean
Kanta dezatela
Lotsa aundiya emanen
Diyegu bestela”.

Eztaitiar¹⁹⁶ guziak, parrez, Yolanda'ri begira zeuden. Zer erantzungo zion andre berriak ? Etziran luzaro zai egon. Beren eskea onartu zutela erakusteko etxekandre gazteak esan zien :

- Aurrera, gizonak ! Ongi etorri !

Baserritarrak abestuz erantzun zion :

Artaratu dirade
Biyak elkarrekiñ
Guk ere segi dezagun
Umore onakiñ
Palanka pikatuaz
Abestu Sanmartin.

Jakiña dan bezela, euskal oituretan, norbait olerki asi daneko, laixter beste pertsulari, an iñork jakiñ gabe dagon bat nunbaitik agertzen da, lenbizikoari erantzuteko...

Ta orra non, zelai atzean, beste olerkari zartxo bat dagon, txapela eskuan. Basoko otartean dijuan ur txirriparen soñua bezañ ariñ ta garbia dauka botza, ta onek dio :

Atzerriko belatza¹⁹⁷
Gipuzko'n da sartu
Emengo uso xuri bat
Naiz arrapatu ;
Atzapar egin eta
Gorde nai izan du
Baiña eiztari¹⁹⁸ gaztebat
Begi erne zagon ;
Belatzari bizitza,
Jo-ta, kendu zion
Eta uso maiteari
Azkatasuna emon.

Guziok txaloak eman ziozkaten.

- Au ! au ! (zioten) egizko pertsularia !

¹⁹⁶ Eztaitar : ezteiliar.

¹⁹⁷ Belatz : sai harrapari mota bat.

¹⁹⁸ Eiztari : ihiztari.

- Zeiñ da ori ?
- Jakiña gizona ! Ori... Manex, Saratarra !
- Gora, Mañex !
- Ederto, Manex !
- Emak beste bat, Manex !

Saratarra pixkabat gogoratu-ta, berritz bere sailari lotu zitzayon :

Geldi zaitezte bada
Biyok elkarrekiñ,
Jainkoak dizuela
Betikoz atsegiñ :
Kabi eder orretatik
Ez itzurik egiñ ;
Ta berritz Gipuzko'ra
Belatza baletor,
Zuk, eiztari pixkorra,
Jo zazu, jo gogor,
Aberriko txoriak
Azke (sic) daudezten or !

Mañex'ek esku-zapia ederrak aditu zituan. Baiña bapatean txaloak ixildu ziran... Yoanes'ek keiñu egin zuan Saratarrari erantzun nai ziola, bera olerkari ospetsu ta omen zabalekoa zan eta.

Ta Azturiaga'tarrak abestu zuan :

Ez izan beldurrikan
Adiskide zarra.
Belatza biurzeko,
Oso dago txarra :
Egak moztu dizkiot
Ta ebaki atzaparra.
Baiña berriz obitik
Jaikiko baledi,
Gure olako gabia
Ez legoke geldi ;
Burua ari lertzeko
Or dago Urdanubi !

Kopla sustsu orik aditzearekiñ, zelai guzian gora ! ta gorak, altxatzen asi ziran ta iru pertsulariak gudua ezin amaitutakoa zala zirudian.

Baiña ordu artan, eskaratzeko ate-alartzean andre zar bat agertu zan, gonaren egak gerrikoan lotuak, lanean ari dan etxekandraren antzera ta arpegi erdi samur ta erdi aserre bat erakusten zuala, esan zuan :

- Gizonak ! Ixilik geldituko ote zerate ! Kopla ontzeko asti naikoa bazkalondoan izango ez al dezute ? Orra emen ordu bat *salda begiduna* irakitua dala ! Iturriko zopa bezaiñ otza biurtu dedila nai dezute edo ?

- Ixo ! ixo, amona ! iñardetsi zion Yolanda'k. Bagatoz ! Bagatoz !

Ta estaitiarreri (sic) esan zien :

- Adiskideak, aurrera ! Goazen *salda begiraduna* gozatzerara !

Alayarikan ta guziak parrez, bazkaratzaileak sartu ziran Urdanibi'ko ezkaratzen.

AZKENTZA

JON CASENAVE

SOLAS-ONDOA

YOLANDA ETA ELEBERRI HISTORIKOA

1. Yolanda-ren garrantzia euskal eleberrien zikloan :

Aintzin solasean erran bezala, *Yolanda* kasu berezia da P. Lhande-ren bibliografian, euskarazko liburu bakarra baita haren lumatik heldu zaiguna. Bainan, denbora berean, hizkuntzarenaz gain, gisa bereko liburu batzuen artean sailka dezakegu. Idazle xuberotarraren obra nasaian, lehen multxo zabal batean sar arazten ahal dugu *Yolanda*, “Euskal gaiak” deituko duguna.

Euskal gaiak Pierre Lhande-n obran :

Lhande-k bi saiakerekin abiatu zuen bere ikerketa lana Euskal Herriari buruz. 1908-an, *Autour d'un foyer basque* argitaratzen du Pariseko *Nouvelle Librairie Nationale* argitaletxean, Frantziako eskualdeei buruz antolatua den bilduma berezi batean¹⁹⁹. Ondotik, *L'Emigration basque* ematen du zatika *Etudes Jesuites* argerkarian eta denbora berean *Eskualduna* astekarian. 1910-ean agertzen da liburu gisa lehengo argitaletxe berean²⁰⁰, arrakasta handirekin irakurlegoaren aldetik. Bi liburu horietan, Euskal Herria aurkezten eta ikertzen du ikuspegi historiko batetik. Bainan, denbora berean, alde etnologikoa eta antropoligikoa lantzen ditu ere, euskal gizartearen berezitasunak agerraraziz, batez ere lehen liburuan.

1925-ean, hirugarren saiakera bat ematen du argitara, *Beauchesne* argitaletxean²⁰¹. Liburu horren osatzeko, ordurako agortua zen *Autour d'un*

¹⁹⁹ *Autour d'un Foyer basque (Récits et idées)*, Ed. Nouvelle Librairie Nationale, « Les Pays de France » Collection des Ecrivains Régionaux, 1908.

²⁰⁰ *L'Emigration basque (Histoire, économie, psychologie)*, Ed. Nouvelle Librairie Nationale, 1910.

²⁰¹ *Le Pays basque à vol d'oiseau*, Ed . Gabriel Beauchesne, 1925.

foyer basque obrarentzat idatzi zituen kapitulu gehienak berriz erabiltzen ditu euskal ohiduren erakusteko, bainan gauza anitz bermoldatuz : batez ere lehen argitalpen garaian guziz eztabaidagarriak ziren gai batzu, hala nola ondokotasunari buruzkoak. Kapitulu zahar berrituen aurretik, hiru kapitulu berri ematen ditu sartze orokor gisa : bat Euskal Herriko bazterren aurkezteko (*Le décor*), bigarrena Euskaldunen etorkiaren aipatzeko (*Les origines*) eta hirugarrena, euskara eta euskal literaturari buruz (*La langue et la littérature*), horiek oro berak dionez, Tolosan eman zituen unibertitate erakasgaietatik moldatuak.

Beraz ageri denez, antropologia, etnologia eta historia sailtako metodologiak erabiltzen ditu Euskal Herria eta Euskaldunen aurkezteko eta aztertzeke.

Eleberrri multxo batean : Euskal eleberrien zikloa.

Saiakeraz gain, fikzioa ere erabiltzen du Euskal gaien aipatzeko. Orotara zortzi fikzioen egilea da Pierre Lhande eta horietatik lau liburutan, Euskal Herriaren gaia lantzen du zuzenki. Lehena, *Mirentchu*, 1914-an argitaratua izan da Pariseko Plon argitaletxe ospetsuan. Bigarrena, *Yolanda*, 1921-an Pariseko Beauchesne argitaletxean. Hirugarrena, *Bilbilis* deitzen dena, 1926-ean, Plon argitaletxean eta zenbait urteren buruan, Euskal fikzioen zikloa bururatzen du *Le Moulin d'Hernani* kondaketa eta ipuin bildumarekin, argitaletxe berean, 1936-an.

- *Mirentchu* (1914) :

Mirentchu, frantsesez « régionaliste » eta gazteleraz « kostunbrista » deitzen diren sailtan sailkatzen ahal da, hots « roman de mœurs basques » deitenezake, Pierre Harispe-k *Ainboa* (1893) eleberrian erabili zuen azpi titulua baliatuz. *Mirentchu*-rekin XX-garren mende hastapeneko Euskal Herria erakusten du P. Lhande-k. Jaizkibel mendiaren babesean jarria den *Guztiederra* baserria eleberraren pertsonai nagusia da. Ondokotasun arazo batzuegatik – batez ere etxeko semeen ez azolkeriarengatik-, “euskal etxea eta inguruko lurrak” Irungo (Don Pantaléon) arrotz aberats baten “aztaparretan” geratzeko arriskutan da. Orduan, *Mirentchu*, seme gazteenarekin ezkondu behar duen kemen eta bihotz handiko neska gazte pobrea, bere geroa sakrifitzeko gogoan agertzen da, mutikoak emaztegai aberatsago baten atxemateko gisa, *Guztiederrean* dituzten zorren pagatzera heltzeko. Hots, bi euskaldun gazteren arteko amodio trabatua eta baserriaren etorkizun zalantzatsua da eleberraren ardatz nagusi bikoitza. Nahi ala ez, *Ramuntcho*, Pierre Loti-ren eleberraren kontrakoa bezala agertu zen eleberrari hori :

Ramuntcho-n, etxea saldua da ama hil eta, Ramuntcho Ameriketara joatean. *Mirentchu*-n aldiz arrotz aberatsen aurka borroka luzea eraman ondolan, ondokotasuna oso osoan edukitzen dute ondokoei uzteko gisa. Maitasun sendimenduak eta oro galtzeko prest agertzen da pertsonai nagusia, etxalde eta etxe hartako leinuaren begiratzeko suntsizetik. Erakaspen bat ematekotan, Lhande-k erakutsi nahi izan du “bere gustuko benetazko Euskaldun”-ek ez zituztela etxea eta funtsak diruaren truke kanpokoari uzten²⁰², hots, ez zutela “arima” galtzen.

- *Bibilis* (1926) :

Bibilis-ekin²⁰³, beste sail batean ausartu zen Pierre Lhande. *Mirentchu* eleberri “kostunbrista” izanik, “errealismo idealizatu” baten gainean eraikia zen eta oro har esperantzaz betea etorkizunari begira. *Bibilis* aldiz, aise ilunagoa da. Izar adardun edo kometa pozoindu bat Lurraren inguruan iragan beharra da eta, bizia ezabatu behar luke pasatzean. Buruzagi batzuek, Bilboko industrialari batek (Martin de Amezaga) eta apezpiku batek besteak beste, euskal jendaldea desagertzetik salbatzeko egin ahalak egiten dituzte. Noe aitaso berriak balira bezala, “Euskaldun on” guziak (Euskaldun fededunak ohidura zaharrei atxikiak direnak) biltzen dituzte Oihartzungo lurpeko amildegi handi batetara. Arrisku guziak iragan arte, aterbean egoten dira, lurraren gainean, denak erretzen (Euskaldunak ez diren jendeak barne) diren bitartean. Fantastikoa edo zientzia fikziozkoa baino, *Bibilis* eleberri “profetikoa” bezala ager daiteke, sail edo azpi genero gisa finkatua balitz. Eleberri “apokaliptikoa” da ere, narratzailearen ustez mundua galbidean aurkitzen delakoan : libertimenduari emana, komunismoaren bidetik abiatua, erakaspen giristinoetatik urruntzen hasia, etb. Mundua xuri ta beltzez erakutsia da *Bibilis*-en, ikuspegi manikeista eta kondatzeko molde horrek sinesgarritasuna hein handi batean kentzen dio eleberriari. Alta, horrelako gaiak aski modan ziren garai hartan.

- *Le Moulin d'Hernani* (1936) :

Hamar urte berantago, Euskal fikzioen zikloa bukatzen du *Le Moulin d'Hernani* (1936), ipuin edo kondaketa laburren bildumarekin. Zortzi ipuin dira orotara eta gehienak Euskal Herrian edo Pirineoetan gertatzen dira.

²⁰² Gai berdina lantzen du Oxobi-k, hamabi urte berantago, Jean Barbier-en *Piarres* (1926) izeneko eleberriari ematen dion aintzin solasean.

²⁰³ *Bibilis*, Ed. Plon, 1926.

Horietan, pertsonai historikoak, Santa Cruz edo Cestac apaizak eta Napoléon Hirugarrena besteak beste, erabili zituen, Lhandek berak asmatu gizon emazterekin, XIX-garren mende ondarrean edo XX-garren mende hastapenean gertatu diren gora beheretan. Liburu hortan aurkitzen diren ipuinek ez dute elaberrien hedadura ez eta ere, indar bereko xedea literatura mailan. Hitz aurrean, Lhandek aitortzen du bigarren mailako sorkuntzak direla beretzat ; “bluettes” (haurrentzat egiten ziren funts handirik gabeko ipuintxoak) deitzen ditu. Segur, ordurako, Lhandek jasana zuen bere odol isurtzea buru muinetan eta ez bazen oraindik osoki ezindua, jada tipitua zen osasunaren aldetik. Bainan ez da arazo hortarik heldu bilduma horren doinu hunkigarria. Aintzin solasean, idazlana non eta noiz emana duen bukatutzat ezarria du : *Luxembourg, 15 octobre 1936, en la fête de sainte Thérèse d'Avila*. Beraz, España osoa eta Euskal Herria gerla zibilean sartuak dira. Guduak Euskal herriraino helduak dira²⁰⁴. Eta, geroa beltz beltza ikusten du hainbeste urtez ezagutu eta maitatu duen Euskal Herriarentzat²⁰⁵.

- *Argitaratu gabeak* :

Bestalde, Pariseko Jesuiten Artxibategian dagoen “Lhande” fondoan, beste “euskal fikzio” bat aurkitzen da, “L’Abbadia de Bordaberry” deitua den idazlan argitaragabea. Bi bertsiio ezberdin badira oso osoak, bat eleberri gisa idatzia, bestea autobiografia gisa antolatua. Bere azken urteetan, nahiz indarrak guguz mendretuak zituen, *Plon* argitaletxearekin harremanetan sartu zen Pierre Lhande, liburu berria argitaratu nahiz. Bainan paperetan ageri denez, argitaratzaileak trabak ezarri zizkion bidean, eleberria zen bezala ezin publikatua zela erranez. Horrengatik iduriz, berridatzi zuen autobiografia moduan.

²⁰⁴ « Et nous étions à la veille de voir se couronner de jets de feu crachant la mort les crêtes harmonieuses du Jaizkibel, à la veille de l’incendie d’Irun, des fusillades du Fort de Guadalupe. Et, déjà, dans l’horizon des montagnes qui court du Pic d’Orhy à Fontarabie, j’entendais quand soufflait de la mer le vent du sud, le rauque abolement du canon. C’est dire assez le contraste poignant qu’offrirent ces pages, conçues et méditées dans l’ambiance paradisiaque de l’*Euzkadi*, avec les atroces réalités qui sont venues s’y juxtaposer et qui durent encore : la guerre civile, la destruction, l’enfer ! ». *Le Moulin d’Hernani*, Préface, p.I/II.

²⁰⁵ Pour nous, quel que soit notre désir de nous montrer optimiste dans la solution d’un problème où Basques et Navarrais se sont si durement entre-déchirés, nous craignons, -nous qui avons tant aimé les Basques, tous les Basques- que l’*Euzkadi* ne se relèvera pas de longtemps du mal, du très grand mal qu’il s’est fait à lui-même. ».

Le Moulin d’Hernani, Préface, p. V/VI.

Beraz, garbi gelditzen da *Yolanda* ez dela molde bereiz batez hartu behar. Lhande-ntzat, ziklo batean sartzen da, bere euskal eleberrien bilduman hain zuzen.

- *Yolanda* (1921) :

Halarik ere, hizkuntzaz gain, *Yolanda*-k badu bere berezitasuna bai formaren aldetik baita ere gaiaren ikuspondutik. Genero mota ezagun batean sailkatzen ahal da, eleberri historikoarena hain zuzen, nahiz arazoak badiren sailkapen horrekin, beherago²⁰⁶ ikusiko dugun bezala.

2. *Yolanda* eta Euskal Herriaren historia :

Yolanda : *kontestu historikoa Euskal Herrian.*

Gertakariak, hamaseigarren mendean finkatu ditu idazleak. Irungo eskualdean aurkitzen zen ola batetara erematen du irakurlea, Irundik hararaino joateko bidea harekin eginez, behar diren xehetasun guziekin. Beraz, lehengo Euskaldunak dira aipagai bainan ez ohizkoak, nolabait errateko. XX-garren mende hastapenean literaturan gorai patzen diren Euskaldunak historiatic kanpo edo haren bazterrean bizi dira iduriz. *Yolanda*-n agertzen direnak, XVI-garren mendekoak izanik ere, ez dira mundutik kanpo bizi. Gainera, haien aztarnak XX-garren mende hastapenean aurkitzen ahal ditu oraindik, liburua eskutan bila joan gogo lukeen edozeinek. Hatz horiek XVI-garren mendeko dokumentu idatzietan aurki daitezke ere, artxiboetara joanez geroz.

Ekintza Irunen et Hondarribian finkatuz, portutik olara eta olatik portura pertsonaien harat hunatak erakutsiz, euskal literaturan oraindik irakurgabea den “fikzio eremu” bat asmatzen du. Ez du ordurako famatua zen Bilbo handia aipatzen, baizik eta Hondarribia ; gisa berean ez ditu Bizkaiko olak aukeratzen fikzio leku gisa, bainan Oihartzun-go bidean aurkitzen den Ola ertain bat.

Bestalde, Lhande-k ez ditu , *Mirentxu*-n egin zuen bezala, bere pertsonaiak baserritarren artean hautatu. *Yolanda*-n agertzen direnak burnigintzan ari diren langileak dira eta mariñelak. Baserritarrak bizpahiru alditan erakusten ditu idazleak : Flandriarren ohoretan olako nagusiak antolatzen dituen jaietara etortzen dira dantzan aritzera ; azken pestan, *Yolanda* eta Yoanes eztaietarako ekarrarazten den bertsolaria baserritarra da (Manex Saratarra).

²⁰⁶ Ikus solas ondo hontan berean : 3. *Yolanda*, eleberri historikoa.

Ez ohizkoa izanik ere, Lhandek erakusten duen Euskal Herria guziz idealizatua da : eskualde aberatsa da, jatekoa eta edatekoa nasaiki aurkitzen baita. Mahainean edo plazan, alaitasuna eta besta ez dira eskas “Euskal Herri” hortan. Euskaldunak arrotzari irekiak dira hura “bere “pasaiazko” tokian egoten den ber, hots ez badu tokiko jendeen artean sobera barna sartu nahi, ezkontza galdeginez edo horko ohiturak gaitzietsiz. Bi arazo bakarrik ageri dira liburuan : alde batetik “Agoteen” baztertzea ; bestaldetik, Yoanes eta Ixtebe-ren arteko eztabaida soziala, Yolanda-ri buruz. Horiez gain, barne arazo gabeko gizartea erakusten du Lhandek eta hori harrigarri egiten zaio gaurko irakurleari jakinez, zein mugimendutsua izan den XVI-garren mende hori Euskal Herrian.

Flandriarekilako harreman ekonomikoak :

Eleberria ez da Euskal Herriko mugen artean gelditzen. XVI-garren mendeko Europaren kontestu historikoan oinarritzen da. Orduan, Atlantika bazterrean ziren portuek, Sevilla-tik Hambourg-eraino (eta haratago, Baltika eta Iparreko erresumetaraino) Europako ondasun gehienak erabiltzen zituzten. Merkatu handi hortan, Euskaldunek parte hartzen zuten, batez ere Bilboko portuaren bitartez²⁰⁷. Hortik iragaiten baitziren Kastillatik eta beste probintzietatik jalgitzen ziren ekoizpenak baita ere Españaoko eskualdetara sartzen ziren gauzak.

Sal-erospen horietatik bat aipatzen du *Yolanda*-k -burdinarena hain zuzen-eta Aro Modernoaren hastapenean Flandriarekin Euskaldunek egiten zituzten tratuak. Garai hartan, Flandria Europako eskualde aberatsenetatik bat zen, Italiako iparraldea eta Rhin ibaiaren bazterrean ziren hiri handiekin batean. Denbora berean, politika mailan, Españaoko Koronaren eraginpean zegoen eta bazuen aspaldi harremanak bazirela bi eskualdeen artean. Brugge eta Gant hiriak, besteak beste, Flandriako hiri nagusiak ziren eta Brugge-n adibidez, Bilbotarrek eta Donostiarrek “egoitza” komertzialak eraiki zituzten. Lhandek dion bezala, “Azkatasun sariak” (sal-erospenak aduana zergetatik libratzen zituzten hitzarmenak) bazituzten. Lhande-k horiek oro eta orduko egoera orokorra aurkezten ditu *Yolanda*-ren lehen kapituluan.

“Euskaldunak izugarriko biltoki aundiak bazeuzkaten Flandre’tako itsas-urri geienetan, ala nola Lile’n, Dunkerke’n, Brujas’en eta Middelburg’en ; ta sal-eroskin biltokiearekiñ batean bai omen zeuzkaten ordezkari-etxe (Consulado) eta eleiza euskotarrak.”

Yolanda, 9-garren orrialdean.

²⁰⁷ Bilbao et ses marchands au XVI siècle, J.Ph. Priotti, Ed Septentrion, 2004.

Kapitulu berean, garaiak nahasiz, idazleak gehitzen du XX-garren mende hastapenean oraindik, lotura berezi horien lekukotasunak badirela Brugge-n berean emperantza eta kaleen izenetan, “Biscayers Plaatz” edo “Bizkaitarren Plaza” ematen duela adibidetzat²⁰⁸. Euskaldunen eta batez ere Bilbotarren eragina handia zen orduan, Europako merkatu mailan.

Eleberrian, Lhande-k mail berean ezartzen ditu Flandriarrak eta Euskaldunak. Segur, Flandriarrek ez dituzte gauzak berdin ikusten eta, nolabait errateko, zibilizazioan aurreratua goa ikusten dute beren Erresuma, Jordaens-ek dionez :

- “Orra, Yolanda, zein aberatsak gauden, gu Flamendarrak, ontzi oriek nola erakusten dizuten ! Eziñ asma dezakezu zein eder eta ikusgarria dan Flandre'tako erria !

(...)

- Euskadin, Yolanda, galdua bezala zabiltz. Amezarte orein erdian, zure edertasunaz inor oartua eztago. Maiara jakiak ekartzen, neskame baten antzera, iksuten zaituztenean, zu orrelako etxalaba goi ta aberatsa zerala zeinnek esan dezake ? Zu eñ ortara jaitxirik aurkitzea niri lotsagarri zait.”

Yolanda, 26-garren orrialdean.

Jordaens-ek zorte hobea hitz ematen dio Flandriara etortzen bada harekin :

- “Nerekin Flandretara joango baziña, egun guzian janzi gorritz jantzia ibiliko zĩñake, zutaz arta leuketan lau mirabe gazten artean. Uriko plazan, urrez apaindurirako alki eder batean jarria, zure begi urdiñ orik xoratzeko eun zaldun ospatsuk darabilzketen ezpata edo azkon-guduak begiratzen geldituko zĩñake.”

Yolanda, 27-garren orrialdean.

Yolanda-k eza ematen dio proposamen horri, nahiago baitu Euskal Herrian egon eta bertako norbaitekin ezkondu. Ez harek, ez eta ere haren aitak, Flandriar aberatsaren aurrean, ez dituzte beren bizia eta ondasunak guttiagotzat hartzen. Beraz, haien bitartez, Lhande-k aski gora altxatzen ditu Euskaldunak, Europako jendalde aberatsenarekin dituzten harreman sendoak frogatzen duten bezala.

Burnigintza Euskal Herrian, XVI-garren mendean :

P. Lhande-k burnigintzaren aipamen historikoa egiten du lehen kapituluan, aintzin arotik hasiz XVI-garren mendea arte. Erromatarren denborako lekukotasunak erakartzen ditu autoritate gisa, hala nola Plino,

²⁰⁸ XXI-garren mende hastapeneko irakurleak ere aurki dezake « Biscayers Plaatz » delakoa beti toki berean, ezki ondo zahar batzuek geriza goxoak ekartzen diotela, *Van Eyck* margolari famatuari eskainia den emparantzaren ondoan. Artetik errateko, Euskaldunen beste aztarna batzu aurki daitezke oraindik, hala nola « Donostiako arkularien elkartea » (Gilde des Archers de San Sebastian) deitu plaza.

Kaizar, Estrabon eta Martzial. Zeltiberiko *Bilbilis* hiri mitikoa ere aipatzen du erakusteko burnigintzaren tradizioa badela aspaldidanik Euskal Herrian eta, XVI-garren mendekoa jarraipen bat baizik ez dela. Jarraipena da bainan, denbora berean, Olak gero eta handiagoak dira, gero eta emankorragoak. Egitura egoki horiei esker, Euskal burniak fama handia bildua du Europa guzian eta garai hartako merkatari hoberenak –Flandriarrak- etortzen dira burni bila Euskal Herrira.

Ordurako modernoa zela Euskal Herriko olagintza erakutsi nahiz, bigarren kapituluan – “Ola” deitua da-, P. Lhande-k Urdanibia-ko Olaren deskribapen luze eta xehea egiten du. Burniaren lantze prozesua kondatzen du hastetik buru, hiztegi berezitu baten bitartez. Langileak ere aipatuak dira xeheki eta, ofizioko jende aditu, prestu eta langile bezala erakutsiak dira. Gainera, nagusiarekin arras ongi konpontzen dira eta, nahiz ez duten “gonbidatu ofizialen” bazkarian parte hartzen (Laugarren kapituluan), ondotik ematen den pestara gonbidatuak dira (Bostgarren kapitulua). Beraz, garai hartako lantegi egituratu eta aurreratuak izanik ere, Euskal Herriko olak, toki baketsuak dira sozial mailan. Gauzak etxeko etxeko antolatzen dira, ugazaba mintza errea da, langileak zoriontsu bizi dira, hots, lainorik ez da Euskal herriko zeruan, XVI-garren mendean, *Yolanda*-ren kondalariaren arabera.

Eta, gauzak ongi doazelako froga hoberena, Brugge-ko aintzindarien artetik jalgitzen den mutiko gazte baten ezkontzarako eskaintza : Jordaens-ek harekin esposatzea eskatzen dio Yolanda-ri (Hirugarren kapitulua). Nahiz Euskal Herria baino zibilizatuagoa ikusten duen bere Flandriako sorterria, Yolanda aski “handia” iruditzen zaio haren hartzeko andre gisa : “... *zu orrelako etxalaba goi ta aberatsa...*” (*Yolanda*, Hirugarren kapitulua, 27. or). Beraz, hein hortarainoko elkarkidetzaz sortzeko, mail berdintsuko partaideak izan behar dira.

Euskaldunak, lehenengo olak eta XX-garren mende hastapeneko industria :

Beti *Yolanda*-ren arabera, XVI-garren mendean, olako ugazabak garrantzi handiko jendeak dira. Ixtebe, Urdinibi-ko nagusia klase berri horri bere itxura ederra ematen dio. Bigarren kapituluan kondalariak dionez, gizon handia eta indartsua da, guziz bihotz onekoa, jendekina eta langileei ohartua, aita familiako on bezain arduratua eta giristino paregabea, emaztea gazterik galtzea oldartu gabe onartu duena. Txomin Agirrek, bere pertsonai nagusiari (Joanes artzaina *Garoan*) egin zion omenaldiaren oihartzuna ekarriz, Lhande-k batetaratzen ditu *Garoa*-n ageri den bereizketa baserritarra eta industrian ari den langilearen artean :

“*Ura zan, ura, itxuraz, egizko nekazari ta ola-gizon seme euskalduna !*”

Yolanda, bigarren kapituluan, 12-garren orrialdean.

Bainan, ez da bakarrik etxekoen gandik kontsideratua Ixtebe, kanpokoek ere gora ezartzen dute, bai Euskal Herrikoak (Inguruko jende ospetsuenak, jabe handiak eta Elizako kargudunak, heldu dira Flandriarren ohoretan eskaintzen duen apairura) bai eta ere arrotzak :

“Orregatik, ta Euskaldunen biotz ona ta esku zabala ondo jakiñaz, Ondarribi, Donosti, Pasai edo Deba’ko portuetara zetozen itsas gizon arrotzak Urdanibi’ra astiro jotzea oi zuten, otamen aberats bat iresteko asmoan.”

Yolanda, bigarren kapituluan, 13-garren orrialdean.

Gizarte mailako ospe eta errespetuaren aldetik, aitoren seme edo ohizko nobleen maila gainditu dute ola-gizonek. Ixtebe-k, adibidez, ez dio alaba andretzat eman nahi Yoanes Azturiaga-ko jauregitik jalgitzen den aitoren semeari. Honen etxean, egia erran, dena galdu dute etxea salbu, diru eskasean bizi baitira. Urdanibian aldiz, sosa badute eta, nahiz molde aski apal batez bizi diren, aberatsak dira. Yolanda-k, -alaba gehiena eta premua dena-, bere edertasunaz bestalde, badu alde erakargarri frango etxe handietako semeentzat :

“Yolanda, Urdanibiko etxalaba aberatsak, gora baiño gorago zaramaskela agirian dago. Kastila’tik Plandre’tara zijoazten guda-ąintari ospetsuak belarrira bere ąerkai omenezkoak esan ziozkaten...”

Yolanda, Hirugarren kapitulua, 24-garren orrialdean.

Badirudi, Nabarra-ko erresumaren desegitearekin batean Noblezia zaharrak gizartean galdu dituen lehentasuna eta eragina hartu dituztela XVI-garren mendeko “ola gizon - industrialiarek”, noble berriak balira bezala.

Lhande-n garaikide bat, nahi ala ez, XVI-garren mendeko egoera hori eta XX-garren mende hastapenean bizitzen duena bateratzera erakarria da. Olak non nahi badira Gipuzkoan eta Bizkaian, eta Bilbo inguruan baita ere beste hiri handi batzuetan, burniari lotua den industria bere hein gorenean da. Industria hartatik heldu da lan eskaintza handiena eta, euskal gizartean, denen begien bistan dira “industrialari” edo “ugazaba” horiek. Dударik gabe, ohar horrekin interpretazioaren eremuan sartzen gara. Halarik ere, bi xehetasunek bideratzen gaituzte hortaraino. Lehena, 1919-an Lhande-k argiratu duen saiakera batean aurkitzen da : *Notre Soeur Latine L’Espagne*, Ed. Bloud & Gay, 1919. *Euskal alderdi Jeltzalearen* sortzea aipatzearekin hauxe dio : *“L’âme de ce mouvement dans la Biscaye fut un jeune écrivain qui mourut avant d’avoir donné la pleine mesure de son talent : Sabino de Arana y Goñi. C’est surtout, à la propagande²⁰⁹ têtue et ardente de cet homme qu’il faut attribuer le mérite de l’extraordinaire accroissement qu’a pris, en ces derniers temps, le mouvement nationaliste. Le parti, vigoureusement constitué aujourd’hui*

²⁰⁹ « Propagande » hitzak ez du egungo zentzu gutietsigarria ; publizitatearen zentzua duke orduko hizkuntzan.

s'appuie sur le capital de riches armateurs bilbainos, tel que l'opulent don Ramon de la Sota, et, de l'autre, sur la ferveur régionaliste des jeunes ouvriers de Bilbao, Tolosa, Eibar et Saint-Sébastien » (P. 32).

Lhande-ntzat ez da dudarik : ugazaba handien eragina garrantzi handikoa da, eskuetan duten diru eta indar ekonomikoarengatik. Eta zenbait urte berantago, fikzio mailan erabiltzen du irudi ber bera. *Bibilis* (1926) eleberri profetikoan, Martin de Amezaga izanen da Euskaldunen gidaria eta babeslea. Martin de Amezaga, industrialari bilbotarra burniari esker aberastu da :

“La manière même dont Amezaga avait réalisé en peu de temps sa grande fortune était bien dans la note basque et surtout biscayenne. Cette fortune, il la devait toute à la façon audacieuse mais intelligente qu’il avait mise à exploiter les grandes méthodes modernes de l’industrie maîtresse de la Biscaye : le fer. »

Bibilis, Ed. Plon, 1926. 111-112. Or.

Hain segur, Ramon de la Sota izan da Martin de Amezaga pertsonaiaren iturria. Beraz, olagintzari buruz, Marzial poeta latinarekin hasiz²¹⁰, XX-garren mendea arte, jarraipen historikoa eraikia da, XVI-garren mendea dela medio. Eleberri historiko baten bitartez, Lhande'k XX-garren mende hastapeneko kontestu ekonomikoa eta politikoa hunkitzen du bete betean, euskal literaturan inoiz egin ez zen bezala.

3. Yolanda, eleberri historikoa ?

Historiaren garrantzia XIX-garren mendeko Europan : zientzia eta eleberriak.

XIX-garren mendean historia “mendean” sartu zen. Bi sartze erabili zituen, zientziarena eta eleberriarena. Bainan, hastapenean, ez ziren egungo egunean bezain garbi bereizten. XIX-garren mendeko Augustin Thierry orduko frantses historialari berritzaileetatik batek (Edgar Quinet, Jules Michelet, etb.) lankideen mailan ezartzen zuen Walter Scott eleberri historikoen egilea²¹¹. Halarik ere, mendea joan arau, gero eta gehiago bereizi ziren bi sail horiek. Lhande-k *Yolanda* idazten duen garaian, bereizketa osoki egina da eta historia zientifikoak gaina hartu dio eleberriari. Frantzia berean, Marc Bloch eta Lucien Febvre bezalako ikerlariak, *Les Annales* (1929)

²¹⁰ « Martial, dans une épigramme à Lucius, vante les forges de cette Bilbilis... » *Bibilis*, 112-g, or.

²¹¹ Augustin Thierry : *Ivanhoe* eleberriari buruz “Un homme de génie, Walter Scott, vient de présenter une vue réelle de ces événements si défigurés par la phraséologie moderne ; et, chose singulière, mais qui ne surprendra point ceux qui ont lu ses précédents ouvrages, c’est dans un roman qu’il a entrepris d’éclairer ce grand point d’histoire, et de présenter vivante et nue cette conquête normande » in « Le Censeur Européen » (1820) ; cité par Jacques Bony, *Lire le Romantisme*, Ed Bordas, 1992.

agerkariaren inguruan, historia zientifiko baten metodologia landu dute bi gerlen artean. Labur biltzeko²¹², Jules Michelet et Ernest Lavisse-n “kondaira historikoa”, hots arbaso, aurreko eta gudu fundatzaileen “kondaketa nagusia” baztertzen dute. Dokumentu eta azterketa estadistikoaren gainean bermatuz, historia berri bat sortu nahi dute. Nahikunde zientifiko horren aurrean, “kondaira historikoaren” diskurtsoaren ezabatzearen ondorioz, eleberri historikoak galtzen du bere ospearen parte bat. Europa mailan, genero horren urrezko aroa XIX-garren mendea izan da dudarik gabe ; “Nazio” berrien eraikuntzan bere garrantzia ukan baitu eleberri mota horrek²¹³. Mugimenduaren amaieran, haren eragin politikoa eta didaktikoa tipituz doa eta, eleberriaren azpi-sail bat bezala agertuko da ordutik aintzina “sail historikoa”²¹⁴, beste azpi-sailen artean.

Ereduak erdal literaturan :

Eleberri historikoa idazterakoan, ez ditu Pierre Lhande-k erreferentziak eta ereduak euskal literaturatik hartzen. Frantses literatura ongi ezagutzen zuen eta, hain segur, irakurri zituzkeen ordurako sail hortan fama handia bildu zituzten liburu gehienak : *Cinq Mars*, A. de Vigny (1826), *Les Chouans*, H. de Balzac (1829), *Chroniques du temps de Charles IX*, P. Mérimée (1829), *Notre-Dame de Paris*, V. Hugo (1831), *Les trois mousquetaires*, A. Dumas (1844), *Salammô*, G. Flaubert (1862), *Quatre-vingt-treize*, V. Hugo (1874). Ageri denez, XIX-garren mendeko idazle handienek sail hortan idatzi dute eta garai hartako idazlan nagusi frango sail historikoan altxatzen ahal dira. Bestalde, gazteleraz idazten zena ere ongi ezagutzen zuen P. Lhande-k eta eleberri historikoak barne. Euskal Herrian publikatzen zirenak aipatzen ditu behin baino gehiagotan, agerkarietan ematen zituen literaturari buruzko kroniketan. Besteak beste Arturo Campion-en idazlanak²¹⁵ edo *Amaya*, Navarro

²¹² *L'Histoire en miettes*, François Dosse, Ed. La Découverte, 1987.

²¹³ *La Création des identités nationales*, Anne-Marie Thiesse, Ed. Seuil, 1999.

²¹⁴ Eleberri historikoari buruz erabil daitekeen bibliografia guziz ezaguna da ; baliatu ditugun artean aipa ditzagun :

Le Roman historique, G. Lukacs, 1965 frantses itzulpenarentzat, Ed. Payot.

L'écriture de l'histoire, M. de Certeau, Gallimard, 1975.

Le Prince et le marchand, P. Barbéris, Ed. Fayard, 1980.

« L'usage de la fiction en histoire », H.R. Jauss ; « Histoire et fiction », K. Pomian, in *Le Débat*, 1989.

Euskaraz eta euskal literaturari buruz, gauza gutti aurkitzen da, J. Rojo-k Y Etxaide-ren eleberrigintzari buruz egina duen tesiaren materiala (*Yon Etxaide eta nobela historikoa : 2004*) liburu gisa publikatu arte.

²¹⁵ Arturo Campion, « La Flor de Larralde » in *Euskariana* (1919), *Chronique de littérature basque*, RIEV, 1919.

Villoslada-ren eleberri famatua²¹⁶, hain zuzen D. Agirre-k eredutzat hartu zuena *Auñamendiko lorea* liburuaren egiteko.

Aintzinekoak eta garaikideak Euskal Herrian.

Euskal Herrian, historiari buruzko interesa XIX-garren mende hastapenetik hara aurkitzen ahal da. Besteak beste, aipa ditzagun A. Chahoren *Histoire primitive des Euskariens –basques* (1847) eta J.M. Hiribarren²¹⁷ *Eskaldunak* (1853) nahiz ez diren batera Yolanda-ren sail berean sartzen, ez formaren aldetik, ez eta ere ikus moldearen sartzetik. Historiaren behar horren erakusteko ere hor ditugu A. Toledo-k Antologia batean bildu dituen idazlan eta saio bereziak : *Leiendak* (1879-1891)²¹⁸. Bainan, euskal eleberri historikoaren saila idekitzen duen liburua D. Agirre-ren *Auñamendiko Lorea* izan da, 1898-an. P. Lhande-ri ez zitzaion sobera gustatu eleberria ; Agirre hil ondoan eman zuen hitzaldi batean²¹⁹ xeheki erraten du zergatik eskasa aurkitzen duen, *Kresala* eta *Garoa* eleberri nagusien ondoan. Gaian berean ikusten zuen lehen oztopoa ; VII-garren mendean gertatu gora behera horiek, XX-garren mende hastapeneko irakurle soil alfabetatugabearentzat urrunegi eta arrotz iduritzen zitzaizkion : “*An zebilzkigun arrotz zarren egiteak, Txilperiko, Txildeberto, Teodoriko ta peretxiko orienak gure baserritarren egitekoakiñi antzarik etzeukaten*”

Agirre, irakurgaikiña, Itzaldiak, Euskal Esnalea, 1923.

Bigarren traba hizkuntza mailan ikusten zuen :

“*Baña ala ere jakintza gabeko nekazari ta langilleak, ta, xuberotarrak dionaz, jende “xeeak” irakurtzeko gutunak zuzendu nai baditugu, euskera adi-errexka erabili biar degu, ta ortarako gai edo arlo ulergarriak autatu biar ditugu.*”

Agirre, irakurgaikiña, Itzaldiak, Euskal Esnalea, 1923.

Haren ustez irakurlegoaren arabera idatzi behar da XX-garren mende hastapenean :

“*Laixter Agirre’k bere okerra ezagutu zuan. Berak bere begiez ikusitako gertaldi bat zuzentzea, lenagoko kondaira zarrak jostea baiño zurrago izango usmatu zuan, ta berak digu, Kresala’reñ itzaurrian nola iletatik “bizi-biziak” diran aruntz biurtu egin zan...*”

Agirre, irakurgaikiña, Itzaldiak, Euskal Esnalea, 1923.

²¹⁶ « Domingo de Agirre », Bulletin de littérature basque, RIEV (150. or), 1920.

²¹⁷ Lhandek ongi ezagutzen zuen Hiribarren-en ekarpena, batez ere lexikografia mailan : « L’Abbé Martin Hiribarren et son dictionnaire basque », *Gure Herria*, 1925.

²¹⁸ *Leiendak (1879-1891)*, Klasikoak 40, Ed. Euskal Editoreen Elkarte.

²¹⁹ « Agirre, irakurgaikiña », Itzaldiak (*Euskal Esnalea*- ren gehigarrian), 1923. Liburu honen eranskinetan aurki daiteke mintzaldi horren berrargitalpena.

Beraz, badirudi alferretan idaztea dela eleberri historikoaren sailean aritzea. Bizkitartean, baztertu zuen saila erabiltzen du P. Lhande-k *Yolanda*-rekin. Zergatik ote ?

P. Lhande-ren aukera nagusia : Euskaldunak Historian sarrarazten.

Ereduak eta eraginak hor dira. Halarik ere, erran daiteke Pierre Lhande-k euskal munduan dagoen sail historiko “murrizta” berritzen duela, neurri handi batean. Hitz batez errateko, mitologiatik ateratzen du Euskal Herriaren iragana, ikuspegi historiko batean sar arazteko. Barna dezagun apur bat *Auñamendiko lorea*-rekin abiatu dugun konpareketa. D. Agirre-k VII-garren mendeko gertakariak ditu aipagai. Garai horri buruz, dokumentu idatzi gutti bada eta kanpoko kronikalariek eginak ; bestalde, XX-garren mende hastapenean emaitza arkeologikoak guziz urriak dira. Lhande-k aldiz, XVI-garren mendean finkatzen ditu bere gertakariak eta, xehetasun historiko asko ematen ahal ditu : Flandriakilako harremanak guziz ezagunak baitira eta dokumentu ugari gelditzen baita artxiboetan. Burniaren sal-erospenak edo itsas-ontzien itxura aipatzen dituelarik, garaiko lekukotasunetan oinarritzen ahal ditu deskribapenak.

Gainera, geroxago (ikus laugarren parte) xehekiago aztertuko dugun bezala, irakurleari egin ahala hurbil ematen dio garaia : lehen kapitulutik beretik XX-garren mendeko “hatzetatik” (Irungo eskualdean aurkitzen diren hatz historikoa : portua, olak, etb.) abiatzen du kondaketa XVI-garren mendeko gertakarietan sartu baino lehen.

XIX-garren mendeko bigarren partean, bai kanpokoek (E. Reclus “Les Basques, un peuple qui s’en va”, *La Revue des Deux Mondes* -1867- ; P. Loti, *Ramuntcho* -1897- besteak beste), bai Euskaldunek berek (J.B. Elizanburu, J.P. Arbelbide, etb.) Historiaren ildotik baztertzen dituzte Euskal Herria eta Euskaldunak. Literatura mailan, “Eskualdetako eleberrigintza” (Régionalisme –Costumbrismo) eta “eleberri mitologiko”-etatik kanpo , ez da deus aurkitzen fikzio sailean. “Ondare”-aren ideologian aurkitzen da euskal literatura ; iragan mitiko baten oroitmena bizi arazten du.

Segur, ba dira, Adrien Planté²²⁰ edo Camille Julliard bezalakoak, “continuum” edo jarraipen historikoaren egiteari lotzen direnak, bainan, ororen buru gutti dira.

Gisa hortan, iraganak ez du lotura zuzenik orainarekin, non ez den ezabatze edo eskas baten azpimarratzeko. Lhande-k ez du horrelakorik

²²⁰ Adrien Planté, « Les Basques ont-ils une histoire ? », in *La Tradition au Pays basque* (1899).

erakusten : harentzat, iraganak lotura zuzena ba du orainarekin, jarraipena erakusten den ber, bai gelditzen diren hatzetan (arkeologia mailan : *Yolanda*-ren lehen kapitulua), baita ere izpirituan edo “etorkian”. Hortan, XIX-garren mendeko semea da Lhande, uste baitu jendalde berezi guzien gisa, Euskal jendaldeak bere nortasun edo “izaite” berezia baduela. Bainan, “nostalgiaren” kantariak ez bezala, Lhande-k eredu historiko hurbila eman gogo dio bere irakurleari. Horrek ez du erran nahi Lhande-k “mitifikatze” bide guziak bazterten dituenik eta “errealismo”-aren bidetik abiatzen denik kondaketa mailan, ez urrundik ere. Bainan, errealismo falta hori, gaian baino gehiago, forman edo fikzioaren eramateko moldean aurkitzen da. Ondarearen ideologiari, eredu eta adibide “bizi” batzuen bitartez ihardoki nahi dio. Eta lehengo Euskaldunen bizi moldeek eta ekintzek erantzun edo eredu bizi hori irudikatzen dute irakurlearentzat.

Yolanda-n, ahuleziak eta alde berriak :

Yolanda eleberrri historikoa da, amodiozko ipuina ere denbora berean, eta bukaera zorionsuarekilakoa gainera. Abenturazko ipuin baten egitura badu ere : oposaketa finkoak, ele ata mehatxu bortitzak, lehiaketak, bahiketa bat, lasterketa bat, borroka bat eta erahiltze batzu, hiltze bat guziz odoltsua eta azkenean, oztopo guziak gainditu ondoan, besta handi bat partaide ororen biltzeko. Fikzio mailan, *Yolanda*-n Lhande-k ez du anbizio handi handirik agerian uzten ; *Garoa*-rekin konparatuz, ez du Tx. Agirre-k duen -euskal literaturaren baitako- mugen gainditzeko gogo berdina erakusten.

Ikuspegia zorrozituz erran daiteke, kondaketa manikeista dela : Euskaldunek jende onak eta fidagarriak irudikatzen dituzte ; Flamandiarriak, tzarrak, arruntak dira bai itxura fisikoaren aldetik, baita ere alde morala kontutan hartuz. Gainera, Euskaldunentzat Flandriarentzat bezainbat, pertsonaien sinesgarritasun psikologikoa ez da aski landua. Oro har, ahul aire ez bada, arinxko iduri du nobelak. Alta Lhandek berrogei urte pasa bazituen 1920-an eta liburu zenbait bazuen eginik ordurako. Beraz, bazekikeen liburu bat mamitzen. Argibideak eta aitzakiak bilatuz geroz, erran daiteke laster egindako idazlana dela ; XIX-garren mendeko eta XX-garren mende hastapeneko beste ainitz eleberrirekin konparatuz, dokumentazioak ez du behar lukeen pizua, ola edo itsas-ontzien deskribapenetan adibidez. Gogoan eduki behar da ere aintzin solasean errana dena : ez du dena itzuli edo berridatzi. Frantses testuaren laurden bat baino aise gehiago falta da euskarazkoan.

Egungo ikuspegi batetik, ohar horiek onargarriak dira eta ahuleziak aurki daitezke *Yolanda*-n. Bainan, nobelari obra nagusi baten izateko zer falta zaion bilatu orde, ikus dezagun eleberrigileak agerian eman nahi izan duena .

Eleberri historiko baten erran nabi politikoa :

Iraganean gertatu den zerbait aipatzen du, bainan, dudarik gabe, Lhande-k oraina du gogoan. Kezka horren ezaugarri asko atxeman daiteke. Anakronismoek garaikidetasunaren griña hori erakustera ematen dute molde zuzen batez. Lehen adibidetzat, har dezagun, “Euskadi”, Sabino Arana Goiri-
ren eraginaz hogeigarren mende hastapenean, Euskal Herriaren orde, hedatzen ari den erran molde berria :

- “*Ba, Jordaens, baiña naiago gure Euskadi !*
- *Euskadin, Yolanda, galdua bezala zabiliz. Amezarte orien erdian, zure edertasunaz iñor oartua ez dago.*”

Yolanda, Hirugarren kapitulua, 26-garren orrialdean.

Ikusi behar da jatorrizko frantses testuan pasartea beste molde batez egituratua da, era bat²²¹ ; euskarazkoan ezarria den “Euskadi”-ren orde, hara zer agertzen den :

- “*Ici Yolanda, vous ne voyez rien de ces féeries. Vous vivez dans l’obscurité d’une forge perdue parmi les arbres... (...).*
- *J’aime mieux ma forge, Jordaens !...*
- *Vous n’avez pas vu Gand la superbe et Bruges la jolie.*
- *Je vois Euskal-Erria. Près de lui rien ne m’est rien. »*

La Ferronnerie d’Ameznabar, Troisième Chapitre, Gure Herria, 1921

Bigarren anakronismoa, frantses testuan aurkitzen da bakarrik, Yolanda-k Flandriar aberatsari zuzentzen dion erantzun batean :

-« ... *Allez ! regagnez votre Flandre et vos dames vêtues de brocart. Yolanda de Ameznabar n’épousera jamais un « maqueto ».*

La Ferronnerie d’Ameznabar, Troisième Chapitre, Gure Herria, 1921

Eta, nota batean hauxe gehitzen du bere irakurlearen argitzeko : « *Terme de mépris dont on désigne, en pays basque, les étrangers.* » Begien bistakoa da ez dela XVI-garren mendeko erran molde bat, baizik eta XX-garren mende hastapeneko kontestu politikoan erabiltzen dena. Euskarazko testuan, « Plamenko » ematen du « maketo »-ren orde.

Anakronismo horiez gain, orduko politikari ohar asko badira zeharka eginak. Ondokoan adibidez, XVI-garren mendeko Agoteen baztertzetik abiatuz XX-garren mende hastapeneko arazoetara erakarria da emeki emeki irakurlea ; Ixtebe eta Jordaens Flandriarra solasean ari dira, dantzarietara so :

²²¹ Ikus « aintzin solasean » berridazketari buruz errana dena :

«-Zer mila deabru ! gizona ! Zuok zergatik gu kanpokoak orrela begietan artuak daukuguzute ?

- Guk (erantzun zion nagusiak ezti-etziki) ez-ditugu atzerritarrak begietan artzen eta ez diegu begizkorik egiten. Gure artean ongi-etorriak dirala ta batzarre ederra egiten diegula zerorek, noski asma dezakezu.

- Ori, egia ! Euskaldunen etxetan ospetsuki oneritxiak gaude.

- Badirudit... Baiña gutartean jate eta etzatea nasaiki ematen dizkizutegulako, zuok beti kanpotarrak bezala zaituztegu. Gure azitikakoak etzeratelako, gure sendietan sar ez zaitzeten guk eztegu nai. Gure odola, diran zar-zarrenetatik bat dalako, garbi ta uts euko biar degula deritzagu.

- Bai ! Ludiko gizon guzien odola berdin zarra da ! Zuen, Adan gure asabarena baiño zarragoa ba ote leite ?”

Yolanda, Bostgarren kapitulua, 46-g. Or.

Eta, jakinez Jordaens-ek Yolanda-ren bahiketa jadanik asmatua duela elkarrizketa hori iragan baino lehen, ondoko mehatxua botatzen dio Ixteberi, kondaladariak dionez “parra maltzur bat ezpañetaratzen ziola” :

“Ederki, gizona, ! Euki, bada, euki ondo zuen odol zarra !”

Yolanda, Bostgarren kapitulua, 47-g. Or.

Beraz, ageri da XVI-garren mendearen irudikatze hori XX-garren mende hastapeneko ispiluan irakurri behar dela. Bainan, ez ditu garai hartako eztabaidak bakarrik oihartzun moduan, aipatzen, hemen “odola“-ren gaiarekin egiten duen bezala. Oso ongi eta hurbiletik ezagutzen duen orduko Euskal Herriaren transkribaketa ematen du *Yolanda*-n. Eta alde hortatik, “ikuspegi profetikoa“ aurkezten du. Har dezagun adibidez “etsaien kontrako borrokaren gaia“. Literaturan aditua den nornahik erran dezake *Yolanda* bezalako abenturazko ipuin baten dramatizazioaren sortzeko, borroka (edozein izanik ere) guziz beharrezkoa zela. Bainan, hurbilago so eginez, bi borroka ageri dira : bat kanpokoaren aurka ; bigarrena Euskaldunen artean, Yolanda emazte gaztea delarik bietan bilatzen den ontasuna.

Yolanda : bi borroka batean.

Arrotzen kontrako guduan, Flandriarrek -orduko jendalde aipatua eta indartsua- Euskaldunak erasotzen dituzte bortizki arriskutan ezarriz etxean duten ondasun handiena : Yolanda. Alabainan, premua izanki, Yolanda-k etxearen jarraipena irudikaten du. Euskaldunen artean, emazte ederrena eta baliosena izanez, euskal arketipoaren itxura da eta, nolabait errateko euskal jendaldearen sinboloa.

Ixtebe, Yolanda eta Jordaens-en arteko solasaldiak irakurtzean nabari da borroka horren zentzua ez dela emazte baten inguruan mugatzen. Bi kulturen

arteko oposaketa bada hastetik buru eta bien arteko lehentasuna da jokoan dena. Kondalariaren arabera, alde onak Euskaldunen artean aurkitzen dira, Flandriarrek alderdi tzarra edo "gaitza"-rena osatzen dutelarik. Zenbait ñabardura eskas dituen eleberri manikeista ematen du *Yolanda*-k horrela ikusiz, nahiz itxura gehienek konklusio hortara eramaten gaituzten : azkenean hobenduna, Flandriar tzarra harrapatua da eta zorteak gaztigatua, suge pozoidunaren gisa kalitua.

Baina, arrotzen aurkako gudu horrekin batean, beste borroka bat bada Euskaldunen artean. Ixtebe-k olagintzan aberastu diren ugazabak itxuratzen ditu. XVI-garren mendeko munduari irekiak dira, orduko teknika berrienak erabiltzen dituzte burniaren ekoizteko, garai hartako sal-erospenetarako antolatuak diren sare hoberenetan partaide dira. Hots, noble berriak bezala agertzen dira, guziz ohartuak mende berriari, kanpokoek errespetatuak ; bainan, denbora berean, bihotz oneko jendeak dira, denek maitatuak beren herrian , herritarren faboretan ari baitira.

Bizkitartean, Yolanda-ren bahiketa gertatzen delarik, haren salbatzearen eginbidea kendua zaio. Ez du aurretik ikusi arriskua nondik heldu zen : bere buruaz sobera segur edo hartua zelako, itsu baten gisa, etsaia utzi du gaistakeria obratzen bere etxean berean. Ordutik hara, deskalifikatua bezala ageri da pertsonaien artean eta beste norbaitek hartuko du bere gain Euskaldunen babesa. Azturiagako Yoanes izanen da Yolanda-ren babesle hura, emazte gazteak maite duena hain zuzen, bainan aitak onartzen ez duena senargai gisa, pobreegia delako.

"Egia aitor dezagun. Amets orren bururantzako eragozpen bat bazagon : ezkondu nai diran aberatsa ta beartsuaren arteko eragozpena."

Yolanda, Hirugarren kapitulua, 23-garren or.

Bainan, Yoanes ez da nornahi Euskaldunen artean : lehengo noblezia irudikatzen du. Azturriagako familiak -Kastillako gudarien konkista aintzin ?- Urdanibiko eskualdea basbesten zuen. Bainan, lehengo ospea ezabatua da eta jauregiaren izena ere aldatua dute nagusi berriek :

"Españia'ko errege Felipe II'garrenak beste izen bat eman zion : San Telmo. Guk, baldin nai badezu, izen zarra gordeko diogu, euskerazkoa da-ta eta oso goxua."

Yolanda, Hirugarren kapitulua, 22-garren or.

Azkenean, Yoanes-ek du Yolanda jalgitzen Flandriarren aztaparretatik. Azken gudu hortan, noblezia berria indar gabeturik aurkitzen da eta noblezia zaharrak borroka irabazten du, bere balioa, aspaldiko partez, erakusteko parada ukan duelarik.

Eleberriaren ondarrean, etsaien mehatxua deuseztaturik agertzen da, eta euskal gizartea baketua bezala, ber osatua. Gainera, berriz bat egiten du, maitasunari esker, Yolanda eta Yoanes-en arteko eztaiak ospatzen direnean.

Eztai horiek maila simbolikoa badute, bi klase nagusiak (lehengoa eta berria) bateratzen baitira herriko jendeen aintzinean. Bake eta bateratzearen irudiak lantzen ditu Lhande-k XVI-garren mendeko ipuin horren bukaeran bainan ez da ahantzi behar XX-garren mende hastapeneko bere irakurle garaikidea duela gogoan : lehen, kanpoko erasoaren aurka, Euskaldunak garraile izan dira denek bat eginez. Soilegia iduriturik ere egungo irakurlearentzat, mezua horrela gelditzen zitzaion agerian ordukoari.

4. Yolanda, Lhande euskal idazlearen plangintzan :

Eleberria, erakasbide egokiena ?

Yolanda-rekin Lhande-k badu helburu didaktiko bat : XX-garren mende hastapeneko eztabaidetan parte hartu nahi du, irakurlea argituz (bideratuz ?). Orduan, zergatik ez du kasu hortan, “emegrazio”-aren gaiaren lantzeko (*L’Emigration basque*, 1910) egin zuen bezala, saiakeraren bidea hartu ? Zer gehiago eskaintzen ote zion eleberriak, genero bezala ? Eta eleberri mota ezberdinen artean, zer zuen abantañila eleberri historikoak ?

Hipotesietan sartu baino lehen, erran dezagun eleberriaren alde didaktikoa guziz hedatua eta onartua zela, idazle kategoria guzietan, errealistetan idealisten artean bezainbat, ezkerrekoen artean eskuinekoen baitan bezala. Bainan gehienek, “saga” edo arnas luzeko fikzioak argitaratu zituzten :

La Curée (E. Zola – 1871), *La Débâcle* (E. Zola – 1892), *Les Déracinés* (1897 – M. Barrès), *Colette Baudouche* (1909 – M. Barrès), aipatu gabe, bi gerlen artean beti Pariseko plazan -Jules Romains (*Les Hommes de bonne volonté* – 1932-1947), Roger Martin Du Gard (*Les Thibault*), etb- zenbait ale ezberdinetan argitaratu ziren, eleberri jarraikiak.

Gorago aipatu idazleen gisa, P. Lhande-k ere eleberri didaktikoak publikatu ditu eta, erran daiteke, “euskal zikloan” sartzen diren hiru eleberri nagusiak sail hortakoak direla. Yolanda, beraz, nahiz aipatu ereduak baino aise motzagoa den- didaktikoa eta historikoa da.

Agirre-ren ereduari jarraikiz :

Gorago aipatu bezala, Lhande-k ez zuen gustukoa *Auñamendiko lorea*, bainan asko maite zituen *Kresala*-n aurkitzen diren pertsonaiak baita ere solasaldi bizi biziak eta *Garoa* maisu lan bat bezala ikusten zuen :

“*Garoa* da gure Txomiñ’ek idatzi duan irakurgai ederrena, ta beiñere euskaraz izan dan ikusgarriena dala baditeke.”

Agirre, irakurgaikiña, Itzaldiak, Euskal Esnalea, 1923.

Bi liburu horiek bildu zuten arrakastaren argitzeko haxe zion :

“*Nere aburuz orra emen Agirre’k dauzkan iru trebetasun bereziak : gai errexa, izkuntza jatorra, arlo goxo ta parrebidetsua*“.

“*Beraz, euskerak errexenik aitatuko dituanak dira euskaldunen esanak, euskaldunen bizitza*“.

Agirre, irakurgaikiña, Itzaldiak, Euskal Esnalea, 1923.

Eta erran daiteke Agirre-ren baitan aurkitu zituen dohain eta idazbide bereziak bere egin dituela Lhande-k *Yolanda* idazterakoan, zailtasun bat gehituz halarik ere –hain zuzen Agirre-k gainditu ez zuen oztopoa-, gai historikoa hautatzearekin. Irakurlearen erakartzeko bideak bilatu ditu idazleak mamiaren aldetik, baita ere idazkeraren aldetik ; hitzaurrean aipatu bezala (ikus “Aintzin solasa”) frantsetik erdarara pasatzean, hizkuntza arintzen du, “estilo literarioaren” ezaugarri asko baztertuz eta erregistro soilagoak eta zuzenagoak landuz.

Jadanik erran bezala ere (ikus “Aintzin solasa”) euskalkiaren aukerak –gipuzkerarena-argi eta garbi erakusten du irakurleago berri baten bila zebilela eta, denbora berean, irakurleago zabalena, hots, arrazoin askorengatik, garai hartan, Gipuzkoan aurki zaitekeena. Alde hortarik, pentsa daiteke *Yolanda* Pierre Lhande idazlearen plangintza batean sartzen dela, plangintza bat burura eraman ez duena, bistan dena, Euskal Herritik joan delako liburua amaitu ondoan.

Euskaldunak, noizbait garraile : eredu historikoaren pedagogia.

“Ez ohizko erakasle” batek egin lezakeen bezala, euskal irakurleak dibertitzearekin batean, historia zati bat erakustera saiatzen da. Euskaldunek ez dutela beren historia ezagutzen pentsatzen du Lhande-k, dudarik gabe. Gehiago dena, haren ustez, ez da bakarrik jakitate eskas bat. Begirada edo ikuspegiaren arazoa edo traba gainditu behar da. Beha-toki berri bat eskaini behar zaio euskal irakurleari begirada aldatu nahi bada. XIX-garren mende erditik hara euskal letretan aukeratuak izan diren ikuspegiak iraganari jarriak dira. Doinu nostalgikoa bertan behera utzirik, kontrako bidea hartzen du *Yolanda*-rekin eta hori bi mailetan. Lehenik, Euskaldunak noizbait garraile izan direla erakusten du ; bigarrenik, ez ohizko irudi eta garaiak lantzen ditu, hala nola, euskal olagintzaren lehen urrezko aroa (XVI-garren mendea) aipatuz. Segur, XIX-garren mendeko literatura mitologikoan (J.M. Hiribarren –*Eskaldunak* 1853-, J.B. Elizanburu –“Eskuara eta Eskualdunak” 1880-, J. Barbier –“Irrintzina mendian” 1897-, etb.) Euskaldunak garraile izan dira, baina, aspaldiko denboretan, Historiaren mugetan eta Historiatik

kanpo dauden erreferentzia batzuetan : Erromatarren denboran, Ibañetako guduan, etb.

Mitologia zaharrak landu orde, ikuspegi zaharkituarekin hausten du beraz Lhande-k eta berri bat asmatzen du, irakurleari hurbilago egiten zaion garai batetan (XVI-garren mendean). Euskaldunak Europako lehen lerroan erakusten ditu. Aro modernoetan beti galtzaile bezala erakutsia den jendaldea hori, Historiatik ezin bestean desagertzeraz doazen jende horiek, noizbait garraile izan direla kondatzen du. Ideia hori nahi zuen pasa arazi Lhande-k, hain segur.

Bainan, bigarren erakaspen bat badu ere denbora berean, Agirre-k zabaldu zuen ereduaren kontra joaten dena. *Garoa*-n industria kaltegarria da Euskaldunentzat ; euskal nortasuna, ohizko balore eta bizi moldeak, baita ere hizkuntza arriskutan ematen ditu. Gaitz horren adibide asko ematen ditu liburuan Agirre-k, hala nola Juan Andres-ena : Zabaletako Joanesen semea guziz bestelakaturik agertzen da bide galgarriaren buruan. *Yolanda*-n aldiz, industriaren irudia era bat baikorra da, euskal burniaren arrakasta komertzialari esker.

Beraz, XX-garren mende hastapeneko euskal literaturan nagusitzen ari zen irudi ezkor baten parrean, Euskal Herri industrial bizkor eta sendoa erakusten du, alegia XVI-garren mendeko olagintza aipatzen duela. Industria, euskara eta Euskal Herria irudi baikor berean biltzen ditu, adieraziz, Euskaldunak eta mundu modernoa ados jartzen ahal direla orainean eta geroan, iraganean egin den bezala. Lhande-k euskal literaturan “ez ohizkoa” zen eredu berri bat proposatu du, guziz idealista bainan fikzio mailan hain segur emankorra izaten ahal zena jarraitzaileak izan balitu. Horrela, Historiaren “ez ohizko” une batzua aipatuz, irudiak eta ikuspegiak ugarituz, eleberriz historikoez aniztasun gehiago sortzen ahalko zuten, eta behar bada, bide berri batzua irekiko ziren euskal literaturarentzat. Bainan zorigaitzez, liburua ohargabeen pasatu zen lehen argitalpenean. Eta geroztik, ez da behar bezala kontutan hartua izan, adituek “itzulpen” gisa irakurri baitute, hots bigarren mailako liburu bat izan balitz bezala.

Literatura eta eraikuntza nazionala.

Beraz, euskal idazle gisa Lhande-k “plangintza” bat bazuela erran daiteke. Eta, egia erran, ez da batere harritzekoa horrelako kezka eta helburuak aurkitzea Lhande-ren kasuan . Hernanin bizi zelako, hegoaldeko probintzien egoera soziala, politikoa, kulturala ongi ezagutzen zituen eta, urteetan zehar, Euskal Herria aldatzen ari zela konturatu zen.

XX-garren mende hastapeneko urte horietan, mugimendu orokor bat sendi zen : ekonomia bizkorra zen, industria bere gorenean zegoen eta

langileen beharra bazen oraindik. Gizarteak eraginik, kultura mailan, instituzioak sortzen ari ziren : *Eusko ikaskuntza* (1918), *Euskaltzaindia* (1919), agerkari berriak (*Euzkadi*, *Euskal Esnalea*, etb). Politika mailan ere, alderdi berriak indartzen ari ziren, hala nola *Eusko Alderdi Jeltzalea*.

Lhande-k parte hartu zuen mugimendu kulturalean, *Euskaltzaindia*-n izanez, agerkarietan idatziz, eta liburuen bitartez. Politikan ere, behin baino gehiagotan agertu zuen bere interesa *Eusko Alderdi Jeltzalearentzat* eta hurbiletik segitu zuen haren garapena²²². Beraz, bazuen begien bistan “eraikuntza nazional” gisako mugimendu bat eta, gauza jakina da, gisa bereko prozesuetan, literaturak ukan duela garrantzi handiko eragina XIX-garren mende guzian, Europa mailan. Orduan, zer eginbide eman zion Lhande-k *Yolanda* eleberri historiko didaktikoari halako kontestuan ? Galdera hein hortan utzi behar dugu, ez baitu deus idatzi gai horri buruz, ez hitzaurrerik, ez besterik.

²²² Ikus : « Vers l'amitié franco-espagnole » in *Notre Soeur Latine, L'Espagne* (1919).

PIERRE LHANDÉ

ERANSKINAK

LHANDE-N BESTE EUSKARAZKO IDAZLAN BATZU

P. Lhande-k ez du ainitz idatzi euskaraz. Yolanda izan da haren idazlan luzeena. Hego Euskal-Herrian bizi zelarrik, bi mintzaldi argitaratu zituen. Lehen, 1915-ko Oihartzungo Euskal Jaietan, eman zuen eta, urte berean, Euskal Esnalea-n publikatu zuen. Gure Orma zarra izendatu zuen eta euskarari buruz ari izana zen, berriz landuz J.P. Arbeldide-k testu famatu batean (Igandea edo Jaunaren eguna liburua aintzin-solasa : 1895) erabili zuen metafora bera (euskara = euskal nortasunaren barresia). XIX-garren mende ondarreko doinu nostalgikoa hartu zuen eta lirismoaren ezaugarri nagusiak erabili zituen entzulegoa hunkitu nabiz.

Bigarren mintzaldia (Agirre, irakurgaikiña), Txomin Agirre hil ondoan, haren oboretan ospatu zen omenaldian eman zuen (1920). Ondotik, Euskal Esnalearen gehigarri batean publikatu zuen (Itzaldiak – 1923). Hitzaldi guziz interesgarria da, Agirre-ren obra osoa hartu baitzuen kontutan, eta kritika mailan, gisa hortako lehen iritzi landua zen. Biak argitaratzea erabaki dugu ez baitira lehen argitalpenetik bona berriz publikatu.

Beste bi artikulua, anekdotikoagoak dira, dudarik gabe. Lehen, “Uskaldün güdikarientako güthünak”, Euskal Esnalea-n agertu zen 1914-ean, lehen gerla denboran. Gutun hortan, laguntza eskatzen du Xuberotar gudukari zaurituen alde. Bigarrena, “Eskuara eta Eskualzainak”, Gure Herria- hilabetekarian, 1921-ko otsailan, argitaratua izan zen. Agerkari berean, urtarrilean agertu zen artikulua bati zuzendua den erantzuna da. Sortu berria zen Euskaltzaindia-ren kontrako eraso bat zen urtarrileko hura, gainera, guziz hurbiletik jalgia zena iduriz (Oxobi idazlearena hain zuzen : “Bertzeen irakurgaietan“ deitu zuen sailan). Lhande Akademia-ren idazkaria zen orduan eta ez zen egoten abal “etxetik beretik“ heldu zitzaion kritika bortitz hari ihardoki gabe. Lehen xibereraz idatzia da eta bigarrena lapurteraz : biek ongi erakusten dute Lhande-k ba zakiela euskaraz idazten eta hiruzpalau euskalkitan.

Jon Casenave

AGIRRE, IRAKURGAIKINA²²³

1920-g. URTEKO JORRAILAREN 5'EAN,
DOMINGO AGIRRE JAUNAREN OMENEZ
EGINDAKO ITZALDIA.

JAUNAK :
ANDEREAK :

Zuen txalo bero-beroak azpildu dituzten itzaldi eder ta mamintsu oriek adituez-gero, nondik ta zertara natorren berriz ni, nago... Gure Euskaltzaindiaren buru dan Azkue jaun argituak, alde batetik, ta Etxegarai kondairagile ta iztun ospetsuak, bestetik, Txomiñ Agirre gure lagun ta adixkide maitearen biotz gogoak zabal-zabalak iriki dizkizute. Lendabizikoak, berak barrenean dakarran apaiztasunaren gar biziakiñ, nolako apaiza izan zan Agirre erakutsi dizute ; ondokoak, berak zer dion ongi dakianak bezala, kobleri edo olerkariaren doai miragarria agirian jarri digu.

Apaiza, bada, ta olerkaria : ortan dago Agirre zana, oso-osorik. Bere irakurgaiak ezpalitz ba, Kresala baita Garoa idatzi gabekoak geldituko zirala, ta bera olerkaria ez izanaz, bi ipui orietako dakizkidan zati goxo ta mardul asko ezin zuzenduz aspertuko zala. Itz batean, Agirre biotz-biotzetikako apaiz olerkaria zalako irakurgaikiñ ospetsu biurtu zan.

Zer ba ? Apaiza irakurgaikiñ biurtua ? Auxe da, gure egun galdu orietan ikusi biar genuen araugetasun lotsagarria ! “Apaiz jauna –derasate askok- bere apaintasunaren alki goyan jarria dagoela? Urre ta zilarrez jantzia, tente dabilela argi, eresi ta usain gozoko ke lañoen artean, gure ibar apaletako loiar begiratu gabe ! Ta idaztortza erabitzeko griña lotuko balakio, eleizaldi eder, bederatzi-urren samur, otoitz-gai mamintsu ta Egungakarian dauden Done,

²²³ Idazlan hontan agertzen diren oin-oharrak P. Lhandek ezarriak ditu lehen argitalpenean.

Doatsu ta Agurgarri guztien bizitzak idatz ditzala ! Zeruko lore garbiak eskupian dauzkana zergatik lurraren lore argal, ustel ta margulduak biltzerakotan apalduko leite ? Guk arraultzak eskatzen diozkagu ta ark eskeñiko dizkigu sugeak ? Apaiz jaun orrelako egikizun txarren artean leporaino sartua guk ikustea ez ote da izi ta lotsagarria ?”

Askotan nere belarriz aditu solasak dakarzkizuek, jaun-andreak, ta noski zuek ere gaur ez len aldikotzat aditzen ditutzuenak. Agirre’k berak beiñ baño gehiagotan entzundako kalaketak dirala deritzat.

Aldi batean, apaiz irakurgaikiñ gazte bat bere eleizako aitor-alkian jarrian zegoan. Atso zar, sudur-konkor ta begi-gorritsu bat aldean belaunikazera etorri zitzayon, ta esan zion :

- “Aita, aldi onetakotzat oben larri-larririk eztaukadala iduritzen zait, baña alare griña txar bat biotzean dakart ta Jaunartu baño len aitortu nai nizun.”

- “Esan ba, nere alaba –erantzun zion apaiz idazleak- zer daukazu.”

- “Tori... Zu, zu zeralako , zuri esatiak pixka bat lotsatzen nau...”

- “Baña ni... ni izatiak lotsatzen bazaitu zergaitik niri esan biar didazu ? Emen bertan beste apaizak badauzkatzu.”

- “Bai, aita, baña ... zuri esan nai nizun.”

- “Tira ba, esan.”

- “Lotsatuko al zera ?”

- “Ni ? Zuk egindako gaizkiaz ... ? Ez !”

- “Orra. Irakugai bat irakurri det.”

- « Orrek ez nau lotsatzen. Zu, bai, lotsarazi biar zaitu, zu bezalako anima garbia, irakurgai ura txarra balinbazan. »

- « Nola ez ! Maitekeri ta ezkontza ta orrelako ergelkeririk baizik etzekarran... »

- « Emakumea ! Ezkontza, ergelkeria ? Zer diozu ? Ez al zera ezkondua ? »

- « Ez jauna, Jaungoikoaren graziaz. »

- « ... Ta senarraren zorionerako ... Baña, gutun ura biar bezalako ez izanarren, zergaitik irakurri dezu ? »

- « Zer ? Gizon santu bat gutun txar egile ? »

- “Ori ikusi daitekeana da, jauna.”

- “Ta gizon argitu orrek ergelkeriak idazten ditu ?”

- “Orixe da esan nai ez nuana, aita.”

- “Baña esan dezu ... Goazen ! Zeiñ da santu, argitsu ta ergel dan idazlari orren izena ?”

Orduan atso zarrak bere arpegi zorrotza, bere esku zuri makalaz estaldu zuan ta biguñ-biguña erantzun zuan :

- “Jauna... zurea !”

Apaiz idazleak inñardetsi zion :

- “Ta zuk, emakumea, jakiñ nai al dezu, ez santu, ez jakintsu baña bai oso ergela dan beste baten izena ?”
- “Zeiñ ote, jauna ?”
- “Nere alaba ... zurea !”

Orañ duala ogeitamar bat urte, aita Luis Coloma, irakurgaikiñ omen audikoak, *Pequeñeces*, bere gertirudi aitatua, argitaratu zuanean, gutun arren itzaurrian auxe zerasan : “Egia bada ere itxuraz irakurgaikiña naizela, izatez misiolaria naiz. Antxiñako mendetan lekaidiak, karrika ta bide zabalak gaindi Eleizari itzuri zebiltzan jendeak biltzen ta an bertan Jaungoikoaren itza adiarazten zijoazten bezala, nik ere nere itzaldia irakurgai baten orietan eskutatu det, ta iñori bildur ematen dion alki orren gaiñetik eleizara ez datorzkitzadan aditzailentzat egi argi ta zorrotzak entzunarazten ditut.”

Ori bera gure Agirre maitiari gogoratu zitzaion, *Auñamendi'ko lorea* ta *Kresala* ta *Garoa* zuzendu ta argitarazi zituanean. Aren egizko saila norbaitek laixter usmatu ta goratik esan zuan : ura zan aditu ta txalokatu dezuten Etxegarai jaun ori bera. Ark idatzitako *Auñamendi'ko lorea*ren itzaurrean dakuskatan lenen-lenengo itzak Egialearen gai biotzetikakoa dakarkigute : *Omnia instaurare in Christo*, diranak oro Kristoren baitan berritu. Auxe zan gutun aren arloa. Ta egia bada ere aitatu ditudan beste bi irakurgaiak, *Kresala* ta *Garoa*, itxuraz, Jesus'en lege ta pakea goratzen ez dutela, lendabizikoaren antzera, ala ere orieri gure siñismenaren ezti ta esnea erraietatik darie. Biok, bai gure itsasgizonen bai gure nekazarien artean. Jaungoikoaren maitetasuna ta bildurtasunik gabe zorion egizkorik izan ezditekeala darakuskigute.

Saleset'ar Prantzixko deunaren esana –“irakurgaiak ondoen (sic) antzera dirala, guziak galgarri”- arpegira botatzen diguten ergel ta motel batzuk, bi gezur mota dakarzkigute. Lendabizikoa, ondo guziak, ta bigarrena irakurgai guziak galgarri dirala. Nik diot Ginebera'ko apaizpiku eztitsuaren sukaldezaya euskalduna izango balitz, bere jabeak jakingo zuala ze gauza aberats ta mamintsuak diran gure Xubero'ko lekaxiña, gorrinxa ta zuen Gipuzko'ko Kurintto ta araultz-peretxikoak zartagiñan olioakiñ erreak, edo ikasiko zuan Auñamendi'ko ondo-zabal beltza, piper ta txerpoilez pizturikako eltzekarian bai mingañari, bai zintzur koxkorrari, bai sabel ta esteari egokizko janariak dirala.

Orrelaxe, irakurgaikiñak bere gai mardula egiaren piperraz, itz samurraren gatzaz autzaztatzen dakianean, irakurleari Jaungoikoaren erakuspen samiñak polli-polliki isetsarazten diozka. Badira, bada, ondo onak bezela, irakurgai onurakorrak.

Ori bera ondo jakitea izan zan Agirre'ren doai ederrena. Bazakien gure baserritarrak irakurtzen oituak eztirelako, gure gutunak laster bazterretara botatzen ikusi nai ezpaditugu, arlo goi ta meyak utzirik sail errex ta adigarriak orientzat biar ditugula. Nere aburuz orra emen Agirre'k dauzkan iru trebetasun bereziak : gai errex, izkuntza jatorra, arlo goxo ta parrebidetsua.

I. Aita Larramendi'k “eztala gure esukera, gauza aundi, mee, goi diranak adirazteko” zerasaten euskalduneri, beren esan ori “itsumende” ta “lilluramendu” zala esaten zuanean xuxen zebilen noski.²²⁴ Azken urte orietako idazle askok, bere idazki ederretzaz egia ori betiko agirian jarri digute. Baña ala ere jakintza gabeko nekazari ta langileak, xuberotarrak dionaz, jende “xeeak” irakurtzeko gutunak zuzendu nai baditugu, euskera adi-errex erabili biar degu, ta ortarako gai edo arlo ulergarriak autatu bear ditugu. Beraz, euskerak errexenik aitatuko dituanak dira euskaldunen esanak, euskaldunen bizitza.

Egia ori etzuan Agirre'k astapen-astapenetik, ondo asmatu. Iduritu zitzayon, lenago Villoslada'k bere *Amaya* omen aundikoa erderaz idatzi zuan bezela, berak ere euskeraz orrelako arlo zar eder bat bururatuko zezakeala, ta, Erriktruda donearen bizitza autaturik, argitaratu zuan bere *Auñamendi'ko lorea*. Gutun ori aitaturgarria dala ta *Euskalzale* agerkariak, 1897'ko urtean, sariztatu zuala badakit. Baña Agirre'ren lendabiziko irakurgai ori jakintsu ta euskaltzale batzuen artean gelditu zan. An zebilzkigun arrotz zarren egiteak, Txilperiko, Txildeberto, Teodoriko ta beste perretxiko orienak gure baserritarren egitekoakiñ antzarik etzeukaten. Euskaldun geyenak *Auñamendi'ko lorea* bildu gabe gelditu ziran.

Laixter Agirre'k bere okerra ezagutu zuan. Berak bere begiez ikusitako gertaldi bat zuzentzea, lenagoko kondaira zarrak jostea baiño zurrago izango zala usmatu zuan, ta berak digu, Kresala'ren itzaurrian nola iletatik “bizi'biziak” diran aruntz biurtu egin zan :

“Bertan agertuko diran gizon da emakumeak –dio- eztira neure irudimenak asmau dituanak : oso itsua ezpanago eta ametsetan ezpanabil, bizi-biziak dira, Arranondo'ko sardiñak legez ; nik ikusi ditut Arranondo'n eta edonok edozeñ itxaserritan ikusi daikez.²²⁵

Beraz *Kresala'n* diran Mañasi, ta Tramana, ta Brix ta gaiñerako askoren irudiak berak ageriki esaten dute oriek Lekeitio ta Ondarroa'ko kaian egileak begiratu dituan nexka ta emakumenak dirala. Orrelako irudiak biltzeko gaien,

²²⁴ Aita Mendiburu'ren *Jesus biotzaren devozioa*'rako itzaurrian, 1747'ko ateraldiko 15'garren orrian.

²²⁵ *Kresala*, Durango, 1906 , 10'g. orrialdean.

itsasgizon ta baserritarren artean astiro ibiltzen asi zan gure irakurgaikiña. Belarria erne, begia zorrotz, bazebilen arrantzaileak batu oi diran tokietara. Gogoan lenik ta gero Txarteltxoan jende txikiaren esan-erantzunak sartzen zituan, ta bere belarritik xuxen idaztortzara orri batzuetako gaiak lerratu zitzaizola esan dezakegu. Irakurrazue emen bi arrai-saltzaile orien itzaldia :

“Otzarakada bat atunegaz etorrela, nasa-gañean etozen emakumien artetik igarotean, bultzada bat emoeutsan otzara orregaz Brix’ek Tramana’ri, uste bage edo naita, ori eztakigu, bada ere bietara gertau zeikean. Tramana’k, burua biurturik, ikusi eban bere arerioa ta asi jakon :

- Nor da berau, ainbeste leku bear dabena ? Erregiña delakoan, Brix zorgiña baño ezta.

Traman’ren esan garratza entzun orduko, itxi eban Brix’ek lurlean bere otzarea, ipiñi zituan esku biak gerrian, da inguruetakoai begira, buruari eragiñaz, esaeban :

- Ara, ara oin be zelan asten dan kaskamotz, zikin, urdiori.

Ta areriori ausarditsu arpegia emonda, jarraitu eban :

- Entzuizu, Traman zabala, atso popandia, zein zorgintsuan, zeu, baño orditurik, eta ezenduzan ezagutuko zeugaz ebiltzanak be zuk.

- Ordituta, neu ? Zegaz gero ordituta ? Zeuri atzo *amantalpetik* kalean jauzi jatzun bonbilekoagaz ?

- Eee ? Zeeer ? Neuri bonbila jauzi jatala atzo kalean ? Guzurra diñozu, zaskil, zantar, txarri, urde, zorritsu, lotsagabageorrek.

- Miñ emoten deutsu egiak, miñ ? Alperrik ukatuko dezu ba, Mari-kontze’k be ikusi zenduzan ba.

Marikontze eskallu, txatxala, eskel, petralari ta zuri, biori, arpegiko narrua kenduko deutsuet nik, neure atzamarrakaz, lodi daukazue baña...²²⁶

Irakugai orretan Agirre’k bere bide egokia topatu zuan. *Kresala* asmatu ta berealaxe beste arlo errex pollit bat bilatu zuan. Arrantzalien ondotik nekazariak ikertu biar zituala iduritu zitzayon, ta ortarako, bere jaioterriko bizkayera utzirik artu zuan Gipuztarren izkuntza. *Garoa* agertzen asi zan 1909’garren urtean, Julio de Urkijo’k aiñ ospe aundiakiñ argitaratzen zuan *Revista Internacional de Estudios Vascos* agerkarian. Ortan, batez ere, Agirre’ren bigarren doaya –izkuntza jatorra- ikusiko degu.

II. *Garoa* da gure Txomiñ’ek idatzi duan irakurgai ederrena, ta beññere euskeraz idatzi izan dan ikusgarriena dala baditeke. Kondaira polit mee baten

²²⁶ *Kresala*, 67-68’g. or.

inguruan egileak euskaldun nekazariaren bizitzako egikizun geyenak josi ditu, ala nola, artzaigoa (I ta VII'g.buruetan), landako lanak (II ta IV), karobiaren berotzea (22'g. or), eztayak (50-56'g. or), aizkolariak(84 ta 103'g.or) ya abr. Gure oitura orieri lotuak diran euskerazko itz zarrak aditu ta bildu ditu. Ortik datorkio bere euskeraren garbitasun ta aberastasuna. Norbaitek iñoiz gure izkuntza txiroa dala balerasa, irakur ditzala *Garoa*'ren 3'garren orrian Agirre'k "otsa" esateko jarri dituan ogei itz beresiak, edo ondo azter ditzala emen ekartzera noan lerro oriek :

"Bi ama oyek ezkongayen bi amak egiñ zituzten egiñalak... alkar zuritzen ta zilibokatzen ; biak galanki eskatu ta labur eskeni zuten... Eziñeike, badezakezuk eztaukagula, badezutela, ezthanean ezta, nai danean al da ; nondik baña, zenbat bada, geuk zer jango, nola biziko, besteai zer emango ; aserre ta aurrera, gora ta bera ; baño, azkenean ere... erabaki ta korapilatu zan ezkontza..."²²⁷

Alemania edo Paris'ko Goi-ikastoletan dagon jakintsu argituena laixter aspertua ikusi nai balinbadezute, zatitxo ori begien aurrian jarri ta itz oriek nola josiak diran galde zayozute. Ta alaere Xubero *basaburutik* Bilbo'ra ta Miarritze'tik Otxagabia'raiñoko edozeiñ nekazariaren batek errex ulertzeko eran ekarriak dira. Izkera ori Agirre'k baserritarren aotik bildu du. Ara zergatik aren gutunak goxoak, leunak, adigarriak diran. Arantzaileak arraintzailearen eran ta nekazariak nekazariaren eran izketan dabiltz. Emen bertan Tramana ta Brix'en krixketa-krixkitiñak aditu ditutzue. Arrai-saltzaileak bezala baserritarrak batzutan aserretzen dira baiña ez antza berean. Orra :

"Eztaietako tuntuna ta gurdien soñua aditzean, sorolanetan zeuden auzoetako nekazariak, gizon ta emakume, beren besoak atxur-kertenarten gañean toleztatuta, begira gelditu ziran danak,²²⁸ urruti aldetik. Sorotik sorora asi zuten izketarte, deadarka : "Ufa ! Zenbat gauza eder ; Daukanak agertzen du bear danean !"

"Eztu, ez, Ana Josepa'k toki txarrera bota begia. Mikaia (andre ezkongai) bezelakoak gutxi !"

Talo itxurako arpegi-zabal borobill ta matralla gizen gorridun atxur-neska batek :

Aldameneko agure zar alargun batek, parrez ta ixil antzean :

²²⁷ *Garoa*, 41'g.or.

²²⁸ Agirre'ri, beste idazle askoti bezela gogorati zitzayon « danak » ori, « guztiak » esatekoan makurki jarria dala. Bat baiño geiago diranian esan leike *danak*, "diranak" edo "ziranak" itzaren orde.

“Zeu bat, ezta, Luisa ? Zeu bat. Naigabetan zaude, gaixori, eztaietara deitu eztizutelako ; baña zu ta ni ezkontzen geranean, geuk ere eztiegu deituko. »

Luisa'k, aserre, suak arturik eta sokorra joaz :

“Jolaserako gogoan bizkarra daukazute !”

- Ez aldeitzazu ondo ?”

- Ezkon zaite Anboto'ko zorgiñarekin, nai badezu !”²²⁹

Orrelako izkuntza jatorra jakintsuen gutunetan aurkitu ezin leike. Ortarako nekazarien izketari oartu biar da. Agirre'ren itzaldi batzuk baserritarren aotik beretik artuak dirala dirudi-ta. Esan biezate gure basetxetako sukaldetzaz bestez non entzun al litzakeen ama ta semetxoeren arteko mintzaldi au bezelakoa :

- Ama, dirua bear deguba oraiñ ere.

- Dirua ? Beti dirua ? Zertako ?

- Manuelso'ri praka batzuk eta abarketak erosteko.

- Ama Kataliñ'ek egingo dizka prakak eure batzuekin.

- Jaiegunetarako ere bai ?

- Baita. Ondo ederrak dauzkak jantzi naiezta ganbarako aga zarrean.

- Ederrak, ama, atze ta aurre arabakiz beteak daudeta ?

- Ezta ajola.

- Ta abarketak ?

- Eztauka oraindik aiñ zarrak.

- Zarrak eztauzkala ? Ator, Manuel. Begira beio, ama, orra nola biatzak agiri dituan.

- Josiko dizkat baiarko.

- Biatzak ?

- Ara beste... argi-iturri.

- Txapelare bear du.

- Zer ? Txapela ? Aita ta semea... ! Noiz erosi nion nik azkenengoa ?

- Oraiñ bi urte.

- Oraiñ bi urte ta ostera txapel berria ? Ondatuko zenduketa zuek Drotxillen aberastunare.

- Ez berorren eskuetan balego !²³⁰

Zatitxo oriek noraiñokoa zan Agirre'ren trebetasuna nekazarien izkuntza egokiro bildu ta biurtzeko, ondo darakuskizute. Berak dirudi baserritarren

²²⁹ Garoa, 44-g. orrialdea.

²³⁰ Garoa, 29-30 g. or.

begiak dauzkala inguruetakoak ikusi ta aitatzeko. Basetxetxo bat bere bi aldetako etxetxoekin begiratzan badu, orra ze itxura pollita gogoratzen zayon : “Bere alboetan, amari gonetatik eutsika dauden aurtxoak bezela, etxe nagusiari lotuta, bestetxo bi agiri ziran”²³¹.

Etzuan samurkiago esango Birjilio’k.

Egikizunak luzaratzen dituanarentzat eztu ipiñiko orrek luzatzen duala “mundua amaitu arte”, baña ba, polikiago “arbi-lorea jaió arte”. Biguñ-biguña datorren etxeko-andre baentzako nola dio ? “Bigunago zegoan sasiko masustarik elduena baño.”²³²

Baiña emen moztu ta gure irugarren arlorra jo biarko degu, jaun andreak, emen geldi ez gaitezen “arbi-lorea jaió arte”. Azkenik ukitu nai nukean saila da Agirre’k bere idazteko eran darakuskun egizko euskaldunaren gogo alaitsu ta parrebidsua.

III *Garoa* ta *Kresala*’ren gaiak gure antxiñako oitura zarrez josiak daude. Emen artzayen bizitza, ta an arantzailiena ; ortxe, gari ta artoaren langintzak, ementxe burni ta zurgintza ; toki batean, aixkolariak, bestean azoka ta demak.

Euskal-sendiaren lagun guztiak or daude egoikizko itxuran : aita, jabe apurbar samiña, guk Xubero’n diogun bezela, “beti azken itza bere” ; ama, langile ixil, ezkontza koropitzaile zuurra, etxeko ondasunen begiratzaile zuzena ; semeak, batzuk etxearen zaitzale erneak ; beste batzuk erbestera joateko griñaz urratuak ; mutil lerden, neskatxa laztan, morroi “etxeko semea bezalakoak”, bestentzako parregarri ta guretzako maitagarri diran guztiak.

Aditu, ezpaiñ-bizartxoekin gatzelatik zetorkion semeari Zabaleta’ko andreak diona :

- Mutil, gauza batekin natxiok arrituta. Zer ekarri dek or, ezpañ-gañean ?
- Orixen da galdera. *Bibotea*.
- Bibotea ? Kendu itzak bizar oiek ainbat lasterren. Gurean eztek orrelako zikinkeririk beñere izan-ta.
- Bai zera kendu ! (*Beatzez igortziaz*). Ondo egoki dauzkat.
- Egoki ? Zertarako egoki ? Sudurreko urentzat malatua egiteko ? Kendu bearko dituk laster edo bestela...
- Semeak etzituan kendu, baño Ana Josepa’k egin zion egitekoa. Jaun Andres lotan zegoan txolaratean, guraiza zorrotzez, trist, trast, moztu zizkion goi-ezpañeko bizarrak. Ze demontre ! *Fuera bizarrez ! Zabaleta’n etzan bear biboterik*.²³³

²³¹ *Garoa*, 14 ‘g. or.

²³² *Garoa*, 40’g.or.

²³³ *Garoa*, 117-118. or.

Orra nola gure Txomiñ'ek euskal-oiturak beti goratzen dituan : batzutan parre samurrez, bestetan benaz ta bizkorki. Gurasoak semeen egitekoetan dauzkaten zuzenak sutsuki goستن ditu : "Eztira beti txarrenak –diogurasoak koropilatu dituzten ezkontzak".²³⁴ Mendi tontorrean bizi dan artzayaren izatea abesten digu : "Gizon txarrak gutxitan mendizale",²³⁵ ta urrutira dijoazten ta an bere euskalduntasuna galtzen duten euskotarren ergelkeriaz polliki nausatzzen zagu : "I aiz mendikoa...Eztidurik gutarra... Joan zaizkik emengo garo-usaiak".²³⁶ Or edo emen, neguaz, su-ondoan agureak erasan oi dituzten "atsotitz" zarrak aitatzen dizkigu : "Beti izan da gozoagoa auzoko janaria"²³⁷ edo "Ezkongei daudenean emakume guziak onak dira : ezkondu-ta gero, erdiak balira !"²³⁸

Agirre'k ondo badaki gure baserriarren artean moxkorkeria parrebide ederrenetarik bat dala. Beraz, *Kresala'n* ta *Garoa'n* moxkor edaleak aitatzen dizkigu : "Eztaietan jan galanki, edan galanki, ta gero mosk... Orra, orra ba esan ixilik euki bear nuana..."²³⁹ Azkarraga'ko eztaien kondairatxo au irakurtzean nungo baserriarra parrez ler eztaiteke ?

"Eztuten oker andirik izan : gizonen batzuk, iñoiz baño geiago ta adiskidetasun andiangoan itz egin bearra, lenbizi ; dantzan egiteko gogoa edo ezkonberrien alde itz neurtuak esan naia, urrengo ; toteltasun apur bat geroxeago ; zuzen ibili eziña illunabarrean... ta lo ederra, azkenez, oia arrapatu zutenak oian, ta Peru Odolki'k soro-ertzean".²⁴⁰

Auñemendi'ko lorea'tik (sic) *Garoa'raiño* Agirre'ren doai ederra beti aunditzen zijoan. Iru gutun oriek argitaratu ondoan beste laugarren bat, *Ni ta ni*, idazten asi zan idaztortza betiko uzteko ordua etorri zitzaionean. Uste izan genezake bere azken-idazki au eiñ bat aurreratua zala, berak aspaldiz geroz aitatzen zigun-eta, biok Zumaya'tik Getaria'raiñoko bide ikusgarrian izketan bagenenbiltzalarik. Orrela izanez, norbaitek bildu ta pixkabat antolatu-ta argitarazi ezin ote lezake ?

Agirre'k, itzaltzean, guri euskaldun idazle ta batez er irakurgaikiñeri jarraitu biar diogun bidea erakutsi digu. Agirian jarri digu emen bertan, gure asaben oitura zarretan, gure nekazari, artzai, arrantzaille, langile, aurtxo, ta gure Euskalerrria'ren mendi, landa, baso, ibar, erreka, basetxe, ola, igar eta

²³⁴ *Garoa*, 42'g. or.

²³⁵ *Garoa*, 5'g. or.

²³⁶ *Garoa*, 116'g. or.

²³⁷ *Garoa*, 32'g. or.

²³⁸ *Garoa*, 34'g. or.

²³⁹ *Garoa*, 22'g. or.

²⁴⁰ *Garoa*, 56'g. or.

eleizetan idazgaiak badauzkagula baitezpadakoak. Naikoa da gure lur mamintsuagana uzurtzea artatik diran uzta ikusgarrienak biltzeko, Nola'tar Paulin doneak zionaz : *Operare et excole banc regionem terra tuoe, frater, ut germinet tibi frugen fertilem, plenam adipe frumenti.* "Landu, anaya, ta iker ire erri onen lurra, ta sortiko dizkik uzta aberatsak, ogiaren mamiaz beteak." Oroitzen naiz, beñ, nere eleiza-gutuna irakurtuz, Jaizkibel'go lepo batean nenbillela, itz oriek topatzearekiñ, nere *Mirentxu* argala idaztea gogoratu zitzaitala. Ni lanari lotuarazi ninduten itz orik berak Agirre'k oraiñ, zerutik, oiustatzen die gure idazle gazteeri. Apaiz ospetsu zarraren oiua entzun dezatela, ta beñere bere sailan aspertuko baliteke, gogoan erbili dezatela *Garoa*'ren etxenagusiak bere ume landan lokartueri dioten deia : "Asi ta ekiñ ! Ekiñ eta jarraitu ! Aurrera beti ta beti !"

Ekiñ eta jarraitu... Bi itz oriek, Euskaltzaindia'n ikuritz-tzat autatu ginituenean, Agirre gurekin zagon. Bere apaltasun biguñ-biguñean etzigun esan berak lenik autetsi zuala esakera ori. Oraiñ gu alaitzen gera jakiñez aren eskutik artu degula. Berak, bere lanezko bizitzan, ez ote du bete ? Asi ta ekiñ zuen : guk, aren orde, ekiñ eta jarraitu dezagun, Jaungoikua'k emango digun epean.

GURE ORMA ZARRA

Oyartzungo euskal-jaietan Aita Pierre Lhande Jesusen Lagundiko apaiz zuberotarrak, 1915-eko Dagonillaren²⁴¹ 5 garrenean egindako itzaldia

Ut quid dextruxisti maceriam ejus et vindemiant eam omnes qui protergredintur viam ?

Ps.LXXIX, 13.

Zergatikana utzi dezu iraultzen zure masti-inguruko arri-orma ?
Orra non orain sartzen diren zure ondasunak galtzeko, bidez bidez dabiltzanak.

Nere biotzeko euskaldun anai maitiak :

Ezpanekar biotzeraño sartua dakardan euskararen eta euskalduntasunaren maitetasuna, ezintzan gaur ausartuko irakastegi onetara, ainbeste gizon jakintsuen aurrian igotzera.

Norbaitek itzegin bear balinbazizuen, euskararen onerako bilduak zeraten euskalzaleeri, uraxe izango zan gipuztarren izkuntza txit ondo dakien eta Oyartzungo ospe Aita Mendiburu euskalzale aundiaren oroipenari, bere itz motel ta txarraz itzal egingo ez zioten-bat. Alabaiña, begien aurrian daukazuten itzegillea, ezta gipuzkoarra, biotzez ezpada. Mendi orietatik ararontz dagon euskaldun anaien lurretan jaioa, ango prantsez euskara darabil sarri sarrienik ezpañetan ; baña emen egoki diran itzak ondo berezituz, ta besteak utziz, uste det bere itzalditik geiena guztiok adituko dezutela, neke aundirik gabe.

Nik gaur emen euskal-jaietan itzegiteak, dakarzkite batean lotsabide aundi bat, ta baita ere onrabide eder bat. Lotsatzen nauena da nere izkuntzaren

²⁴¹ Dagonilla : agorila, abuztu.

laburtasun eta eskastasuna, batezere emen, nere Jesusen Lagundiko anai Mendiburu jaio zan errian itzezin bear dedanez-kero. Euskera ain ederki ta argiro zerabilen ark, euskarazko ainbeste kondaira apaindu zituen aek ez ote dit, nere ausarkeriaz aserretu-ta, kenduko gogotik edo mingañetik emen gaur atera bear nuen itzaldi nastua ? Ta denbora berean dirudit neretzat ospe aundi bat dala nere Aita Mendibururen jaioterri ta jaioteleiza txit eder onetan gaur nik adieraztea.

Aitorkizun bat aitortu bear dizuet, euskaldun maiteak. Aita Mendibururen maitazale ta goresle zintzoenatarik bat naiz. Orain dala gutxi gora-bera amabi urte, Inglaterako lurretan nebillela, egin nai izan nuen Londresera joan-etorri bat, ango *British Museum* deritzaion liburutegi aitatuan gordetzen zuten Mendibururen kondaira zar-zar bat nere begiez ikusi-ta eskukatzeko. Zeiñ atsegiña neretzat ikusi nuenian Euskalerriko liburutxo ori, an, ondo gordetu-ta larru ederrezko estalki aberats batez zintzoki jantzia ! Bildurrez ote norbaitek andik kendu ta eramane zezan, ango jabe-nagusiak etzuten utzitzen, Jesusen Biotzaren euskal-kondaraitxo ori, edozeiñen eskuetara ; baiña baimen berexia norbaiti emanek-kerok irakurleak bear zuen gela artan bertan geratu, bere aurrian liburutegiko morroi bat zaukala begira ta zai.

Ta nik gogutzen nuen : Ona nola emen agertzen dan euskaldunen itsutasun da ergelkeria ! Emen inglesak gure euskerazko liburuak biltzen eta aiñ egoki gordetzen, ta gu Euskalerrian, aiñ ajolik gabe et aotz gure izkuntza maitearentzat ! Kanpotar urrutiarrak dagozkienentzat ! Nolaz guk utzi ditugu galtzen gure artean besteok aiñ gartsuki billatzen zituztenak ? Euskaldunak : zeñ ez bestelakoa da zuen lilluramendu ta erokeria, ez goresten, ez goratzen dezutenean zuen guraso zarrak utzizko ilburuko ondasuna ? Ez dizute zueri ots egiten Israeleko aurizlariak alegiaz Jaungoikuari baña egiaz Judio gaistoeri otsegin oi ziotena ? Zergatikan utzi dezu iraultzen zure masti inguruko arri-orma ? Orra non orain sartzen diren zure ondasunak galtzeko, bidez bide dabilanak...

Bai, euskaldun maiteak, ama euskara (sic) da Euskalerriko lurren inguruan Jaungoikuak jaso zuen arri-orma : ark gordetzen gaitu atzerrietatik datorzkigun gaitz guzietatik ; gerazten gaitu garbi, zintzo, argi ta eder Jaunaren eta gizon guztien aurrian ; ark eztatzen, lañotzen digu deramagun bitzta ori, Zeruko bidean gora gabiltzela.

Oriek danak, zueri ezagutueraztea da nik gaur dakardan xede edo gaia, Jaungoikuak ta bere ama gaitzitzalik gabiak laguntzen nauela bear bezela itzegiten, eta zuen biotzak sututzen, Beraren eta euskeraren maitetasunaz.

Erroma iri zar aundiaren kondairan dakusagu, euskaldun maiteak, bein bere gudari ospetsuak lur zabaleko bazter danak garaituz-kero nai izan zituztela ere mendetu euskaldunen mendiak.

Jesus gure Jauna gutartera jatxi baño gutxiz aurrerago, Erromako gudariak sartu ziran gure ibarrak barrena, ustez inork etzuela irauziko mundu guztiak zekarren beren uztarri gogorra. Mendi tontor oietan altxatu zizkioten bere Jaungoiko gezurrezkoeri arpilarrak eta eleizak, iduriz lur ori dana beretuko zutela, landatzen balinbazuten gure arkaitz artetan bere Enperadoren bandera. Igaro dan astean oraindik, an, Euskalerriaren beste buruan dan nere jaioterri Zubero-ko probintzian, nere begiez nakusen Caius Valerius zeritzaion gudari erromatar batek mendi gora batetan altxatu zuen arrizko mai eder bat. Mai ark dakar latín itzez nola, mendiz-mendi zebillela, gudu aurrendari orrek altare bat eskeñi zion lepo artan zegoen edo arkaitz aietan zebillen basajainkoari.

Bi milla urte igaro dire ta aspaldiz-keroz itzaltua da bai gudari aren, bai Erroma eziñ-garituaren fama edo omena. Ezgenakike izan ote danez beñere an erromatar oste aundirik, topatu ez-bagendu arri pikatuzko mai ori, orainxe an altxatzen dan kristau eleiza baten ormetan sartua. Igaro dire, igaro, zeruko laño-edoia bezela, lur zabalaren garatzaile otsegilleak. Eien oiur, marraka ta birauak ez dituzte jo bi milla urtez-keroz gure mendietako oiartzunak ; ta oiartzun bigun maitagarri abek besterik ezdakarkigute, baizik gure bildotsen dei-ikara ta gure artzaien xaramela. Munduak galdu erromatar zarren oroitzapena ; lurrak jan edo erre ditu oien ezurrak, ta ainbeste gizon aundien azken obiaren gaiñean, oteak ta iratzeak zabaltzen dituzte bere lore, ostoa ta buruxkak.

Nora igesi egin dezute, gudari azkarrak ? Nondik itzuri zerate, lurraren garaitzale gaitzak ? Zeiñ armak, zeñ soldadok, zeñ deiadarrek, zeñ irrintzik bildurrez jo ditu Erromako tropa oste ezin menpetuzkoak ? Euskaldunen mendian agertu ote dire Germania edo Gallietako gudari-lerroak baño gudari-lerro aundiagokuak ? Mendizale oien artetik altxatu ote dire zuok garaitu dituztuen Amilkar edo Anibal baño kapitan bildurgarriagokuak ? Esan niri, esan etsai aundi orren izena !

Etsai orren izena nik emango dizuet, nere biotzeko aditzalle maiteak : etsai orrek, armarik ta gudaririk gaben deadar ta irrintzirik gabe, bildutarazi baititu euskaldunen etsai guziak, erromatarren denboratik gaurko egunetaraiño : ura da gure AMA EUSKARA.

Ta jakiñ nai balinbadezute nola izkuntza gabe ezin ditezkelako jarri gobernurik. Elkar ezin-adituzkoen artean nola eragin eta erabaki legeak ? Nola Bildu legarrak ? Nola jakiñ nork zer dion edo dagion, itzalpean, garaitzalearen kontra ? Orregatik Zizero erromatar ospetsuak zion menpetu bear dan erri baten len-orra eta gaztelua dala erri orretako izkuntza. Orregatik erromatarrek deitzen zituzten bere iri-nagusira, mundu zabaleko izkuntza danak bazekizkiten irakasleak. Ta gure egunetan ere ez ote dakusagu

nola gudukarien gudari buru guztiok derasaten batak besten erdara ? Ulertzea zein gauza aundia dan guda batean etsaiaren itzaira jakitea : orixe izan da beti gudari onenen señaile edo agiripena.

Alanbaina, euskaldun maiteak, badakizute munduan dan izkuntza guzietatik zaillena dala gure euskara (sic). Iñork ura ez derasazke ezpadu iretsi amaren esnearekiñ batean. Badire Españian ala nola Frantzian, Inghaterran eta Alemanian, gure euskararen berri daukatzen jakintsu asko, baña ezta ez bakar bat ere, azkar ta garbi gurekiñ mintzatzen dakienik, ezpada gutartean jaioa.

Izkuntza ortan zailtasun aundiena dator *berboa* deritzaion zatitik. Zuok bai ote dakizute zenbat itz berezi dauzkan euskal *berbo* bakar-bakar batek ? MILLA TA ZAZPI EUN ITZ. Ta nola baitire euskaraz nonbait bederatzi milla *berbo*, euskara txit ondo dakien batek badazkitza, *amabost millioi eterdi* itz !

Ta oraindik itz oriek labur, bigun da errex balira ! Baña orietatik asko luzeak dire ta ezpañetan erabilkaintz, euskaldun mi batek ezpaderabiltza.

Zeiñ etsai etzan aspertuko, euskaldun maiteak, orrelako itzak aditu ta ikasteko ? Erromatarrak laster azpertz ziran eta bere aserrean zioten gure izkuntza zala “rudis eta barbara”²⁴² esan nai baitu : “latz eta baserrikoi”. Eta ori zerasatela itzuri egin zuten bere irietara, utzitzen gintuela gure izkuntza latz ta aztura baserrikoieri gure menditarte oietan.

JARRAIPENA

Ori beraxe mitan derabilate, euskaldun maiteak, erromaterren atzetik etorri zaizkigun denbora guzietako etsaiak. Ori beraxe derasate gure fede ederra gure biotzetatik galdu naiaz emen dabilzan gaurko etsai beltzak. Frantzian, orain dala amabi urte, *Combes*²⁴³ gizajoak euskaraz predikatzea ta Kristoren legea ikastea nekazari ta goldenabarki deus ez jakiñentzat on dan eta gure argitzeko denborari ez dagokion izkuntza zar ori.

Baña, estakuru edo aitziki orrekiñ zer gorde nai zuten ? Gure fede kristaua gure izkuntzarekiñ batean galtzeko zaukaten asmoa : besterik ez. Bada gure siñismenen etsai oriek txit ondo zekiten gure euskara josia dala Jesus maitiaren legeakiñ ziñ-ziñez ; ta lena beiñ atera balinbazuten, bestia ere laster erroetatik kenduko zutela. Bai oriek len-lenik ulertu zuten gure euskara dala

²⁴² Mariana I, v. Hist. Esp. (Lhande-k emandako oin-oharra).

²⁴³ *Combes Emile* (1835-1921) : frantses politika gizona, erradikala eta laikoa. 1902-1905 arte, gobernu buru egona, “katixima”-ren eztabaida denboran (1902) –katixima frantsesez egin behar zela agindu zuen gobernuak- ; Aita Saindua-rekin harremanen gelditzea gertatu zelarik (1904) oraindik buru zen ; 1905-ko Estatu eta Elizen arteko bereizketa bideratu zuen nahiz jadanik gobernutik joana zen.

fedearen jauregi gaztelua, ura dala Jaungoikuak bere masti Euskalerraren inguruan altxatu duen orma, gutaraño eldu ezditezten bidez bidez dabilzan fedearen lapurrak : esan nai ditut, beste izkuntzetako liburu loitsu, egunari tzar, iztun gaiztagiñak. Bazekiten gure euskara au zerukoa dala, iñork ez baitezake euskarazko birau edo arnegurik erabili-ta. Bazekiten Kristoren erakaspenez gure izkundera oso jantzia dala ta iñork ori Jaungoikuaren kontra biurtzeko ta makurtzeko lanari lotzen bada, len-lenik egin bear duen lana, dala ura zikintzea, laster bera geratzen dala ez euskaldun, baizik euskal-gaitz egiña : euskara da goi ta argi diran gauzak adirazteko izkuntza egokiena.

Adizazue zer zion orretaz, oraiñ dala eun da geiago urte, Aita Larramendi euskalzale ospetsuak, Aita Mendeburu-ri bialtzen zion eskutitz batean : “Zure izkuntzari banagoka len ere baño obeatoago dakust alde oietako euskaldunen itsumendua, zeñean darasaten ezala gure euskera, gauza aundi, mee²⁴⁴, goi diranak adirazteko... Orretaz itzegiteko ezta munduan gure euskara bezaiñ izkuntza... eztiago, gozoagorik²⁴⁵.

Ta nere Jesusen Lagundiko beste anai ospetsu Aita Agustin Cardaberazek zion bere liburutzaren batian : “Euskera bedeinkatua da, Jainkoaren benedizioz erregalioz betea. Euskera berez txit nas-gabe edo garbia, argia ta bizia da. O euskaldunak ala balira ...!”²⁴⁶

Orra, euskaldun maiteak, gure ondo gordetzeko Jaungoikuak gure mendien inguruan jarri zuen urrezko orma. Orren itzalpean luzaro bizi izandu gera garbi ta argi, beste gizon askok gure iru aldetan galtzen zutela guk oraindik daukagun fedearen doaia, ta orrekiñ batean, aztura onak, jaiotechearen naitasuna, anziñakoen oroipena, lurlantzarako asmua.

Baña balinbadakusagu oraingo euskaldun askoren egikera ez bear ote degu bildurtu, iñork oraiñ arte irauli al izan etzuen arri-orma laster eroriko dala, ta urruti ez dan egunen batean adituko degula aurrizlari santuak ziroena : “*Ut quid destruxisti...*” Zergatikan utzi dezu iraultzen zure masti inguruko arri-orma ? Orra non oraiñ sartzen diren zure ondasunak galtzeko bidez-bide dabilzanak.” Ez ote dire sartu Euskalerraren biotzeraño, gure Eleiza Ama ta gure Aita Santu maitea bere mii loitsuaz izketan zikintzen dituzten gizon doakabezkoak ? Ez ote dabilta gutartean anziñakoen bizitza onragarri ta garbi orretatik gure mutil gazte ta neskatxak aspertarazitzeke naiakiñ, Ameriketarat edo beste urrutiko atzerrietarat bulkatzen dituztenak ?

²⁴⁴ Mee : 1. argal, lerdan. 2. hemen, goi maileko gaia.

²⁴⁵ Mendiburu : Jesusen Biotzaren debozioa. Edicion Dogdson, 14-15'g orrialdeak (Lhande).

²⁴⁶ Cardaveraz : Ondo iltzeko bidia. Edicion de 1851, IV'g orrialdea (Lhande).

Ta nondik sartu zaizkigu barrena lapur tzar oriek ezpada gure izkuntzaren esiko zuloetatik ? Zeiñ izkuntzan aditu eta irakurtu dituzte len lenik Eleiza edo Aita Santuaren kontrazko aitzaki oriek ? Zeiñ erdaldun gizagajoak irun ote diete amets-urrezko orien aria ? Ez noski euskara utsaren berririk zeukan buru argiko euskaldun batek ; ez noski baserrietako artzai batek ; ez etxeko-jaun zintzoren batek ; baizik iri guztietako loian oñak zikindu zituen alpertzar batek.

Euskaldun maiteak ! Nai balinbaditutuzue gordetu dauzkazuten doai ederrak, ez utzi iraultzen zuen jauregi orma : ama euskara !

Euskara da munduban dan izkuntza zarren eta ederrena.

Euskara da zuen ongigille onena, bai bizitza onetarako bai besterako, ark gordetzeko zaituzte gaitz guztietatik-eta.

Euskara da iltzerakoan dan kantu biguñena. Orain dakusagun gudu izugarri onetan dabilten euskaldun anaien artean bat il da nik txit maitatu nubena : ura zan Domingo Txaro, apaiz jaun gaztea. Guduko lekuan zagoela balaz burua josia, bere adixkide apaiz erritar bat joan zitzaion aldera. Itz egin zion luzaro ; baña Domingok begiak itxiak zeuzkan illa bezala. Alabaña orra non apaiz lagun orreri gogoratu zitzaion euskaraz itzegitia, ta dio : "Aditzen balinbadirazu, euskaraz mintzatzen natzazun oneri, irikitu niri otoi, bi begiak". Ta euskarazko itz oriez esnatua, iltzera zoanak irikitzen diozka bi begiak nigarrak zeriotzala. Ta andik laster ill zan.

Nere anai euskaldun maiteak ; nik orain itzaldi au bukatzearekin asmatzen dedan naikaria da, gu emen gauden guztiak orrela ill gaitezen, euskarazko itzak aditzen ditugula ta pozezko nigarrak begietatik dariozkigula ; kristau on eta erritar onen nigarretaz esanak dirade Kondaira Santuan irakurtzen ditugun itz auek : "*absterget omnem lacrimam ab oculis eorum...*" Nik, Jaungoikuak, orien begietan idorreraziko ditut nigar guztiak eta betiko zoriona gozatzeramango ditut ner Zeruko jauregitara.

Ala izan dedilla.

PIERRE LHANDE.

ESKUARA ETA ESKUALZAINAK

Azken hilabeteko « Gure Herria », Eskualduna idazle edo izkiriazale batek behin zerabiltzan solas batzu aiphatzearekin, gure irakurtzale askoren gogoan itzaltto bat utzi duelako beldurrarekin nabil. Itzaltto hori, Eskual « Akademia » edo *Eskualzaindia*'ren etsai batek bakharrrik altxatu balu, nere xokoan geldi-geldirik egon nintake, zen etsai itsuari erantzun edo ihardestea, azia lur ahulari emaita da. Bainan solas okher horren aiphatzalea gure adiskide zinzinezkoenarik bat delakotz, eskuratu daukigun gai hori, hein batean garbitu eta xuritu behar dugula deritzat.

Eskualdun idazlari harek omen dio, Eskualzainek, « eskuara, beren ustez, bertzeek baino hobeki dakitenek », beren biltzarretan « gure eskuararen goiti-beheitiez erdaraz mintzo *omen* » direla ; eta « omen » horri egiaren itxura zenbaiten emaiteko, « hoitarik batek hala aithorturik » dela derasa.

« Aithorzale » hori Eskualzainetarik zoin edo nortsu den, egileak eztu erraiten eta neronek, eztakidalakotz, salha ez nezake. Bainan garbiki erran dezakedana da, gure biltzarretan, hastapeneko othoitzean hasiz eta azken hitzeradino eskuara derabilgula. Bai ! erdarari agurrak egiteko, Elizalde, Eguzkitza, Olabide, Altube, eta abar... bezalako Eskualdunekin ongi giagok, muthil ! Horiek baino, frantses ala español erdararen etsai gaitzagorik, Baiona'tik Bilbo'radino harrapatzea erres (sic) ez-litake. Gutarik batek, oraino eskuararatu ez-diren yakinbide batzuen aiphatzeko, noiztarik noiztara erdel-hitz moltxobat balimbazerilan, ikhustekoa zen Eguzkitzaren begi beltzen tximista eta Aita Olabide'k xuxen botatzen zako : »Euskeraz, yauna ! »

- Beraz, zuk ere, batzutan erdaraz mintzatzen zareztela aithortzen dezu ?

- Bai ... zera... zu... Zoaz eskuaraz solas egiterat, guk derabiltzagun gai batzuez : « Sur le mode de préfixation et de suffixation des radicaux au mode direct féminin du tutoiement dans le verbe basque » : edo : « sur les appareils enregistreurs dans la phonétique expérimentale » !

Diot : maiz-maizenik eta biltzarraren burutik buru eskuara derabilgula, eta egoki den bezala, gauza xehe eta zail batzuen adirazteko, han-hemen frantsesa, española, anglesa, bai eta ere alemana, agertzen dugula. Zer

ginetezke eta zer indar ginuke, gure eskuararen alde hizkuntza horietan idatziak edo argitaratuak diren guthunak ezin irakur eta ezin ulert bagintu ? Eskuararen ikhertzeko eta aberasteko aski bada, gure artean eta mende hautan deramagun eskuararen biphilki mintzatzea, zoazte Ziburu eta Donosti'ko porturat eta zuen Eskual-Akademian sarraraz itzazute han aurkhituko dituzuen xardina saltzaileak. Hitz dautzuet hek eskuara hutsa —eta nolakoa !— eramanen dauzutela.

Begotza hor itsuen eta ergelen aitzaki horik : bertze izenik ez dute merexi. . . Hitz hori gogorxko badirudizu, adiskidea, irakur zazu Aita Larramendi'k, orai duela ehun eta laueta hogoi urthe hurbil, ziona : « Etzaitzabela tonto tzarren erautsiak ozpindu ta ikaratu, eztirade jendartekoak ez aurkituko ; ezta billatu bear ere. Bazterretan, ta itsu, ezerere danik agertzeko ta argitaratzeko. Zer dugu astoren batek edo bestek esana gatik ? »²⁴⁷ Hala dio Larramendi'k.

Aspaldi danik yakina den gauza da, berenaz hobekienik lanean ari diren zirikatzaileak berak alferrak eta ahalgegabekoak direla. Tirritta, xinaurriaren... tittirriazale ; leiztorra, erlearen zirikatzaile.

Alabainan, Eskualdunen artean, eskuararen alde zerbaiten egiteko ez ginuke ez tirritta ez leiztorra beharrik : GUZIAK ERNE ETA ERLE? TXINAURRI ETA GINAURRI. Etsaiak baditu frango... kampoan ; hekieri buru egiteko Eskualdun guziak batetaturik ere ez-gare gehiegi. Bazterrerat utz ditzagun bada gure berhexgoa eta berekhoikeriak. Gure anaia gazteak guk baino lan gehixago ephaiten badu, hobe : lan gutiago guretzat ! Norberak bere aldetik, indarraren neurrian. Orok bihotzean maitetasun bera deramagu : *Euskara* eta *Euskadi*'ren maitetasuna. Horrelako sua bulharrean dakharrenak bere baithan lekurik utz ez lezake bekhaitzeriaren sukhar gaistoarentzat. Bertzela, harrek "Eskualdun" izen garbiaz bere buruaren aphaizteza merexi ez duala diot eta nago.

Pierre LHANDÉ
Eskualzain

Gure Herria, n°2, Otsaila, 1921

²⁴⁷ Mendiburu : Iesusen bihotzaren devocioa, San Sebastian 1747 (Réédition Dodgson) 19-20 garren orriak. (P. Lhande-k ezarritako nota).

USKALDÜN GÜDÜKARIENTAKO GÜTHÜNAK²⁴⁸

Jakin dügü bihotzeko atsegin egiazko bateki Pariseko jaun gazte batek eskütan hartü dian egitekua gure herritar güdükari zaurthien (zaurituen) hunetan²⁴⁹. Jakinik bazirela hirinausiko eritegietan Uskaldün hanitx eta hanitx, jaun hura juan zeitze ikhustera, üskara-plaña (euskara errexa) xüxen emaiten dakian jaun aphez bateki. Heltu bezain sarri nabaritu die gure Uskaldünek etziela, bestek bezala, zertan denbora higa, etzelakoz han ez erizaiñik, ez igailerik üskara zakienik. Aments ükhen balire irakurtzeko zerbait ! Bena han ziren güthün eta kasetak (idazti eta egunorokuak) oro erdara tink-tink²⁵⁰ hortan ezarririk ziren eta hek ezin erdara enthelega ! (ulertu). Hain laster jinarazi dütie, jaun horiek, Uskal-herritik, güthün eta irakurgeti eli bat²⁵¹, hersatzen (bidaltzen, zuzentzen) zirelarik bere hanko adixkider, beste liburu eta mouzkin²⁵² zunbaiten ukheiteko.

Guk ere, Gipüzkoako alderdi huntan girenek, entzün dügü jaun hunkigile horien deia eta nahi günüke egin zerbait, gure ahalaren müga llabürretan, haier lagüngoia amiñi baten (apur bat) erakhartzeko. Horrengatik, EUSKAL-ESNALEA edo *Uskal – Iratzarzalía* deithürük den güthün amostoroztuak gei deitze igorri oraiartinokan argitarazi dütian kartillak oro, algarri josirik urthekal.

Bihotz-altxagarri zaiku goguan igaraitia gura gaixo güdükari zaurthürük direnek ükenen diela bide horrez nula higa eritegietan orenak (orduak) eta egünak. Bere odolezko anai Uskaldünen emaitzari esker, beren oiñhazien artian balinba erro eginen die hebenko atsohitx edo alegien irakurtziareki, eta ahatzeko dütie bere bihotz-minak.

²⁴⁸ Güthün : idazti.

²⁴⁹ *Hunetan* : *onetan, faboretan*.

²⁵⁰ Garbia, utsa, esan nai du zuberorren *tink-tink* orrek. Erdara tink-tinka : erdara garbia, erdara utsa.

²⁵¹ Irakurgeti eli bat : irakurgeti batzuk, irakurgeti xorta bat.

²⁵² Mouzkin : premiazko gauza.

Dagün hilabethian Gergorio Mujika jaunak emanen dütü Españako erdaraz xehetarzün zunbait güdüka izagarri huntan bere eginbidia ederki egin dien Uskaldünetzaz²⁵³. Oraidanik eskerrak deitzogü bürüratügei dian lanaren gatik, hala nula eskerrak deitzegü üskal-irakurgeti zunbait igorriko deizkien gure irakurzale orori. Badakigü Españako Uskaldünak, hala Frantziaren althe direnak nula Alemaniaren althequak, bere odolezko anaien bihotzminak berenak balira bezala hartzen dütiela. Ni ezniz phüntsützen (aserretzen) hebenko kaseta erdaldünek erabiltzen dütien elhez baten althe edo bester aitzü (kaltez, aurrezka, kontra), ezi badakit bihotzez eta egiaz uskaldünak oro bat girela, denak adixkide, denak anai.

PHETIRI LHANDE-BASAGAITZ.

Jesüsen khidegoakua.

Mendeluzar (Undarribin), Azaruaren 10'ian.

EUSKAL-ESNALEA -1914.

²⁵³ *Euskalerrriaren alde*'ren 93'g zenbakian azalduko dira xehetasun oek. (Z.O)

AURKIBIDEA

<p> AINTZIN-SOLASA Pierre Lhande (1877-1957) </p>	VII
<p> YOLANDA </p>	1
Urdanibia	3
Ola	9
Burni erregiña	15
Flamendarrak Flandraruntz	21
Aurrekua	29
Ontzi gidaria	35
Lapurrari jazarka	41
Olan Odola	45
Toberak	49
<p> SOLAS-ONDOA </p>	55
Yolanda eta eleberrri historikoa	57
<p> ERANSKINAK </p>	79
Agirre Irakurgaikiña	83
Gure Orma Zarra	93
Eskuara eta Eskualzainak	99
Uskaldün Güdükarietako Gütünak	101

